

Neronek tirako nizkin

Sebastian Salaberria



utsiko...
ian noizbait ele...
makina bat bider...
! Egualdi ederrarekin...
renteri tik kanposant...
dera goazela, erritik iru bat...
lareun bat metrora dago. Etxe kaxk...
so zarra, mendi-egal mo... pel batean egi...
ala. Terreno gutxi, txarrak, arlo...
zituau.
ba omen zituau
ruan baxi... bost edo sei sagar-arbol,
ti; belaze eta sagasti kaxkarrak; txarik...
a edo urik ere etzuan bere terrenuan, eta...
riaren erreka edo iturritik artzen omen g...
en jabea emakume xar bat omen zan. Bera baka...
an bizitza batean, eta beste bizitzan berria...
xar areko, urte asko nola bai zituau, oyartza...
ordira eramán omen zuten, eta gero albitza...
egin zan, eta gu ere omen...
anai



hauspoa

Sebastian Salaberria

Neronek tirako nizkin

HAUSPOA LIBURUTEGIA

1

SALABERRIA, Sebastian (1915-2003)

Neronek tirako nizkin / Sebastian Salaberria ; [hitzaurreak, Anjel Lertxundi (edizio honetakoa), Antonio Zavala (aurrekoa, 1994koa)] ; egokitzapena, Pello Esnal. - 3. argit. (lehenengoa euskara batuan). - [S.l.] : Hauspoa ; Donostia : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua, 2016.

140 or. : ir. ; 20 cm. - (Hauspoa Liburutegia ; 1)

Aurkibidea

LG SS 295-2016. - ISBN 978-84-7907-745-7

I. Lertxundi, Anjel (1948-). II. Zavala, Antonio (1928-2009). III. Esnal, Pello (1950-). IV. Gipuzkoa. Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes. V. Izenburua. VI. Saila.

821.361-31" 19"

1. argitalpena: 1964 (Auspoa, 38)
2. argitalpena: 1994 (Auspoa, 38)
3. argitalpena: 2016 (Hauspoa, 1)

HITZAURREAK

© *Edizio honetakoa*: Anjel Lertxundi.
© *Aurrekoa (1994koa)*: Antonio Zavala.

TESTUA

© *Jatorrizkoa*: Sebastian Salaberria, Antonio Zavala.
© *Egokitua*: Pello Esnal.

© Edizio honena: Gipuzkoako Foru Aldundia

Hauspoa bildumaren diseinua: Javier Lopez Altuna.
Maketazioa: Imanol Tapia.
Marrazkiak (azalekoa eta barrukoak): Joseba Larratxe.

ISBN: 978-84-7907-745-7
Legezko Gordailua: SS-295-2016

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak, S. L., Gudarien etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

Sebastian Salaberria

Neronek tirako nizkin



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua

Donostia, 2016

AURKIBIDEA

Fabula moral bat (Anjel Lertxundi).....	9
Zenbait ohar (Pello Esnal).....	17
Itzaurrea (Antonio Zavala).....	21
Neronek tirako nizkin	
I.....	27
II.....	29
III.....	35
IV.....	41
V.....	45
VI.....	49
VII.....	53
VIII.....	55
IX.....	59
X.....	63
XI.....	67
XII.....	71
XIII.....	73
XIV.....	75
XV.....	79
XVI.....	83
XVII.....	85
XVIII.....	89
XIX.....	93
XX.....	101
XXI.....	107
XXII.....	113
XXIII.....	119
XXIV.....	123
XXV.....	127
XXVI.....	129
XXVII.....	133
XXVIII.....	135
XXIX.....	137

FABULA MORAL BAT

GORROTORIK GABE ez omen dago gerrarik. Sebastian Salaberriak pertsona bakarra gorrotatzen du *Nerorek tirako nizkin* narrazio autobiografikoan: Alberto da, gazteei soldadu-txartela bidaltzen dien udaletxeko langilea. “Ni mutil koxkorra nintzen”, kontatzen du Salaberriak, “[...] eta gorroto handia nion. Oraindik ere oroitzen naiz nola esaten nuen: ez ote da hilko Alberto, ni soldadu joaterako?”. Alberto hark beldurgarria behar zuen izan, mutil koskor batek halako inkurria izateko soldadu-txartelak bantzen zituen funtzionarioari. Baina ez dago oso bizkorra izan beharrik gorrotoaren arrazoi benetakoa aurreratzeko: soldadu joan beharra zegoen –gerraren itzal luzea– Albertok pertsonalizatutako herraren atzean. Salaberriak berak argitzen digu auzia: “Ez zuen asko balio izan [...] nire maldizioak. Uste nuen Alberto hilda besteren bat izango ez zela soldaduskako paperak bidaltzeko; berriz ere horrelako paperak etxeetara bidaltzeko izango dira bai gizonak, ezinean dabilenari laguntzeko baino seguruago”.

Afrikako gerra, Kubakoa, karlistadak... Soldadutza eta gerra errotuta daude eta estu lotuta datozkigu memoria kolektiboaren bertsioetan, kontakizunetan, oroitzapenen bidez, eta soldadutzara joan beharra da Salaberriaren narrazioak munduari ikusten dion arrakala sakon bakarrenetakoa: “Berriz ere horrelako paperak etxeetara bidaltzeko izango dira bai gizonak”, abisatzen digu, eta laster “horrelako gizonak” amildegi sekulako baten itxura emango diote Salaberriaren arrakalari: gerra hasi da.

Soldadutzaren existentzia hutsak gerra bidaide du.

Salaberriak hogeitun urte ditu.

ARMEN HARTZERAT. Solferinoko itsua bezala, sistemak armak hartzera behartzen du Salaberria ere, eta gerra bukatu eta hainbat urtetara ematen digun kontakizunak oso modu lausoan esaten digu nork eta nola behartu zuen gerrara. Ez digu gerra piztu izanak eragin dizkion sentipenei buruzko ezer esaten. Ez du gehiago Alberto aipatzen. Lauso dago gorroto ote dion inori, gorroto ote dion gerrara daramanari, gorroto ote dion lubakia- ren beste aldean dagoen jendeari. Ez, Salaberriaren aitortzan ez da gorrotorik ageri inondik. Dagoena da eroapena. Edo, nahia- go bada, gerrara joan beste erremediorik ez duen baten etsipe- na. Eta motiboen soka luzetik tiraka hasi naizenez gero, nola ez aipatu beldurrak eragindako izu-laborria, hildakoena bezalako isiltasuna, presaka zulatutako hilobien lur hotz bera baino bel- dur ikara are hotzagoa?

Salaberriaren nobela lasai har daiteke isiltzen dituen –isildu beste erremediorik ez dituen– gorabeheren lekukotasun debe- katutzat.

MUNDUA LASAI ZEGOENEKOA. Gerra hasi baino hamar bat egun lehenago Salaberria sanferminetara joan da lagun batzuekin. Han dabilzala giro atseginean, tiro batzuk entzun dituzte, bai- na ez dute gerra datorrenik usaintzen. “Karteristen bat edo zer- bait horrelako ibiliko duk, eta hari tirako zioan guardiak”, dio lagun batek.

Sanferminetako festen kontakizuna da Salaberriaren libu- ruan zehar agertzen den pasadizorik luzeenetakoa. Bizia da, bitzita dario: horrexegatik da guztiz sinesgarria ere. Zezenak, dultzaineroak, jotak, txintxileroak, ferianteak, kinkileroak. Musi- ka, lagunartea, giro alaia.

Mundua lasai dago.

Handik hamar egunetara, ordea, militarrek altxatzen dira han-hemen, eta Sebastianek gerra hasi berria eta egun batzuk

lehenago Iruñean entzundako tiroak lotzen ditu. Esaten ez dute ba Lehen Mundu Gerrak ustekabeen harrapatu zituela guztiak? Halatsu 36ko Gerrak ere gure Salaberria. Eta beste hainbat gazte, batera eta bestera eramanak, zoriaren esanera.

BARRENDIK, KANPOTIK. Salaberriak telegrafikoki ematen digu gerraren hasiera: “Donostian lehendabizi militarrek altxatu ziren. Guk Azken Portutik entzuten genituen ederki Loiolako kuarteletan egiten ziren tiroteo beldurgarriak, militarrek barrendik eta gorriak kanpotik”. Hitz batek, *beldurgarria* izenlagunak, ukitu subjektiboa ematen dio kontakizunari: karteristen bila ibiliko ziren gardien tiro haiek, orain tiroteo beldurgarria bilakatu dira.

Baina begira dezagun zorrotzago eta erreparatu Salaberriak naturaltasun handiz dioskunari: “militarrak barrutik, gorriak kanpotik” ari dira. Barrutik, kanpotik. Idazlea ez da ohartu, seguru nago, esaldiaren azaleko egituraketak gordetzen duen benetako mamiaz: lehendabizi militarrek altxatu direla esan eta gero, altxatu diren militarrek ordenamenduaren barrutik ari direla diosku –kuarteletik, beren egoitza naturaletik– eta gorriak kanpotik, legearen kontrako bandatik. Esaldiaren arabera, militarrek defentsan ari dira, gorriak erasoan.

Gerrarekin batera, Francoren propaganda ere laster hasi da bidea egiten.

Salaberria behartu egin dute gerrara, eta soldadu berriak ez du bere eginkizunaren zentzu historikorik, bere jardunaren epikotasunik, sentimendu aberkoi bereizirik. Laster, gerrak berak txertatuko dizkio, suz txertatu ere lubaki batetik bestera dabilen bitartean, zentzu historikoarenganako bizipen erreal momentukoa: historiak berekin daukan epikotasun gaiztoenaren biktima da Salaberria, gerrarena, eta gudu-zelaietan ikusten ari dena da kolore bateko eta besteko aberkoitasunak odola duela zerga.

KONTRARIOAK. Kontrarioak dira Salaberriak trintxeratik ikusten dituen gurlariak, *kontrario* da behin eta berriro darabilen hitza aurrez aurre dauzkan eta tiroka ari zaizkion soldaduak izendatzeko. Baina *kontrario* dioenean, Salaberria zer esaten ari da zehazki? Gaztetako borroketan ere kontrarioak izaten zituen indarrak frogatzeko lehiakide: "Ilgandea etortzeko pozez egoten zen, [...] beste kontrario batekin bere indarrak probatzeko". Ez du sekula *etsai* erabiltzen. Ezta *arerio* ere. Ezagutzen dituen hitz arruntak dira, *etsai* batez ere. Baina trintxeraren beste aldean anaia dauka, Kaximiro, gudariekin. Kontrarioa da. Zirkunstantziek kontrario egin dute. Baina anaia du. Eta ez da etsai bat.

Oharkabean edo ohartuta, *kontrario* dioenean Salaberria esaten ari da anaien arteko gerra batean dabilela.

OBSESIOA ETA KULPA. Gerra guztian Sebastianek obsesio bakarra du: bere tiroek ez dezatela Kaximiro jo, ez dezatela anaia hil. Obsesio horren arabera laburbil daiteke liburu osoa, izenburutik hasita. Eta kontrarioen bat ikusten badu lurrean eta hauspez, buelta ematen dio gorpuari anaia ote den ikusteko.

"–Horretxek gure Kaximiroren antza badik! Bera ote duk?"

Eta ikusirik ez dela Kaximiro, beste hildako bati ematen dio buelta. Eta beste bati.

"Horrelaxe, makina bat hildakori buelta eman nien. Gero jakin nuenez, gure anaia ere horrelaxe ibili omen zen, pentsaturik gu ere soldadu izango ginela noski beste aldetik".

Salaberriaren obsesioak Jose de Artetxek *El abrazo de los muertos* egunkarian kontatzen duena ekartzen du gogora: Artetxek ez omen zuen inor hil nahi eta airera botatzen omen zituen tiroak. Hark ere anaien bat hiltzeko beldurra du, zentzu metaforikoan badarik ere. Baina bada Artetxeren jarreran –eta testuan zehar– barneko har gaixoren bat, zerikusirik ez duena Salaberriaren naturaltasunarekin, eta da kulpa. Kulpa morala,

erlijioak eragiten dion zama. Biak dira pertsona erlijiosoak, baina Salaberriaren erlijioa ia arnasa hartzea bezain naturala den bitartean, Artetxerena integrismoak zamatua da, kontzientziaren pisuak estutua eta oinazetua. "Politika gorrotoaren eskola da", dio Artetxek bere egunkarian. Baina bera politikan ibilia da, eta gerra Francoren aldekoekin egiten du, esturaren esturaz, ordu arte bere alderdikoak izandako jeltzaleen kontra.

FAMILIAREN HARIAK. Salaberriatarren familia ugaria zen eta baita pobrea ere. Ez ziren etxe baten jabe, eta sarri aldatu behar izan zuten etxez; gurasoek ez zuten seme-alaba ugarien etorkizuna ziurtatzeko gaitasunik, eta haietako bakoitzak laster egin behar izan zuen bere bizibidearen erantzule, morroi gisa edo herriko lanen batean, gurasorik gabe gelditu zirenean ia umetan. Baina salaberriatarrek, arbola batera harria botatakoan bezala sakabanutu behar izan bazuten ere, familiaren ardatzari eutsi zioten. Horren erakusgarria da Sebastianek daukan beldur etengabea bere balaren batek anaia hilko ote duen, hari horretatik jakingo dugu Kaximirok ere kezka bera izan duela gerrak iraun duen bitartean, horrela ezagutuko dugu nobelaren giltza (*gidoilariak plot point* deitzen dioten trama bateko puntu gorena, eta nik hemen deskubrituko ez dudana), modu bikainean iradokitzen zaiguna tituluan: nobelako bi pertsonaiak ageri dira bertan (*Neronek*, nik, Kaximirok; *nizkin*, hiri, Sebastian); *tirako* aditzak gerra dakar gogora; izenburuaren formulazio osoak *neronek tirako nizkin*– airean uzten du narratzaileak bihotz barruan daukan beldurra, anaia tiroz hiltzeko aukera.

Gerra batek, gertakari tragiko kolektiboa izanagatik ere, ez du erantzukizun pertsonala abolitzen.

KONTAKIZUN XUME BATEN BI PARTEAK. *Neronek tirako nizkin* Salaberriaren jaiotzatik gerra bukatu bitarteko bizipenen kontaki-

zuna da, eta bi partetan banatutako nobela gisa irakur daiteke. Lehen parteak, gerra hasi bitartekoak, protagonistaren familiari buruzko gorabeherak eta gaztetxo baten lehen esperientziak kontatzen ditu, eta bigarren partearen –nobelaren nukleoaren– atari gisa ere funtzionatzen du.

Bi parte, baina baita bi kontakizun-tonu ere. Lehendabizikoa, zalantzarik gabeko kontakizun bat da, narratzailea seguru dago esku artean dauzkan materialekin, seguru dago baita Albertori eskaintzen dizkionak bezalako pasartetxo konprometituekin ere. Bigarren partetik aurrera, ordea, gerrari eskaintzen dizkion orrietan, narratzaileak askotan egiten du zalantza, badirudi ez dituela gauzak ondo gogoratzen, beldur dela gertatutakoak ez ote dituen zehatz jasoko. Bego adibide bat –irakurleak beste asko topatuko ditu– diodanaren lekuko:

“Uste dut handik Otxandiora joan ginela. Hemen sartu ginenean, tristura ematen zuen. Bazirudien herri honek ez zuela bere bizilagunik. Bakardadean bezala aurkitzen zen, oso jende gutxirekin behintzat. Nonbait bertako bizilagun gehienak Bilbo aldera joanak ziren.”

Uste dut... Bazirudien... Bakardadean bezala... Behintzat... nonbait...

Zentsura klase asko daude, beldurra ere modu askotara manifestatzen da.

KONTAKIZUNA ETA HIZKERA “arin eta biziak” ditu, Koldo Mitxelenenaren hitzekin esanda, eta liburuaren bertuterik handiena, ahozkotasanaren jariora ematen jakin izana kontagaiak idatziz jartzetakoan. Liburua altxor txiki bat da ahozko baliabideak idatzizko testu batean nola txerta litezkeen aztertu, ikasi eta imitatu nahi duenarentzat. Salaberriaren belarriari ez zaizkio nagusitu idatziak berekin dakartzan adimenaren ibilera pausatua, logikaren pisua, ordenamenduaren koherentzia, hausnarraren tonua.

Txirrita ezagutu zuen, bertsoren bat edo beste atera zion, hitz-asperturen bat edo beste egina zen bertsolariarekin, geratuko zitzaion zerbait.

Koska da: liburua irakurri nuen lehen aldian –hamazazpi bat urte izango nituen nik orduan– etxeko euskararekin egin nuen topo. Lehendabiziko aldiz. Ez nuen etxeko berorik topatzen ordu arte euskaraz irakurrita neuzkan liburuetan: batzuk garbizaletasunez zipriztinduak, eta beste batzuk, berriz, garo-usainak markatuak, urrutikoak egiten zitzaizkidan edo idealizatuak, lehorrak, kasik arrotzak.

Baina ez zen hizkeraren kontua bakarrik: Salaberriak gerra baten berri ematen zidan, etxeko pareten artean ere nekez entzuten nituen tragedia baten oihartzunak ekarri zizkidan irakurketak.

“Jainkoak ez dezala ni bizi naizen arte gehiago gerrarik sortu, eta gero ere ez nire partetik!”.

Gerraren kontrako fabula moral bat da Salaberriarena, bere xumean. Ez da hain harrigarri ere Salaberriaren fabula hark hamazazpi bat urte zituen gazte sentimental hura erakarri izana.

ANJEL LERTXUNDI

ZENBAIT OHAR

Honako hau da *Neronek tirako nizkin* eleberriaren hirugarren argitalpena. Aurreko biak 1964an eta 1994an plazaratu zituen Antonio Zavalak, Auspoa bilduman, 38 zenbakiaz.

Bigarren argitalpena prestatzerakoan, aldaketa txiki batzuk egin zizkion Zavalak; batik bat, ortografia zertxobait egokituz, betiere Auspoan erabili ohi zituen irizpideen arabera. Hori bai, erabat errespetatu zituen lehen argitalpeneko sintaxia, puntuazioa eta lexikoa. Gainera, hitzaurre berri bat ere egion zion, lehengoari bigarren zati bat erantsiz.

Gaur, eskueran ditugu eleberriaren beste hiru bertsio ere, Koldo Mitxelena kulturunean, Antonio Zavalaren artxibo edo funtsean. Sebastian Salaberriaren eskuizkribua da lehenengoa, eta Zavalak berak makinaz idatziak beste biak.

Hirugarren argitalpen honetan, euskara batuaren eredura ekarri dugu eleberria, batez ere irakurle gazteek eskurago izan dezaten euskal literaturaren klasiko hau.

Bertsioa moldatzerakoan, aurreko bi argitalpenak izan ditugu oinarri. Koldo Mitxelenako hiru lehen bertsioak ere baliagarri izan zaizkigu lauzpabost puntu zalantzazko argitzeko. Euskaltzaindiaren arauak eta irizpideak kontuan hartuz jokatu dugu, betiere erabat errespetatuz jatorrizkoaren sintaxia eta ia erabat puntuazioa eta lexikoa.

Dena den, zeuden zeudenean utzi ditugu eleberriko sei bertsoak. Hala, lagunarteko eta gipuzkeraren kutsu guztia dute berekin. Eta kutsu bikoitz hori duela geratzen da eleberriaren izenburua bera ere, azken bertsoaren azken lerroa jasoz. Izan ere, *Neronek tirako nizkin* ez baina, *Neronek tira(tu)ko nizkian* izango litzateke euskara batura ekarrita.

Kutsu bikoitz hori gorde nahi izan dugu lexikoan ere. Horregatik aldatu dugu ahalik eta gutxien. Artifizialgia ere geratu-ko litzateke, bestela. Esaterako, *boxeolari*, *metrailadore*, *botikari*, *kapitain* eta *irradi* ipiniz moldatu ditugu jatorrizko *boxeadore*, *ametralladora*, *botikario*, *kapitan* eta *radio*. Baina zeuden zeudenean utzi ditugu, besteak beste, *mueble*, *transportista*, *karretilla* eta *kamilla*; ez ditugu ordezkatu horien ordain *altzari*, *garraiolari*, *eskorga* eta *ohe-eskuz*. Era berean, zeuden zeudenean utzi ditugu, zalantzak zalantza, *sorteo*, *tabloi*, *tuberia*, *meriendatu*, *karterista*, *feriante*, *kinkillero*, *tiroteo*, *jornada*, *taxista*, *petril*, *pasamontaña*, *guante*, *eritu*, *kartutxera*, *prisionero*...; eta baita *kontseju*, *kaja*, *baju*, *koneju*, *katalejo* eta *keja*... ere.

Antzeko zalantzak izan ditugu herritarren izenekin ere. Azkenean, jatorrizko *kazereño*, *asturiano* eta *ruso* utzi ditugu. *Gai-legorekin* ez zegoen arazorik.

Hala ere, gaurko forma eta grafietara ekarri ditugu hiri, herri eta lurralde-izenak: *Iruñea*, *Bilbo*, *Gasteiz*, *Madril*; *Hernani*, *Mutriku*, *Legutio*, *Otxandio*, *Igorre*, *Tutera*; *Nafarroa*, *Frantzia*, *Espainia*; baita Donostiako *Herrera* eta Iruñeko *Arrotxapea* auzo-izenak eta *Gorbeia* mendiarena ere.

Era berean, gaurko forma eta grafietara ekarri ditugu *ur oxigenatua* (jatorrizkoan, *osijenada ura*) eta *iodo-tintura* (*tintura-iodo*).

Gipuzkera-kutsua gordetzearen alde egin dugu beste kasu batean ere. Sarri samar darabiltza egileak *iritzi* aditzaren *deritzaio*, *zeritzaion* eta horrelakoak. Zeuden zeudenean utzi ditugu. *Jardun* aditza *izan* laguntzailearekin erabiltzen du egileak beti, kasu batean izan ezik. Egilearen erabilera errespetatu dugu. Berdin egin dugu *pasa* / *pasatu* aditz-forma bikoitzarekin ere.

Hilabete-izenak, zeuden zeudenean utzi ditugu, ortografia egokituta: *agorrila* (*abuztua*), *garagarrila* (*ekaina*).

Bihurkarietan, oro har euskara batuan ipini ditugu idazleak markatutakoak: *geure* (*geren, geuren*). Forma indartuak, berriz, zeuden zeudenean utzi ditugu: *neroni, neronek* eta *herorrek* (*erorrek*).

Zalantza gehiago izan dugu bustidurarekin. Aurreko argitalpenetan, beti bustiduraz dator zenbait hitz jakin: *ixilik, xamar...* Oraingo honetan, adierazgarrienak soilik utzi ditugu markatuta. Salaberriaren jokabideak berak lagundu digu behin baino gehiagotan: *kozkor / koxkor, gozo / goxo, zuri / txuri, puska / puxka, luze / luxe, zabal / xabal...*

Salaberriak sarri samar darabil *gizarajo* adjektiboa; eta bina aldiz *gixarajoa* (bustiduraz), *gizajo, gaixo* (animaliei dagokiela) eta *gajo*. Zeuden zeudenean utzi ditugu denak.

Hitz elkartuetan, marratxoa erabili ohi zuen Zavalak, eta halaxe egin dugu geuk ere, irizpideak zertxobait egokituz.

Ahalik eta gehien murriztu dugu hitz etzanaren erabilera.

Dena den, irakurleak beti du aukera jatorrizko bertsoiak kontsultatzeko. Zavalaren azkenekoa Euskaltzaindiaren webgunean ere badu –www.euskaltzaindia.eus–, Auspoari eskainitako tokian: “Hizkuntza baliabideak: Literatura”. Gure hau eta Zavalaren azken bertso hori parekatuz atzeman dezake xeheago zer aldaketa egin ditugun.

Bestalde, osorik eta batere aldaketarik gabe kokatu dugu hemen, ohar hauen ondoren, Zavalak berak bigarren argitalpenari egindako hitzaurrea. Idatzi horrek egoki asko adierazten du zer-nolako tokia eta garrantzia izan zuen Sebastian Salaberriaren eleberriak Auspoako argitalpenen artean. Benetako mugarririk izan zen, aitzindari eta bide-erakusle. Horrekin dena esana dago.

Era berean, Anjel Lertxundiren atarikoak ipini dugu hasieran. Oso gutxik ezagutzen du euskal literatura hain barrutik, eta aha-

lik sarrerarik egokiena opa nahi izan diogu Sebastian Salaberria eta Antonio Zavalaren lan eder honi.

Erabakiak erabaki –erabakia beti da ebaki–, asmatuko ahal genuen Antonio Zavalak urratutako bidean aurrera egiten, hark bezain zuhur eta ausart ez bada ere.

PELLO ESNAL

ITZAURREA

(Bigarren argitalpenari, 1994an)

Gaur arte Sebastian Salaberria bertso-jartzalle bezela ezagutzen genduan.

1963-garren urtean, Ernani-n, Txirritaren omenaldian, lenengo bertso-paper-txapelketako sariak banatu ziran. Bigarren-go Salaberria-k jaso zuan Ama Euskerari jarritako bertsoekin. Mikrofonora alderatu ta bertso polit bat kantatu zuan, eskerrak emanaz.

Orain illebeta pare bat, berriz, bigarren bertso-paper-txapelketan ere bigarren saria irabazi zuan, Donostia-ko Manuel Matxain eta Itxasondo-ko Jesus Lete-rekin batera.

Ontaz gañera, badu beste zenbait bertso inprentatu, eta asko eta asko paperean jarririk.

Orain, berriz, *Agora*-ren nobela-saria irabazi du, bere lenengo nobelarekin beste seiri eraginda.

Oso nobela errikoia da, asieratik bukaeraraño euskal errikoitasun garbi-ederrenez jantzia, bai sentimentuz eta bai izkeraz ere.

Gure erriko gizonak olako kontaera asko dute, eta aiek berrituaz denbora-pasa egoten dira askotan lagun-artean eta etxeko sukaldean. Gaia, Salaberria-ri bezela, bizitzak erakutsi die, eta kontatzeko abildade aparte dute askok, Jaungoikoak doai ori emanda.

Oraindañokoan, paperera gabe aotik aora ibilli izan dira kontaera oiek. Salaberria-k, ordea, berea paperera paseaz, euskal literaturan bide berri bat azaldu du.

Bejondaiola, beraz, eta Jaunari nai dakiola, Salaberria-k urratutako bidetik beste asko etortzea aren ondoren.

* * *

Oneraiño 1964 urtean, *Neronek tirako nizkin* liburu onen leenengo argitalpenerako idatzi genduan itzaurrean, esaten genituanak.

Gu beintzat ez gera geure liburuak, bein argitaratu ezkeru, eskuetan artu eta ostera irakur zaleak.

Onekin ere berdin. Urteetan eduki degu apalean, iriki ere egin gabe. Orregatik, itzaurre ortan esanak zearo aaztuta genituan. Eta orain, urteen buruan berritzearekin, arritu egin gaitu zerbait arkitu degu. Bukaeran dioguna bera: Salaberriak bere kontaera onekin bide berria irikia zuala alegia, eta orrelako beste liburu asko atzetik etorriko al ziran.

Gertatu ere ala egin baita. Onen ondoren era ontako liburu-zerrenda luzea agertu da, dantza-soka batean bezela: Zubillaga: *Lasdasketa*; Uztapide: *Lengo egunak gogoan*; Erauskin: *Aien garaia*; Arrizabalo: *Baso-mutillak*; Ataño: [*Txantxangorri kantaria*], *Txori*, *Espetxeko negarrak*, *Zigorpean*, *Eltzagorra*, *Odol-kutsua*, *Etorkizuna*, *Maitasunaren lanak*, *Maite itzazute etsaiak*, *Aztia usnari*, *Azkeneko saskigillea*, *Nora goaz?*; Irastusta: *Nork bere bidea*; Alkain: *Gerrateko ibillerak*; Mari Treku: *Mattin, nere gizona*; Patxi Lazkano: *Tiro artean bertsoan*; Txomin Garmendia: *Bordaberriko gozo-mikatzak* eta *Beltzak* eta *zuriak mendian ardiak*; Etchebarne: *Erramun harginaren oroitzenak*; Etxaburu: *Neure lau urteko ibillerak*; Azpiroz: *Arbol zarraren kimuak* eta *Gogoz kontrako pausoak*; Ibai-ertz: *Orrela ziran gauzak*; Barandiaran: *Zartu gabe ezin bizi*; Beñat Karrika: *Armendaritze haur begiez*; Pujana: *Deabruak ostutako urteak*; Lertxundi: *Igaroari begira*.

Eta baditeke bat edo beste aaztuta utzia izatea¹.

¹ Hain zuzen, libururik goraiatuenetako bat ahaztu zitzaion Zavalari: Atañoaren *Txantxangorri kantaria*. Guk kortxete artean ipini dugu.

Arrazoi osoa genduan, beraz, orain ia ogei ta amar urte ori papereratu genduanean. Esan bearrrik ez dago, noski, orduan asmatu izana gaur guretzat arrokeria ez dala, poz aundi bat baizik.

ANTONIO ZAVALA

Neronek
tirako nizkin

Ni mundu honetara sortu nintzen abenduaren 26an, 1915. urtean, gaueko hamabietan, Oiartzungo partean dagoen Elbitxuri izena duen baserrian.

Baserri hau kaletik oso urruti dago, Oiartzungo partean jaio nintzela juxtu-juxtu esateko moduan, baina nola lur hartan sortu nintzen, bertara eraman behar bataiatzera.

Nire amandre izeba Antoni zenari hamaika bider entzun izan diot gauza hau: ni ez nintzen izugarria izango, baina txandan eramaten omen ninduten, lau edo bost laguneren artean. Eguraldia oso txarra omen zegoen, eta beldurgarrizko lokatzetan barrena joan omen ginen; bideak noski kristaua hutsik ere ibili ezin zen modukoak.

Iritsi omen ginen noizbait elizara, eta bikario jaunak, ni bataiatzen ari zela, makina bat bider esan omen zuen:

–Gixarajoa! Eguraldi ederrarekin etorri zara!

Elbitxuri, Erreteriatik kanposantuko kamioan gora Astigarragako bentetara goazela, herritik hiru bat kilometrora eta kamiotik ezkerretara lauhun bat metrora dago. Etxe kaxkar bat zen, bi bizitzakoa, oso zaharra, mendi-hegal ospel batean egina, eguzkiak gutxi jotzen zuela. Terreno gutxi, txarrak, arloteak eta itsasaldetik zituen.

Etxe inguruan ba omen zituen bost edo sei sagar-arbola, eta gainerako fruta oso gutxi; belaze eta sagasti kaxkarrak; txararik edo basorik ere ez; erreka edo urik ere ez zuen bere terrenean, eta Paistire izeneko baserriaren erreka edo iturritik hartzen omen genuen behar zen ura.

Etxe honen jabea emakume xahar bat omen zen. Bera bakarrik bizitzen zen bizitza batean, eta beste bizitzan berriz gure

familia. Emakume zahar hark urte asko nola baitzituen, Oiarzungo Miserikordiarra eraman omen zuten; eta gero, Elbitxuriko bera bizi zen alderdia erori egin zen, eta gu ere orduan aldatu ginen Errenteriako Sagasti baserrira. Gure anaia zaharragoek esaten didatenez, Elbitxuritik Sagastira aldatu ginenean, nik zor-tziren bat hilabete omen nituen.

Sagasti baserriak bazuen etxetik aparte mendi bat, zakarra ebakitzen genuena. Praiskularre esaten genion. Hara joatean ikusten genuen Elbitxuri baserria, eta gure anaiek hala esaten zidaten:

–Hara hor Elbitxuri, hire jaiotetxea!

Eta nik:

–Hor jaio al nintzen ni?

–Bai; hortxe jaio hintzen hi.

Eta ez zait gogoratzen geroztik etxe hartara inguratu naitzenik.

II

Errenteriatik Irun aldera goazela, herritik kilometro bat bezala dago La Fandería izeneko pentsu-fabrika; eta hemendik kilometro eta erdi bezala, eskuin aldera, Astigarragako bentetara hartuta, dago Sagasti baserria.

Etxe handi samarra zen, leku zelaian egina, eguzkiak eta haize sanoak ederki maitatzen dutela.

Terrenoa ere dezente zuen, gehienak zelai samarrak, malda edo aldapatsuak ere bai. Garai hartan sagasti ederrak eta handiak zituen; artasoro, belaze eta zakardegiak ere onak; lau edo bost behi, hiru edo lau txahal, idi pareta, astoa, txerria eta oilo mordo bat ere bai. Etxe inguruan bazituen intxaur-arbola, gerezi, udare, melokotoi eta aranak.

Ate ondoan txabolatxo bat, eta bertan bizitzen zen txakur txiki bat, Potxo izena zuena, kolorez zuri-beltza. Bere hortz zuriak erakutsi zizkien makina bat ijito muturbeltzi eta eskean zebiltzan aitona zahar gizajoei. Eskerrak katean lotuta egoten zela; bestela, komeria ederrak ikusteko zeuden etxe inguru hartako ijitoak eta eskale zaharrak.

Baina azkenean erremate txarra eraman zuen gure txakur atezain hark. Sagasti baserritik atera ginenean, bazituen hamahiru edo hamalau urte; eta, kaleko etxean bizi ginela, marmol-fabrikako zakur handi bat etortzen zen berarekin jostatzerara, eta gau batez gure anaia Kaximiro zenak pala batekin tira zion kolpe zakur handiari, eta gure Potxo gizajoa jo zuen buruaren erdian, eta ebaki luze bat egin zion. Gure anaia zaharrenak, Ferminek, berehala egin zion sendatzeko ahalegina, ur oxigenatuz garbi-garbi eginda eta gero iodo-tinturaz igurtzi eta zapi batekin lotuta; baina handik egun gutxira hil zen, eta pena ederra eman zigun gure Potxo gaixoak.

Etzetik hirurehun metrora bezala zegoen erreka, arropak garbitzeko eta ganaduak edateko; eta erreka honen inguruan amabirjina iturri bat zegoen, oso ur ederra zuena, eta hemendik hartzen genuen etxerako behar zena.

Amabirjina iturri hauek ez dira nonahi izaten, leku-lekutan baizik, eta badute gauza aparteko bat, beste iturriek ez dutena: nahiz eta amabirjina iturri hau erreka baten inguruan egon, ez du zerikusirik erreka honekin; erreka baino goragotik mendi-hegaletik ateratzen da ura; beste leku batzuetan, berriz, errekatik bostehun metrora berdin egon daiteke iturri hau. Gehienetan leku menditsu baten beheko txoko inguruetan izan ohi dira. Nahiz izan urte euritsua eta nahiz lehortea, iturri hauetatik urte guztian ur berdintsua ateratzen da. Iruditzen da neguan udan baino epelago ote dagoen, baina hau izaten da gainerako urak neguan udan baino askozaz hotzago daudelako.

Gure familian izan gara zortzi anaia eta bi arreba. Arreba horietako bat jaio eta berehala hil omen zen, eta halaxe Sagastin bederatzi senide bizitu ginen gurasoekin: Fermin, Saturnino, Kaximiro, Joxe, Antonio, Rikardo, Ramoni, ni eta Polikarpo. Gaurko egunean Kaximiro ez beste denak bizi gara.

Gure Saturnino, soldaduskako urteak nola baitzituen, sortean Afrikarako tokatua izan behar zuen; baina gerra bizia omen zebilen orduan Afrikan, eta berari hauxe gogoratu omen zitzaion:

–Ez naute uste bezain erraz harrapatuko hango tiroek!

Eta bere asmoa Erretereriako lagun bati bakarrik esan omen zion.

Halaxe, atera omen zen goiz batean etzetik. Irunen ba omen zuen familia ezagun bat, eta haien etxera joan omen zen bazkaltzera. Han galdetu omen zioten ea zer zebilen, eta erantzun omen zien laster soldadu joan behar zuela eta bisita bat egitera joan zela.

Baina bazkaldu zuenean, handik atera eta segituan mendiz jo omen zuen Frantziako muga aldera. Bero ikaragarria omen zen eta pasa omen zituen egarri ederrak. Lehendik ba omen zekien nontsu egoten ziren karabineroak, eta ba omen zihoan isil-isilik.

Nabaritu omen zuen hizketa-soinua; iratze handia omen zegoen eta haren tartetik jarri omen zen begira. Arbola baten azpian, itzalean, han ari omen ziren bi karabinero kartetan jokoan, eta isil-isilik iratze tartean barrena pasa omen zen inguru hartan. Gero ibaia pasa eta joan omen zen mugaz harantz Frantzia aldera, eta han baserri batean jarri omen zen morroi. Gaur ere Frantzian bizi da baserri batean, hamahiru seme-alaba –hamar bizirik– izanda.

Aiuntamentuan enplegatzen zen gizon bat Alberto izena zuena, eta nire anaiei eta soldadu joan behar zuten mutil guztiei honek bidaltzen zien etxeetara papera, eta nik ere etxean entzungo nuen noski nola esaten zuten:

–Albertok bidali zioke halako etxetako mutilari soldadu joateko papera.

Ni mutil koxkorra nintzen, eta gizon hori ezagutzen nuen eta gorroto handia nion. Oraindik ere oroitzen naiz nola esaten nuen:

–Ez ote da hilko Alberto, ni soldadu joaterako?

Badira berrogei eta gehiago urte nik gauza hori esaten nuela, eta oraindik ere bizi dela uste dut Alberto. Hil denik ez dut behintzat entzun. Ez zuen asko balio izan –hala hobea ere eta nire maldizioak. Uste nuen Alberto hilda besteren bat izango ez zela soldaduskako paperak bidaltzeko; berriz ere horrelako paperak etxeetara bidaltzeko izango dira bai gizonak, ezinean dabilenari laguntzeko baino seguruago.

Gure aita arotza zen, eta, familia handia eta denak gazteak nola baikinena, baserrian gure amak eta bi edo hiru anaia zaharrenek egiten zuten lana, eta aita irabazira joaten zen.

Erretereriako Papeleran egiten zuen lana, eta egun batez aldamiotik behera erori zen, eta behean tabloi bat zegoen, ezten-ga handi bat muturrez gora zuela, eta huraxe sartu zuen izterretik hezurra jotzeraino.

Makina bat mediku eta botika ibili zen gure etxean, bai dirua galanki gastatu ere; baina denak alferrik izan ziren. Noiz-nahi etortzen ziren beragana mediku bat eta inoiz bi ere bai, eta hauei beren hartzekoa ordaintzeko ukuilutik atera behar izaten zen txahal bat edo behi bat, eta pixkanaka horrelaxe joan ziren gure ganadu gehienak, medikuaren bisitak eta botikak ordaintzeko.

Baserrira errentan ibiltzen genuen, eta, gure aitak lau bat urte ohean gaixo zeramazkiela, nagusiak baserrira saltzea pentsatu zuen. Garai hartan ez zen orain bezalako legerik, eta etxeguztariak nahi zuena egiten zuen bere baserriarekin; eta egun batez etorri eta gure gurasoei esan zien:

–Baserrira hau saltzea pentsatzen dut, eta lehenbailehen atera beharko duzue.

Eta gure amak erantzun zion:

–Baina, gizona! Ez al duzu ikusten nire senarra nola dagoen? Eta familia honekin, denak saski batean sartzeko modukoak, esate baterako, nora joan behar dut nik?

–Nahi duzun tokira zoaz; baina nik haxe bakarrik esaten dizut: libratzeko azkar nire baserrira.

Halaxe, saldu zion Pello izeneko gizon handi bati, nafarra berez; eta Pello hau, baserrira erosi zuenean, etorri zen gure gurasoengana eta hala esan zien:

–Begera: baserrira hau nik erosi dut eta hemendik atera egin beharko duzue.



Eta gure amak adierazi zizkion familiako gorabeherak, baina baserria saldu zuenaren moduko bihotza zuen erosi zuenak ere.

–Etxekoandre, obran hasi behar dut etxe honetan, eta libratu iezadazue azkar.

Eta gure amak erantzun zion:

–Obran hasi behar baduzu, hasi zaitez bazter batetik, eta ni saiatuko naiz beste etxe bat bilatzen.

–Ez dago gaizki esana, etxekoandre; baina etxea puxka bat altxatu egin nahi dut eta teilatua kendu nahi diot.

–Tira, ba; hasi zaitez, ba, izkina horretatik.

–Ez; zure senarra dagoen gela horren paretik hasi behar dugu teila kentzen.

Eta halaxe gelditu zen gure ama, bere begiek bi iturri ziruditelako, negar galanki eginez.

III

Errenteriako herritik zortziehun bat metrora, Papelera Españolaren atzealdetik, trenbidearen ondoan, zegoen etxe bat bi bitzakoa, toki ospel samarrean, mendi baten beheko sakonean, eguzkiak gutxi jotzen zuela.

Bizitza horietan bizi ziren bi familia, eta etxe honen ondoan hamar bat metrora zegoen beste etxe zahar handi bat, aspaldian hutsik zegoena, eta gure ama zenak etxe hartara joateko modua egin zuen, gaixo zeukan bere senarra eta familiarekin.

Etxe hauek, nahiz eta kaletik aparte samar egon, ez zuten terrenorik. Etxe lehorrak deritzaienak ziren.

Etxeko mueble zahar, erreminta eta gainerako gauzak eramaten, auzoko baserritarrak, gure aitaren lagunak, ibili ziren idiak eta gurdiarekin: Palaziyo baserriko Jose Inazio eta Gaztaño baserriko Periko. Joan-etorri franko egin zuten, gauzarik gutxiena den baserrian ere tresna asko izaten baita: gurdi eta karro zaharrak, goldea, area, segak, aitzurrak, kupelak, barrikak eta nik ahal dakit zenbat tresna zahar. Beharbada balio handikoak ez, baina baserrian zerbitzu ederra egiten dutenak behintzat.

Behi bat ere eraman genuen, Arrio izena zuena, etxerako lain esne izatearren.

Gure aita zena bost urte luzean ohean gaixo eta gehienez triste samar egon bazen ere, ez genuen, Papeleraren ondoko etxe zahar hartara aldatu ginenean, alaiago ikusten.

Ni artean mutil koxkorra nintzen, baina igartzen nion gure aita tristatzen ari zela, eta ez ziola onik egin baserritik kalera aldatzeak.

Neroni ere triste aurkitzen nintzen kale aldean, baserriko bizimodua gogoratuta. Oraindik ere oroitzen naiz gure ama zenak

nola bidaltzen gintuen batzuk baratzerara eta besteak ganbarara esanez:

–Zuek ekarri azak eta porruak; perrexil puska bat ere bai; eta zuk ekarri ganbaratik babarruna, tipulak eta baratzuriak; sagar batzuk ere ekarri erretzeko.

Aza-babarrunekin eltzekari ederra egosten zuen; urdai pusketak bat ere sartzen zion, eta hark ere asko gozaten zuen. Ez zait ahaztuko, bizi naizen arte, hamaika eta erdiak inguru horretan nola ematen zigun ogi puska bana eltzean bustita. Hura bai zela gauza gozoa!

Sagardo ederra ere egoten zen kupelean, eta egarritzean txarroa hartu eta gustura joaten ginen eske.

Kalean, berriz, baratzerara eta ganbarara joaterik ez; gutxiago, berriz, txarroarekin kupelera egarritzean. Dena erosi egin behar. Hori da gauza tristea! Alferrik da; osasuna izanez gero, gu bezalakoarentzat baserria da onena bizitzeko.

Gure aitak igarri zion bere buruari baserri-jabeak heriotz bidean jarri zuela baserritik bidaltzearekin, eta denbora gutxi barru hilko zela; eta inoiz hots egin eta eramana ez zela gintuen denok bere gelara, eta han jarduten zen guri kontsejuak ematen, esanez bera laster hilko zela noski, eta otoitz egiteko bere alde, zerura joan zedin; amarekin gelditzen ginela eta bere esanak zintzo egiteko. Seme zaharrenari esaten zion gu oraindik gazteak ginela eta guri bidea erakusteko, nondik eta nola ibili behar genuen.

Eta horrelaxe etorri zitzaion heriotza. Azkeneko orduan zentzua galdu zitzaion, eta arnasa larri batzuen ondoren hil zen.

Gero, aita ikusi genuenean kajan sartu eta lau gizonek zermatela, ama berari begira negarrez, eta gu ere bai. Amak esaten zigun:

–Umeak, ez ezazue negarrik egin, aita zeruan dago eta. Baina guk hala ere negar egiten genuen.

Gero ama oso triste gelditu zen horrenbeste umerekin bakarrik. Gure osaba bat, amaren anaia, alargunduta zegoen bere emaztea hilda; eta, nola ez zuen haurrik eta familiarik, hura ere bakardadean triste aurkitzen zen. Eta gure etxera etortzea pentsatu zuen, eta hala etorri zen.

Antonio zeritzaion eta urte askoan Erretereriako Lanera fabrikari aritu zen lanean.

Oso gizon jatorra zen, eta guretzako ere ogi puska bezain ona. Guk asko maite genuen; berak ere bai gu. Makina bat aldirio egina nago berarekin.

Baina guregana etorri eta handik laster gaixotu egin zen. Uste dut urak zituela gorputzean, eta hartatik hila izan behar zuen, oso denbora gutxi ohean pasata. Gure aita hil eta handik urtebete ingurura hil zen, berrogei eta hamaseiren bat urte zituela. Zeruan gerta dadila.

Gure ama geroago eta tristeago jarri zen, lehenago senarra eta gero bere anaia hil zitzaizkionean, eta bera ere gaixotu egin zen. Haren gaixotasunik handienak nahigabea eta tristura izan ziren.

Garai hartan ni Gabiria baserrira morroi joana nintzen, eta tarteka joaten nintzen bisitatzerara.

Gure anaia zaharragoek esaten dutenez, gaixotu zenean berehala ekarri omen zuten medikua. Honek esan omen zuen ez zuela hain gaizki aurkitzen, eta berriz ere etorriko zela handik egun batzuetara.

Etorri omen zen, berriz ere begiratu omen zion ondo, eta ez omen zion gauza handirik aurkitzen. Hala, bere errezeta egin eta joan omen zen, "hurrena arte" esanez.

Baina geroago eta motelago gure ama hori; eta, gutxiena pentsatzen nuen garaian, senideetakoren bat Gabiriara ama hil zela niri abisatzerara joan zen. Han etorri ginen biok korrika, bide guztian negarrez.

Etxera iritsi ginenean, sartu nintzen amaren gelan eta han zegoen ohean hilda. Hura hala ikusi nuenean eta gainerako senide guztiak ere bere inguruan negarrez, neronek ere gero eta gehiago negar egiten nuen.

Han ari ziren esaten gure anaia zaharragoak eta auzoko beste emakume batzuk jantzi egin behar zela berehala Ama Birjinaren gisan; kaja ere ekarri behar zela segituan.

Egin ziren gauza hauek denak, eta oso ederki jantzita jarri zuten gure ama, kajan sartuta, ohearen gainean; bi kandela piztu zizkioten bere ondoan, eta hala egon zen hurrengo goiza arte.

Gure anaia zaharragoak eta auzoko beste batzuk egon ziren gauean berari laguntzen, beren otoitzak eginez.

Hurrengo goizean etorri ziren Lezotik apaiz bat eta mutil koxkor bat bere gurutzarekin. Apaizak egin zuen bere errezoa gure amaren aurrean, hartu zuten lau gizonek bizkarrean eta han eraman zuten gure ama gaixoa Lezoko kanposantura.

Gure senide batzuk joan ziren bere ondoren, kanposanturaino lagundu eta elizkizunetara, eta gu etxean gelditu ginen, haiek etorri arte.

Auzoko emakume haietako bat gelditu zen gurekin. Hark ere hala esaten zigun:

–Ez ezazue negarrik egin, umeak, ama zeruan dago eta.

Baina hala ere guk negar egiten genuen. Eta Gabirian behikontu nenbilela ere, makina bat aldiz egon nintzen negarrez, gure aita eta ama gogoratuta, pentsaturik ez nituela gehiago ikusiko.

Gu bizi ginen etxea nola baitzegoen Lezoko partean, aita, ama eta osaba Antonio zena Lezoko kanposantuan lur hartuak dira. Gure etxetik bide luzea zegoen kanposanturaino, baina hala ere hildakoak bizkarrez eramaten zituzten. Aspertu ederra

hartzen zuten eramaileek. Gero hamaiketakoa izaten zuten Le-zoko Gure Borda ostatuan: ogia, gazta eta ardoa.

Bi urtebeteren buruan hiru gorputz atera zituzten gure etxe hartatik. Tristura ederra utzi zuten.

Anai-arrebak han gelditu ginen bakar-bakarrik, inoiz esaten den bezala, ez zerurako eta ez lurrerako.

Garai hartan gure arrebak hamar bat urte zituen, eta, nola ez genuen beste emakumerik etxean, guk zerbait ere pentsatu behar, eta elkarren artean erabaki genuen anaia batzuk ostatzu jarri eta lanean hasiko zirela fabrika edo beste lantegiren batean, eta beste anaia batzuk, berriz, morroi joango ginela baserri batzuetara. Eta horixe egin genuen.

Sagastitik ekarritako traste haiek denak saldu egin genituen. Hobeto esateko, erregalatu; balio zuten diruaren erdirik eta laurdenik ere ez baitzen hartu. Guri ere gertatu zitzaigun Txirritak bere bertso batean esaten duena, nagusi batek bere baserriak bidali zuen maizter baten gertaera:

Aziendaz ta lan-erremintaz
bagendaukagun indarra,
orain abekin ere ez degu
oso alderdi ederra;
zazpi baliyo luteken gauzak
bostian eman biarra,
au pentsatzian etortzen zaigu
begiyetara negarra.

Kaleko etxe hartan urte pareren bat pasatu genituen, eta, gure gurasoak hilda handik atera ginenean, berriz ere hutsik gelditu zen. Etxe hauek eta bere inguruko terrenoak Papelera Oarsoren nagusiak erosi zituen, eta etxeak bota, betelanak egin eta gaur terreno hauetan Papelera Oarso dago.

Familiatik sakabanatu ginenean, noiz edo noiz elkarrengana biltzen ginen senideak, igandeetan eta aste erdiko jaietan goizean mezatara joatean edo arratsaldean, eta han jarduten ginen denok hizketan, txoriak baino alaiago, batak besteari geure pasadizoak esaten. Lehenengo elkarri esaten geniona hauxe zen:

–Gure guraso maiteak bizi izan balira, gaur ez genuen horrela ibili beharrik.

Negarrez ere egon izan ginen behin baino gehiagotan, gure aitak eta amak egiten zizkiguten maitasunezko zenbait mesede eta beren muxu gozoak gogoratuta, pentsaturik gehiago ez zigutela emango.

Orain poliki bizi bagara ere, komeria ederrak ikusiak gara gazte-denboran. Jainkoak lagun diezaiola gazterik gurasorik gabe gelditzen den ume gaixoari.

IV

Gabiria baserria nahiz Lezoko partean egon, Errenteriatik gertuago dago: mila eta bostehun metro iparraldera. Terreno menditsu baten gain-gainean dago, toki zelaian egina, eguzkiak eta haizeak ondo jotzen dutela. Entzun izan dudanez, Lezoko baserriarik handiena da.

Papelera Española eta Papelera Oarsoren tartetik dago bertarako bidea, aldapatsua eta neke handikoa garai hartan behintzat.

Baserri hau etxe zahar zabal baju samar bat zen, gaur berritu eta handiagoa eginda dagoen arren.

Etxe honek terreno asko zuen, eta bere inguruan golde-lur asko zituzten zelaiek, artasoro, alpapa eta gainerako labore-gauzak egiten zirenak; eta beste terreno batzuk, berriz, aldapatsuak. Belaze asko eta onak zituen; sagasti onak eta handiak, gehienak eguzki aldetik; gerezi, udare, aran, intxaur eta horrelako fruta ere asko zuen.

Ganadua ere asko edukitzen zuten: behi, txahal, asto, oilo, koneju, uso eta abar. Etxe-atarian han ibiltzen ziren ehiz txakur bi edo hiru, eta beste kate-txakur bat edo bi ere bai, inor kanporik zetorrenean adierazteko.

Etxean behar zen ura, Errenteriako Aiuntamentuaren tuberiatiak hartua zen, erreka urruti samar zuelako.

Baserri honetan bizi ziren senar-emazteak, lau seme eta alaba batekin. Seme zaharrena kanpoan ibiltzen zen lanean, egur-almazen batean txofer kamioi batekin, eta gainerakoak etxean lanean.

Etxeko nagusia gizon begi-txiki antzeko mozkote sendo bat zen, berrogeita hamabost urte zituena; Jose Agirre bere izena.

Serio samarra zen, broma gutxi zuena; oso langilea, beti lanarekin borrokan ibiltzen zena.

Birigarroa zuen bere izengoitia, eta ni ere gaiztoa izan, eta gerezi-denboran arbolara igotzen nintzen eta birigarroaren txistu jotzen nuen, eta gizarajoa haserretu egiten zen, esanez:

–Orain ere niri burlaka ari al haiz, kaskabeltz arraioa?

Mezatarara edo norabait joan behar zuenean, bere janzkera hau izaten zen: alkandora barratu bat, galtza urdinak, bota beltzak eta blusa ere beltza; txapela teilatu gisa jartzen zuen, aurrean muturra luxe-luxea eta bi aldeetara iraulia.

Esan bezala, ganadu asko izaten zen, eta baguenen lana! Makina bat ernegazio pasata nago. Behi-kontu jartzen ninduten askotan eta han ibiltzen nintzen larri, korrika zazpi edo zortzi behiren atzetik, okerrera joan ez zitezen.

Etxean gelditzen ziren beste behi bat edo bi eta zortzi bat txahal, txerri, asto, oilo, koneju eta abar. Haientzat denentzat jatekoa ekartzen izaten genuen lanik asko, eta beste lan franko ere izaten genituen egin beharrak. Arto sail handiak egiten ziren, eta belar eta zakar-metak ere asko egiten genituen.

Komunio handia ere baserri horretan nintzela egin nuen, hamahiru bat urte nituela, eta niri kosta zitzaidan dotrina ikasten! Egunez ez nuen izaten denborarik, eta gauean jardun behar izaten nuen, gainerako lanak egindakoan, besteak ohera joaten zirenean.

Etxe hartako neskak bazituen hogeita lau bat urte. Oso serio zen, eta hark erakusten zidan dotrina. Makina bat kaskarreko hartuta nago, berak emanda. Goizean goiz jaikitzen ginen, eta oso nekaturik egoten nintzen, eguna lanean pasata. Nik lo hartzen nuen nire dotrina eskuetan nuela, eta hark zapla! ma-trailean edo buruan, eta lezioa ikasi arte ez zidan uzten ohera joaten. Ez dut uste nire amak ere hain gogor hartuko ninduenik.

Horrelakoetan gogoratzen da bat zeinen gauza tristea den gazterik guraso gabe gelditzea.

Senideak elkarrekin biltzen ginenean, batez ere gure anaia Kaximiro zenak, nola baitzen gu baino zaharragoa, asko bizkortzen gintuen kontseju onak emanek. Esaten zigun, urteetan aurrera goazen bezala, hasi behar genuela zerbait soldata irabazten, eta gu morroi geunden baserrian ez baziguten bere neurrian soldata ematen, beste baserri batera aldatu beharko genuela, eta baserri askotako nagusiek barre egiten zekitela gurazorik gabe gelditzen den umearen bizkar, esanez: "Hik nire mendean bizi behar duk, nik agintzen diadana eginez".

Eta niri nagusi hark ez zidan behin ere txanpon bat ere ematen. Jai eta aste beti lanean; igandeetan meza entzun eta korrika etxera. Izaten zen zeregina eta beti lanean, Ameriketako artzainen moduan behin ere jairik egin gabe; eta nik banituen hamasei edo hamazazpi bat urte, eta egun batez esan nion ni ez nintzela beti debalde lanean ariko eta zerbait ordaindu beharko zidala.

Eta beti esaten zidan:

–Bai, motel; datorren hil horretatik hasiko gaituk zer edo zer ordaintzen.

Baina, hilabete asko pasa arren, nola ez zidan zentimorik ematen, nik pentsatu nuen etxe hartatik norabait alde egin behar nuela, eta halaxe atera nintzen.

V

Handik Donostiako Antiguako partean dagoen Artola izeneko baserrira joan nintzen morroi. Fundación Goyenecheren inguruan dago; bi bizitzako etxea da. Batean bizi ziren senar-emazteak beren familiarekin, eta, ni morroi egon nintzen bizitzan, senar-emazteak bizi ziren, Martin eta Anttoni; hauek ez zuten haurrik.

Baserri hau terreno aldapatsu batzuen gain-gainean egina dago, eguzkiak eta haizeak ederki jotzen dutela. Etxea bera aspaldikoa da; zaharra.

Lur gutxi zuen; maizter batentzat poliki, baina bi bizitzen ziren. Lurrak, gehienak eguzki aldetik zituen; baratza edo labore-toki on samarrak bazituen; belazeak eta sagastiak toki aldapa-tsuan; ganaduaren azpitarako zakarrik ez zuten, eta baso edo txararik ere ez. Ganadua ere gutxi edukitzen zuten, eta kaxkarrak; pentsurik gabe belar hutsarekin bizitzen ziren.

Etxe ondoan bazuen zumar-arbola handi bat; eta muxikarbolak, aranak, udareak, gereziak eta brinoiak ere bazituen. Etxe inguruan bazuen putzu txiki samar bat, eta, euria egiten zuenean, betetzen zen eta bertan edaten zuten ganaduek behar zuten ura. Etxeak berak bazuen *bozaera* deritzaion hormigoizko ontzi handi bat, eta teilatuko urak bertara biltzen ziren, eta etxean behar zena handik hartzen genuen.

Ni morroi egon nintzen etxeak bazuen beheko txoko batean amabirjin iturri eder bat, eta handik ere ekartzen genuen.

Sarrerako atearen barrendik lotuta egoten zen txakur koxkor bat. Bera beltza zen kolorez, baina hortzak zuriak erakusten zituen, inor kanpikorik joaten zenean. Ez zen izaten giro harekin. Etxe inguru hartara ez zen eulirik ere inguratuko berak nabaritu gabe. Horrelako txakurrak ez dira diruarekin ere pagatzen.

Sagar-denboran etortzen ziren kaleko mutil koxkorrak sagarrak osterara; eta gure nagusiak, ikusten zituenean, txakurra askatu eta bidaltzen zuen, eta han ibiltzen ziren larri.

Egun batez, bazkalondo batean, ikusi zituen lau edo bost mutil koxkor sagastian zebiltzala, eta han bidali zuen gure txakur beltza tximista baino azkarrago. Mutil koxkor batzuek alde egin zuten korrika, baina bat bazen denborarik ez zuena alde egiteko, eta sagar-arbolaren gainera igo behar izan zuen, txakurak txikituko ez bazuen. Gizarajoak hantxe egon behar izan zuen arratsalde guztian sagar-arbolaren gainean negarrez, eta gure txakur beltza arbolaren azpian, bere hortz zuriak agertuz, mutil koxkor hari zaunkaz.

Gero nagusiak esan zidan:

–Sebastian, joan hadi sagastira eta ekar ezak txakur hura etxera.

Eta hala joan nintzen, eta, nik txakurrari heldu nionean, jaitsi zen mutil koxkorra arbolatik behera, eta pena ematen zidan gixarajoak. Begi biak handiturik zeuzkan negarrez, eta galtzak ere pixaz bustita. Gero, nik zerbait egingo nion beldurra ere bazuen; baina zer egingo nion, mutila postura hartan ikusita? Urrikaldu egiten nintzen neroni, eta esan nion joateko agudo handik eta ez etortzeko gehiago sagarrak osterara; baina ez zegoen esan beharrik: ez zen azaldu gehiago mutil koxkor hura, eta ez bere lagunak ere.

Etxe hartako nagusia, Martin, gizon handi bat zen, berrogeita zortzi bat urte zituena, nahiz eta bere emazteak hirurogei izan. Gizon serioa, bere boxeolari-aurpegiarekin, sudurra motz samarra eta lepoa lodia. Bizarra igandeetan moztzen zuen, baina pasako zituen hiru edo lau hilabete buruko ilerik moztu gabe; eta, hala zegoenean, ikara ere ematen zuen.

Emaztea ere oso bizartsua zen, eta honi ere senarrak moztzen zion igandeetan, eta etxeakoandre hark orduan ematen zuen hamar bat urte gazteagoa.

Gizon haren janzkera, inora joan behar zuenean, izaten zen: txapela, alkandora barratu bat, galtza urdinak, blusa beltza, eta oinetakoak gehienez alpagata beltzak.

Nagusi hari gustatzen zitzaion ia jai-arratsaldero paseatzera joatea, eta bere amets guztia izaten zen ardo puska bat edan eta gero mutur-joka ibiltzea. Inoiz etorri izan zen etxera aurpegia markatuta, baina oso gustura gizona. Astelehenean jarduten zen niri esaten igandeko gorabeherak, eta beti fantasia hori izaten zuen, esanez:

–Atzo eman zizkioat halakori ederrak, neronek ere hartu nitian baina...

Eta berriz ere igandea etortzeko pozez egoten zen, mutil gazte baten moduan, beste kontrario batekin bere indarrak probatzeko. Niri soldata ordaintzeko ez zuen izaten dirurik, baina parrandan ibiltzeko sortzen zuen nondik edo handik. Bere gustuko bailara lgerdo ingurua izaten zuen. Gustatzen zitzaion kontrario gogor samarrarekin borrokan ibiltzea.

Ni hara joan eta berehala, soldataren kontua egiten hasi ginenean, nik hilean kobratzeko egin nahi nuen, baina nagusiak esan zidan urtean ordainduko zidala, eta hala egin genuen tratua, berrogeita hamar duro ordaintzekotan. Pasatu zen urtea eta ez zidan dirurik ematen, eta nik esan nion nagusiari:

–Aizu, Martin: urtea pasea da ni hemen lanean hasi nintzela, eta ez al dugu soldatarik?

Eta erantzun zidan:

–Bai, emango diat; laster txekorra salduko diat eta egingo ditiagu kontuak.

Txekorra saldu eta handik puska batera ordaindu zidaten noizbait, eta nik orduan esan nion:

–Begira, Martin: nik hilean kobratu nahi dut nire soldata, ahal bada.

–Hilean ez duk erraz izango, motel; nik urtean behin ateratzen diat txekor bat eta orduan izaten diat dirua.

–Ba, nik hilean kobratu nahi dut, eta gainera hilean behar ditut gutxieneko zortzi duro.

–Zortzi duro?

–Bai, bai: zortzi duro.

–Emango diat ba hilero, baina ez zortzi duro; hileko askoz gutxiago.

–Ba, ez badidazu ordaintzen nik esandakoa, ni banoa etxe honetatik.

Eta, hura esan nionean, erantzun zidan:

–Guk ere norbait behar diagu laguntzeko eta emango diat ba eskatzen duana.

Baina pasa hilabete bat, bi, hiru eta lau ere, eta dirurik ez, eta nik esan nion:

–Zer dugu, nagusi? Hauek ez dira guk esandako hitzak. Ez al dugu dirurik edo zer gertatzen da? Lana bai eta soldatarik ez? Hau ez da segida ederra!

Eta erantzun zidan:

–Nik ez zeukaat ba orain dirurik, motel, eta noizbait egingo ditiagu kontuak.

–Lehenago ere kontua gehiago dabil hemen dirua baino!

Eta nola ez nuen behin ere soldataren usainik ere nabaritzen, egun batez esan nion:

–Aizu, Martin: hemengoa ikusia dago; ni ez naiteke lanean aurrera horrela jardun eta banoa hemendik.

Eta erantzun zidan:

–Zer egingo diagu ba, motel? Berriz ere baten bat etorriko ahal duk noski!

Eta halaxe alde egin nuen baserri hartatik, txakur txiki bat ere hartu gabe. Ni atera eta handik urte pare batera gaixotu eta hil egin zen nagusia; eta bere emaztea ere bera hil eta handik bi edo hiru bat urtera hil zen.

VI

Handik atera eta berehala jakin nuen Donostiako Aiete bailara-ko Azken Portu izeneko baserrian morroia falta zela, eta haraxe joan nintzen.

Baserri hau kamioaren ertzean dago, Francoren palazioa pasa eta berehala. Nahiz handitu eta gaur kale-etxe bezala jarria dagoen, garai hartan etxe koxkor bat zen.

Baserri honetan bizi ziren senar-emazteak, ezkonberriak, Juan Mari eta Manuela; bi haur txiki zituzten, seme-alabak; gero izan zuten beste alabatxo bat.

Etxe honetatik berrogei bat metrora, Donostia aldera, kamioaren eskuinetik dago beste baserri-etxe bat, Mantulene izena duena, gaur Juan Marienea, eta ukuilua eta ganaduak hemen edukitzen zituzten.

Gau batez, gu lotan geundela, euria erruz egiten zuen eta Azken Porturen teilatu haren erdia erori zen. Jaunari eskerrak, ez genuen inork ere minik hartu. Hain zuzen, inor ez zegoen alderdia erori zen. Hurrengo egunean, denok Mantulenera pasa behar izan genuen, gauza guztiak hartuta. Erori zen etxe honen nagusiak orduan berritu eta jarri zuen kale-etxe moduan, eta bere terrenoak Mantuleneren izenean jarri ziren.

Baserri honek terreno gutxi zuen, eta aldapatsuak, ospelak eta itsaso aldera. Eguzkiak jotzen zuen, baina arratsaldean. Ganadu gutxi edukitzen zuten. Baratza onak zituen, eta berdura asko egiten zen plazarako. Sagardoa ere egiten zuten, eta gero saldu.

Nagusi hark hogeita zortzi bat urte zeuzkan. Garai hartan gizon koxkor bikaina zen. Pisatuko zituen laurogeita zortzi bat kilo. Norabait joan behar zuenean, bere janzkera hau izaten

zen: txapela, alkandora zuria, galtza urdinak, txaketa eta zapata beltzak.

Etxe honetara etorri eta berehala, hasi ginen soldataren tratua erabakitzen. Nagusiak galdetu zidan:

–Zenbat irabazteko asmoa duk?

Eta nik erantzun nion:

–Zortzi bat duro hilean.

–Zortzi duro asko izango duk. Nik emango dizkiat sei. Konforme al haiz?

Eta berriketan ez aritzeagatik, baietz esan nion.

Eta baserri honetan nola sagardoa saltzen baitzen, inguruko baserritarrak ere etortzen ziren sagardotegira, eta egun batez gure nagusi hark hor ikusten gaitu bolatokian Bera Berako Balentin eta biok hizketan ari garela, eta ilunabarrean, ukuiluko lanak egiten ari ginela, galdetu zidan:

–Zer zian Balentinek hirekin?

–Balentinek? Ezer ez. Hor jardun gara biok hizketan kontu-kontari.

–Bai; horrek zerbait bazian hirekin. Zer esan dik? Nik baino soldata gehiago emango diala?

–Gizona, guk ez dugu soldata-konturik berritu ezertarako.

–Bai, bai; zuek ez nauzue ni engainatzen. Nik bazekiat hemen jendea zer dabilen. Hi bere etxera morroi eraman nahian zebilek hori, eta hemendik aurrera hilean duro bat gehiago emango diat nik: lehenago sei bezala, honetaz aurrera zazpi duro.

Eta, neronek batere uste gabe, nire soldata “puja berritu” egin zen.

Gero gure nagusi hark sagardo gutxiago egiten zuen, eta lan gutxiago baserrian; neroni ere gehienetan diru-premian aurkitzen nintzen, eta beti morrontzan ere aspertuta nengoen, eta egun batez esan nion:

–Aizu, Juan Mari: nik laster soldadu joan behar dut, eta txanpon batzuk irabaztera norabait joan nahi nuke, ba.

Eta erantzun zidan:

–Bai, motel; hemen gu biontzako lan gutxi zeukaagu; eta, nahi baldin baduk, nonbait hasi hadi.

VII

Halaxe, egun batez Donostiako Patxi Erdozia jaunarengana joan nintzen. Jaun hau transportista zen, eta Donostiako gas-fabrika-ko ikatzak kaian baporetik hartu eta bere kamioiarekin ekartzen zituen. Nik galdetu nion:

–Niretzako lanik bai al daukazu, nagusi?

Eta erantzun zidan:

–Bai, motel; lana bazeukaagu. Etorri nahi duanean.

Gas-fabrika Donostiako Morlans bailararen sarreran dago. Gasa ikatzarekin egiten dute, eta hantxe hasi nintzen lehenengo palaketan ikatzarekin, etortzen ziren kamioiak husten.

Garai hartan Hernani baporea zen fabrika honetarako Asturiastik ikatza ekartzen zuena. Hamabostean behin edo horrela etortzen zen, eta hura husten lau bat eguneko lana izaten genuen. Gainerako egunetan etxean baserrian jarduten nintzen nagusiari laguntzen.

Bapore hori zetorreanean, gure nagusi Patxi Erdozia bera etortzen zen kotxearekin guri abisatzera, berarekin lanean aritzen ginenak kamio-ertzean bizi baikinen. Ni Azken Portutik oinez joaten nintzen; goizean bost eta erdietan jaiki, ganaduak gobernatu, gosaria hartu eta zazpi eta erdiak alderako lanera. Baziren ni baino urrutiago bizi zirenak ere, baina haiek ere oinez ibiltzen ziren; ez baitzen gaur bezala autobusik.

Gure Hernani baporea desegin zuten zaharra zelako, eta handik aurrera ni egunero ibili nintzen Erdoziarekin, gerrara joan nintzen arte.

Hamar pezeta irabazten genuen eguneko soldata, eta etxean astean hogei pezeta pagatzen nuen, eta goiz-ilunabarretan etxe-ko lanetan lagundu.

Uralde baserriko Kalisto Dendategi genuen enkargatua, eta berarekin lanean jarduten ginen hamalau edo hamabost mutil: Malmiztegiko Antonio zena, Errotatzoko Juan Kruz zena, Ortatxikiko Luis zena, Miramonzarreko Joxe zena, Errondoko Antonio, Txabolako Manuel, Herrerako Manuel Gorra, Pakeako Bernardo, Beasaingo Joxe eta Lesakako Joxe Mari. Amara aldeko beste erdaldun batzuk ere izaten ziren tarteka.

Garai hartan Loiolan, Txomin Enean, bilera egiten zen. Esku-soinua jotzen zuten, eta han ibiltzen ziren neska eta mutil dantzari, eta ni ere igandeetan haraxe joaten nintzen nire lagunekin. Orduko nire lagunak ziren Gure Pakeako Rafaeltxo, gaixotu eta Andazarratera eraman eta bertan hil zena; Uraldeko Xanti; Juanindegiko Modesto; Ugaldeko Pedro, eta baita ere Errekako Simon zena eta Etxetxikiko Joxe zena, gerran, bata Madril aldean eta bestea Teruel edo Belchite alde horretan hil zirenak.

Han puska batean ibili eta gero Hernaniko tranbian Donostiara; eta hemendik Aieteko Munto baserrira. Hemen sagardoa saltzen zuten, gaur ere saltzen duten bezalaxe, eta merienda pixka bat egin eta etxera denok zintzo, hurrengo goizean ere lanera joan behar baitzen.

Horrelaxe izan zen nire gazte-denbora.

VIII

Ni ez naiz oroitzen gauza honetaz; baina, nire anaia zaharragoek esaten didatenez, gure aita zena ere bertsotan aritzen omen zen gaixotu baino lehenago, eta niri ere oso gazterik sortu zitzaidan bertso-zaletasuna.

Mutil koxkorra nintzela, nire lana behiak larrean zaintzea izaten zen, eta gehienez poltsikoan izaten nuen bertsopaper zahar edo berriren bat, eta hantxe jarduten nintzen kantari, udaberrian txoriak baino alaiago; eta bertso on samarrak edo nire gustukoak baldin baziren, azkar ikasten nituen memoriaz.

Garai hartan nik ezagutzen nuen bertsolaririk onentxoena, gure Txirrita handia zen, eta berak plazan kantatzen zituen bertsoak eta paperean jartzen zituenak izaten ziren nire gogozkoak.

Garai hartan ni igandeetan Erreteriarra joaten nintzen meza entzutera; eta, mezatatik ateratzen ginenerako, eliz aurrean han egoten zen gizon bat bertsopaperak saltzen. Igandero ateratzen zen hiru orriko bertsopaper bat, *Bertsolariya* zeritzana, dena bertso zahar eta berriekin beteta, bere prezioa hamabost zentimo zuena. Nire gutizia guztia bertsopaper haiek erostea izaten zen, behi-kontu nenbilen garaian kantatzeko edo ikasteko.

Garai hartan ere, gure herrietan festak zirenean, izaten ziren bertsolariak, eta joateko modurik izaten baldin banuen, han joango nintzen, nahiz urruti samar izan, eta bai gustura asko entzun ere.

Neroni gutxitan jardun izan naiz plazan bertsoak kantatzen. Nahiago izan dut paperean jarri, eta badihut bertso banaka batzuk gauza baten edo bestearen gainean jarriak, eta inprentatuak ere.

Nik hamazazpi urte nituela, Donostiako Kurasaalean egin zen bertsolari-txapelketa bat. Hartarako lehendabizi Donostia ingu-

ruko herrietan aukeratzen zituzten bertsolaririk onentxoena, beren bertso-saioak egin ondoren. Txapelketa hartako zuzendariak egun batez Aieteko bailarara etorri ziren; eta, hemengo bertsolari zaharrak eta gazteak bildu eta elkar probatu ondoren, Kursaalera joateko gelditu ginen: zaharretatik Aranburuko Martin Etxeberria eta Bera Berako Nikolas Sorozabal, eta gazteetatik Oriamendiko Jose Leon eta ni.

Esan bezala, txapelketa-egun hartan bildu ginen Kursaalera, eta hango zuzendariak esan zidan, Jose Leon etortzen bazen, gu biok kantatu behar genuela lehendabizi; baina, ez bazen etortzen, ezin kantatuko nuela bakarrik. Eta nola ez zen azaldu, ez nuen kantatu.

Baina esan zidaten txapelketa bukatzen zenean joateko beste bertsolariekin batera bazkaltzera, eta han joan ginen agintari, zuzendari eta bertsolari denak ostatu eder batera; han agindu zidaten niri ere kantatzeko, eta beste bertsolariei bezala eman zidaten saria; eta, egun zoragarri bat pasatu ondoren, eman zitzaion bukaera egun hartako bertsolari-festari. Egund hartan Basarri gelditu zen txapeldun.

Garai hartako bertsolari zaharrek bazuten Donostian txoko polit bat, oso maite izaten zutena: kale Eason, Bar Manolo. Donostia aldera etortzen ziren bertsolariak ostatu honetara biltzen ziren; Txirrita baitzen hona maiz samar etortzen zena, eta nik uste dut denak haren arrastoan ibiltzen zirela. Gainera, bertako nagusia Manuel ere bertozale porrokatua baitzen.

Egund hartan, guk bazkaldu genuen ostatuan, bertsolariak irten eta gero, inguratu zitzaidan nire lagun bat, Patxi Lazkano, Altzako Otxoki baserrikoa, eta bera ere bertsolaria, ni baino gazteagoa. Ez zekien nonbait ongi Donostiako berri eta niri galdetu zidan:

–Aizak: hik bai al dakik bertsolariek non egiten duten bilera?

–Jakingo ez diat ba? Ea, etorri hadi nirekin. Berehala erakutsiko diat.

Hala, etorri ginen Manuelen ostatura, eta han zeuden bertsolari gehienak, Txirrita beren maisu handiarekin, batzuk mahaian eserita eta beste batzuk zutik. Gu sartu ginenean, ez zen inor ari bertsoan; denak isilik zeuden.

Txirrita, berriz, bakar-bakarrik mahai txiki batean meriendatzen ari zen, kaxuelkada bat tripaki eta botila bat ardo bere aurrean zituela. Eta nola hortzik ez zeukan eta tripakiak ere zail samarrak zeuden, ahoan ibili eta mahaipera botatzen zituen. Han bazebilen txakur txuri txiki bat eta harentzat ez zetozen gaizki.

Honetan nire lagun Patxik esan zidan:

–Bertso bat botako niokek bai oraintxe Txirritari!

–Bota iezaioak ba, motel!

–Lotsatu egiten nauk!

–Lotsatu egiten baldin bahaiz, neronek botako zioat ba!

Halaxe, aulki bat hartuta, jarri nintzen Txirritaren mahai hartan, eta esan nion:

–Jainkoak gabon dizula, Txirrita. On egin dizula!

–Igualmente, gazte; eskerrik asko.

Eta honetan kantatu nion nik bertso bat; ez naiz hartaz ondo oroitzen, baina honelako zerbait zen:

Ederki kosta zaizu, Txirrita,
kaxuelka ori jatia,
tripaki-puxka pranko badezu
mai-pe ontara botia.
Txakur onek gaur zure kontura
egin duan banketia!
Onentzat ez da gaizki etorri
zuk ortzik ez izatia.

Hori aditu zuenean, bultza zion Txirritak kaxuelari –ordurako gehiena hustuta zeukan–, trago bat edan eta berehala bertso-tan hasi zen, honelako zerbait kantatuz:

Txakur txar onek antzematen dit
nik ortzik ez daukatena,
berialaxen billatutzen du
neri sobratzen zaitena;
kaxuelka bat tripaki banun
ta berak jan dit geiena,
gero kontua pagatzeko ni,
orrek ematen dit pena.

Orduan ekin zion beste bertsolari batek, esanez parrandan gastatzen zituen diruekin ez zeukala hortz berriak jarri ezinik, eta orduan errazago jango zituela tripakiak, txakurrari eman gabe.

Kursaalean ederrak kantatu ziren, baina han kantatu zirenak ez ziren batere txarragoak. Gu gauean, hamarrak aldean, atera ginen etxe aldera, eta artean ere han gelditu ziren denak, zeinek baino zeinek ederragoak kantatuz. Zeru txiki baten antza ematen nion nik Manuelen ostatuari egun hartan. Bazirudien aingeru-talde bat ari zela kantari, triste zeudenak alaitu nahian. Izan ere, horrelako egunak gogoangarriak izaten baitira Euskal Herrian, batez ere euskal ohitura onak maite ditugunentzat.

IX

1936. urteko uztailaren 6an, atera ginen Aietetik nire lagun Pedro eta ni bizikletan, arratsaldeko lauretan, Iruñeko San Fermin festetara.

Aietetik irten eta lehenengo Tolosara joan ginen; hemen nafar kamioa hartu genuen, eta Betelun barrena, Azpirozko al-dapan gora. Kamio honetan gora goazela, badago baserri bat bide-ertzean, eta haraino bizikletaren gainean joan ginen, eta handik gora bide puska batean oinez, ia aldapa bukatu arte; hemen jarri berriz ere gainean eta Lekunberriraino. Bero handia nola baitzen, egarritu egin ginen, eta hantxe aritu ginen zerbait edari freskoa edaten.

Tortillatxo bana ogiarekin eta zahato txiki bat ere bagenuen edariz beteta biderako hartua, eta ez zen gaizki etorri. Gogoak ematen zigunean, esertzen ginen kamio-ertzean eta txurrupe bana edo bina edan, eta segi berriz ere.

Lekunberrira bitarte kosta zitzaigun pixka bat, baina handik aurrera, nola baitzen zelai samarra, oso ederki joan ginen.

Iruñera gauean, hamarrak alderako, iritsi ginen; eta zerbait jan eta edan genuenean, ibili ginen kalean harantz eta honantz. Baina aspertuta geunden, eta nonbait etzan behar genuela pentsatu genuen. Oherik ez genuen aurkitu, eta etxeetako ate-ondo gehienetan ere jendea zegoen lotan; eta nola gau-giro ederra zegoen, Paseo de la Taconera deritzaion tokira joan ginen. Beste asko bezalaxe, gu ere aulki baten gainean etzan ginen.

Lotan geundela, goizeko laurak alde horretan, nabaritu genituen tiroak, dik-dak!, dik-dak!, eta nik esan nion nire lagunari:

–Nabaritu al dituk tiroak, Pedro?

–Bai, baina ez hadi ikaratu; lo egin ezak. Karteristen bat edo zerbait horrelako ibiliko duk, eta hari tirako zioan guardiak.

Baina handik pixka batera, dik-dak!, dik-dak!, berriz tiroak. Eta orduan esan nion:

–Motel, motel! Goazemak hemendik ostatura eta kafe pixka bat har dezagun.

Oraingo gisa, orduan ere jende asko biltzen zen Iruñean festa-usainean. Probintzia askotatik etortzen ziren gazte-taldeak beren musika eta guzti, eta probintziari egokitzen zitzaizkion janzkerak eta lepoko pañeluak ekartzen zituzten; eta nola garai hartan opinio edo partidu asko zen, baita beren partiduari egokitzen zitzaizkionak ere; eta, ikusten denez, batzuk besteekin haserretu egin ziren.

Guk ez genekien Iruñeko berri, eta bertako jendeari entzuten genion nola esaten zuten:

–Oraintxe laster etorriko dira Arrotxapetik gora zezenak...

Eta guk elkarri esan genion:

–Har ditzagun sarrerek eta goazen plazara.

Eta hala joan ginen, eta han ikusi genuen komeria polita. Irtsi ziren zezen horiek plazara; hau dena jendez beteta zegoen; zezen horiek ez zekiten zeini segitu ere; berehala ireki zituzten ukuiluko ateak, eta han sartu ziren tximista baino azkarrago.

Ez dakit sei ala zortzi ziren, baina hauetako bat oso maltzura zen, eta ez zen besteekin batera sartu. Harrapatzen zuena jo eta airean botatzen hasi zen, eta garbitu zuen plaza ederki. Gero idi zahar batzuk atera zituzten; hauei segika joaten zen ate-ondoraino, baina berriz ere jira eta plazara. Gero torero moduko bat etorri zen zapi gorri batekin, eta hari segika sartu zen.

Gero atera zituzten bi zezen koxkor batera, mendi-betizu horietakoak, eta haiek ere jarri zuten festa ederra. Beti korri egiten zuten, harrapatzen zutena airean botata. Eskerrak ez zutelako min handirik emango noski.

Dultzaineroak ere baziren ederki jotzen zutenak, eta beste gazte-talde batzuek jota navarrak kantatzen zituzten. Haiek



ematen zioten festari bere garrantzia. Logale ginenak ere esnatzen gintuzten ederki, eta egun haietan ez zen izango bihotz tristerik haiek alaituko ez zutenik.

Eta eguerdi arte ibili ginen zerbait ikusten. Ikusi genituen txarlatanak, feriantek, kinkilleroak, eta musika edo soinua kalez kale.

Gero, etxerakoan, hango zerbait ere ekarri behar genuela eta baratxuri-korda handi bana hartu genuen, korda bakoitza hiru pezeta pagatuta; eta hor etorri ginen, haiek geure lepotik zintzilik genituela. Ilunabarrean garaiz samar iritsi ginen Donostia aldera, eta esan genuen:

–Loiolara joan behar diagu, Txominen bilerara.

Neskatxa asko joaten ziren hara dantzara, gure ezagunak, eta haientzat izan ziren gure baratxuri gehienak. Batek hazitarako behar zuela, eta besteak ere bai; eta batek buru bat kendu, eta beste batek beste bat edo bi, eta akabo gure baratxuriak. Etxerako ekarri genituen bai batzuk, baina gutxi.

Orduantxe izan nintzen Iruñean lehenengo aldiz. Orduan ez genuen jakin zergatik tira zituzten tiroak, baina egun asko baino lehenago nabarmendu zen.

X

Handik hamar bat egunera sortu zen Espainiako gerra. Orduan jakin genuen Iruñeko tiroak zer ziren.

Donostian lehendabizi militarrek altxatu ziren. Guk Azken Portutik entzuten genituen ederki Loiolako kuarteletan egiten ziren tiroteo beldurgarriak, militarrek barrendik eta gorriak kanpotik.

Donostia barruan ere egin ziren tiroteo latzak, Gobierno Civilean, Casinoan, Hotel María Cristinan..., batzuk barrendik eta besteak kanpotik; baina azkenean militarrek errenditu ziren, eta gorriak gelditu ziren nagusi, nafarrak sartu ziren arte.

Garai hartan, Donostia barruan egunero tiroka nola aritzen baitziren, baserritar gutxi joaten zen berdura eta esnearekin plazara; eta gure nagusi Juan Marik esaten zidan:

–Autobusik ez zebilek, baina karretillan eraman daitekek zerbait plazara, eta txanpon ederrak hartu ere bai.

Eta halaxe joaten nintzen bala tartean barrena, nire karretilla hartan letxuga mordo bat eta beste patata puxka batekin.

Egun batez, Aldapeta barrenean nindoala, ikusi nituen bi emakume, bat baserritarra eta bestea kaletarra, bata besteari esnea ematen ari zirela eta kaletarrak bere marmita txikia esnez beteta eskutik zintzilik zeukala.

Tira zuen norbaitek ere tiroa alde hartara, eta marmita txikia pasa zuen balak alde batetik bestera, eta han joan zen emakume gajo hura bere marmitatik esnea zeriola, eta baserritarra ere azkar asko sartu zen ate-ondo batean.

Ni hala ere aurrera; Bretxako plazaraino joaten nintzen. Hernani kalean barrena nindoala, botika bat badago han etxe-kantoi batean, eta nire karretillaren hotsa entzuten zuenean, hango botikariak pertsiana pixka bat altxa eta hala esaten zidan:

–Zer daramak hor, gazte?

–Hemen letxuga eta patata.

–Patata? Ea ekar ezak hona! Zenbat kilo dituk?

–Hogei.

–Ondo da; nik hartuko diat dena. Zenbat balio dik?

Garai hartan kiloak erreal bat balioko zuen gehienez ere, baina nik pezeta bat esaten nion, eta hantxe ematen zizkidan isil-isilik hogei pezeta. Gero hala esaten zidan:

–Baldin baduk, bihar ere ekarri.

Hurrengo egunean ere laster entzuten zuen nire karretillaren hotsa. Ni pare hartara iristen nintzenean, azkar asko altxatzen zuen pertsiana. Horrelaxe ibili ginen egun batzuetan.

Plazara joaten nintzen, eta letxugak, nahiz batzuk luzatuak izan, agertu ordurako eramaten zizkidaten eskuetatik; ez baitzen ia inor joaten berdurarekin. Eta hamar zentimo balio ez zuten letxugak, pezeta banan saltzen nituen.

Baina gero, nafarrak Irun aldera inguratu zirenean, hango tiroak entzuten hasi ginen. Ipar-haizea zenean, behintzat, Aiete bailaratik ere ederki entzuten ziren fusil eta metrailadorearekin egiten zituzten tiroteo latzak.

Nik banituen donostiarrak lagun bat baino gehiago ere Irun alde horretan gerran zebiltzanak. Hor ibiltzen ziren batean gerrara joan eta bestean etxera etorri, eta hauei galdetzen nien nik:

–Zer moduz doa ba gerra hori?

Eta erantzuten zidaten:

–Gerra hori? Ez zekiat zer gertatu behar duen! Erraz menderatuko genituela uste genian, baina nafar horiek gogor eusten ziotek beren aldetik. Egiten duten pixka, beti aurrera egiten ditek horiek.

Hurrena, berriz, Andoain inguru eta Buruntza mendi aldetik ere tiroak entzuten hasi ginen. Gure auzoko gizon batek hala esaten zuen:

–Hemen dituk nafarrak Tolosa aldetik behera. Tiroak gero eta garbiago zetozak.

Eta arrazoi zuen: pixkanaka beti aurrera zetozen, Donostia inguruko mendi eta herri denak hartuz. Asko kostatzen zen, baina berenganatu zuten Irun alde hori.

Agorrilaren 12an etsi zuten gorriek eta bazihoazen denak Bilbo aldera.

Garai hartan ni ikatz-lanean ibiltzen nintzen Donostian; eta, larunbata nola baitzen, ilundu arte lanean jardun ginen. Gero kai aldera joan ginen asteko soldata kobratzeko asmoan, nagusia inguru hartan bizi baitzen.

Baina ez zegoen egun hartan kobratzerik. Hura zen hango iskanbila eta jendearen eromena! Denak, koltxoak eta harrapatzen zituzten etxeko tresnak harturik, arrantzaleen baporeetan sartu eta ahal zuen guztia bazihoan Bilbo aldera.

Txoferrak eta guk, mutilak, elkarri esan genion hobea izango zela etxe aldera joatea.

Banentorren etxe aldera, Azken Portura, eta orduantxe zetozen kamioan behera, Hernani aldeko eta Oriamendiko gailurrean egon ziren gizonak, beren kanoiak eta gerrarako tresnak hartuta.

Ikusi nindutenean haiek behera eta ni gora nentorrela, erdaraz esan zidaten:

–¿A dónde vas tú?

–Yo a casa.

–¿Cómo que a casa? Vente con nosotros para abajo, que tenemos que ir a Bilbao.

–Pero vengo de trabajar y tengo que mudarme esta ropa sucia.

Ikatzetan arropa, aurpegia eta dena zikin-zikin eginda bainentorren. Eta haiek esan zidaten:

–¿Cómo que a mudarte? ¡Vente con nosotros!

–¡Si vivo aquí mismo, en este caserío!...

–Bueno, bueno: sigue y luego vienes.

Baina ni laster saltatu nintzen kamiotik baratzera, eta beheko txokoan barrena joan nintzen etxera.

Afaria atera zidaten, baina ez neukan jateko gogorik. Nire barrena ez zegoen lasai, nafarrek nolako sarrera egiten zuten ikusi arte. Gau guztian gelako leihoan egon nintzen zelatan. Goizeko ordu bata alde arte, gorriak pasa eta pasa aritu ziren Donostia aldera, gero hemendik Bilbo aldera jarraitzeko. Hase-urreturik batak besteari esaten zioten erdaraz:

–¡Quién iba a pensar que teníamos que perder tan fácil estas posiciones!

Eta besteak erantzuten zion:

–Es que, por lo visto, los cab... de ellos tienen mejor organización y más disciplina, y no hay quien pueda con ellos. Lo mejor que podemos hacer es marcharnos para Bilbao.

Eta horrelaxe joaten ziren. Hurrengo goizean garaiz gure nagusi Juan Marik esan zidan:

–Lo egin al duk, motel?

–Nik ez; gau guztian leihoan egon naiz.

–Guk ere ez diagu lo askorik egin. Baina aizak: bart arratsean ohera muturra garbitu gabe joan al haiz?

–Hara ba: ez neukan gogo handirik ere aurpegia garbitzen hasteko.

Eta orduan garbitu nuen sukaldera jaitsita. Hurrena hala esan zidan:

–Zer gerta ere, orain, nafar horiek etortzerako, ekarri behar diagu gurdi bat alpapa.

Halaxe, gurdi janariarekin gatozela, hasi ziren nafar agintari eta gainerako jendea automobiletan pasatzen, Tolosa aldetik Hernani aldean barrena Donostiara zihoazela, Aietetik pasatzen ziren kotxeak behintzat, Nafarroako periodikoak boteaz.

Eta handik laster jakin nuen gure hiru anaia ere, Kaximiro, Joxe eta Antonio, Bilbo aldera joanak zirela.

XI

Gorriek Ormaiztegin trenaren zubia puskatu egin zuten, eta handik aurrera Donostiarako behar ziren gauzak kamioz ekarri behar izan ziren, berriz zubi hau egin zuten arte.

Erdozia jaunak, gure nagusiak, bazeuzkan bere txoferrak, baina Lizeaga zeritzaion beste transportista batek bazeukan txofer bat ona eta oso trebea, Migel Anza izena zuena; eta Erdoziak esan zion Lizeagari ea txofer hori prestatuko zion Ormaiztegiko zubia egin arte, eta baiezkoa erantzun zion. Eta hala etorri zen Migel astelehen goiz batean, gu denok garajejan geundela, eta Erdoziak esan zion:

–Etorri al haiz, Migel?

–Bai; hona etortzeko agindua eman dit nire nagusiak.

–Hara ba hemen kamioi berria, hik estreinatu behar duena, *marca internacional*. Hemen zeudek nire mutil guztiak, eta hauetatik hartu itzak bi, herorrek nahi dituanak, hire laguntzaile izateko. Donostiatik Zumarragara hasi behar duk gauzak eramaten eta ekartzen.

Migelek ongi ezagutzen zituen Erdoziaren mutilak, eta bazekien langile bizkorrak behar zirela kamioia azkar betetzeko eta husteko, eta hau erantzun zion:

–Ba, nik behar ditudan mutilak hauek dira: Manuel Gorra eta Sebastian.

Eta halaxe hasi ginen lan hartan. Egunean hiru jornada egi-ten genituen Donostiatik Zumarragara. Joaterakoan gehienez jaboia eramaten genuen Lizarriturriren fabrikatik, eta etortzerakoan, berriz, gauza guztietatik ekartzen genuen: ikatza, arrautza, platanoa edo egokitzen zena.

Manuel Gorra Herreran bizi zen, eta ni, berriz, Aieten, eta goizeko lauretarako Donostiako Autonomía kalean egon behar

izaten genuen. Han zegoen Erdoziaren garajea, eta hara biltzen ginen txoferra eta bi mutilak. Automobilean asko ibiltzen ginen, baina bai oinez ere; gauean guk lanari uzterako izaten baitziren hamaika eta erdiak edo hamabiak, ahal zenik azkarren ibilita gainera, eta berriz ere oinez etxera danba-danba.

Patrikatik jan eta horrenbeste ordu lanean pasa eta hamar pezeta eguneko soldata. Nagusi hark ere, beste askoren moduan, altzairua baino gogorragoko bihotza baitzuen. Guk esaten genion:

–Patxi, guri otorduak pagatu behar dizkiguzu ba... Ezin ibiliko gara geure patrikatik pagatzen dugula.

–Nik otorduak pagatu zuei? Ez bazarete konforme, segi etxera!

Oso ordu gutxi izaten genuen gauean lotarako, eta Manuel Gorra eta nik berehala lo hartzen genuen txoferraren ondoan motorraren berotasunarekin.

Gu lotan ginela, txoferra aspertuta joaten zen, isil-isilik horrenbeste bidean. Baina Ezkio ingurura iristen ginenean, biok astintzen gintuen esanez:

–Begira, begira Ama Birjina txuri-txuri!

Eta guk sinetsita:

–Non? Non?

–Hara, hara non dagoen haritz-arbolaren puntan!

Eta gezurra. Urte batzuk lehenago jendea erruz ibili zen inguru haietan, Ama Birjina ikusten zutela esanez; baina dena kontua. Autobusek eta taxistek egin zuten orduan itsasora gabeko Amerika. Izan ziren Ama Birjina ikustera hutsik joan ziren neskak gazteak eta “maletarekin” etorri zirenak; gero jendeak esaten zuen Ama Birjinaren milagroa zela.

Lehenbizitik sinesten genion txoferrari, baina gero ez genion kasurik egiten: hark gu esnatzeagatik eta toreatzeagatik esaten baitzigun.

Oroitzen naiz, Zumarragara joaten ginenean, trenean nola joaten ziren soldaduak Beasain alderaino, eta gero hemendik

automobiletan frentera. Eta kanoiak eta gerrarako beste tresna asko ere horrelaxe eramaten zituzten.

Egun batez, gu han lanean ari ginela, etorri zen gorrietako aireplano bat. Han ibili zen herriaren gainean bueltaka, baina ez zuen bonbarik bota; eta gu han egon ginen bagoi baten azpian gordeta, alde egin zuen arte.

Ikatzetan lanean genbiltzala, Altsasura ere joaten ginen ikatz bila, eta Eguberri egun batean ikusi genuen komeria polita.

Kamioikada bat ikatzarekin bagentozen eguerdiko ordu bata alde horretan Donostia aldera, eta Tolosako Papelera parean hor ikusten ditugu gizon baserritar batzuk, eskuak gora jaso eta "gelditu!, gelditu!" esaten zutela.

Eta gure txoferrak hala dio:

–Aitona hauek ere umore onean zetoza ba, hamaiketakoaren indarrarekin muturrak bero-bero eginda.

Baina berehalaxe beste batzuk, eta haiek ere berdin: eskuak gora jaso eta gelditzeko.

Gure txoferra bolanteari alde batera eta bestera ematen hasi zitzaion, baina automobila, berak nahi zuen tokira; direkzioko barra arrastaka baitzetorren, eta baserritar haiek huraxe adierazi nahi guri.

Ibai-bazterreko petrilaren kontra gelditu ginen, juxtu samar putzura erori gabe; eta, egun haietan nola elurra eta euri asko egin zuen, ibaia puntaraino betea zetorren.

Beasainen hartu genuen Tolosara zetorren gizon bat; ikatz gainean eserita ekarri genuen, eta hala esan zigun:

–Nik egin dut eskapada latza! Kamioia amildu izan balitz, ni joango nintzen lehendabizi uretara.

Hark ez zuen kontuan hartzen gu ere han joango ginela, ez bera bakarrik.

Eta horrela ibili nintzen, nire kinta deitu zuten arte.

XII

Halako batean, bidali zidaten Donostiako Aiuntamentutik soldaduskara joateko papera. Donostian ere bazen, beraz, beste Albertoren bat. Gerrak beti eman izan dit beldurra, eta hala esan nuen etxean:

–Oraintxe galdu naiz.

Soldadu joan behar eta ez nengoen seguru zein urtetan jaioa nintzen. Hala esan nuen:

–Ea ni 37ko kintoa naizen, eta kinta hori soldadu joaterako gerra bukatzen den!

Eta halaxe igande-arratsalde batean gure nagusi Juan Mari eta biok joan ginen Oiartzungo bikario jaunarengana, eta esan genion ea begiratuko zuen mesedez liburuan ni noiz jaioa nintzen. Begiratu zuen eta bost egunez 36ko kintak harrapatzen ninduen, eta papera zuzen bidali zuten Aiuntamentutik.

Halaxe etorri ginen triste asko Oiartzundik etxera. Ez nuen orduan pentsatzen gero joango zirela 37, 38, 39koak eta beste asko ere.

Donostiako Aiete bailaran bizi ginenak, bi lagun ginen kinta hartakoak: Erreka baserriko Simon Balerdi eta ni.

Simon mutil mozkote samarra zen, baina gorputzez zabala, oso bizartsua –gorputz guztian zuen bizarra– eta indar asko zuena.

Egun batez joan nintzen neroni bakarrik, behiak eta gurdiaekin, mendira egur bila. Aldapatxo batean kargatu nuen izugarrizko gurdikada egurra, eta ez nintzen fidatzen bakarrik abiatzera, amilduko zen beldurrarekin. Niregandik gertu samar ari ziren lanean Simon eta bere aita; eta, gu hain lagun maiteak izanik, nik hots egin nion esanez:

–Simon, etorriko al haiz mesedez pixka batean, gurdi honi heltzera?

–Bai, motel; etorriko ez nauk ba? Egon hadi pixka batean. Berehala hor nauk.

Etorri zen; jarri zen gurdiaren azpiko aldetik gurpilaren parean eta esan zidan:

–Hik segi behiekin!

–Ez, Simon; hor oso leku txarrean jartzen haiz. Deskuiduan amiltzen bada, hortxe gelditu beharko duk azpian.

–Ez, ez; hik segi ezak lasai, ni hemen baldin banaiz gurdi hau ez duk amilduko eta.

Eta halaxe, berari eskerrak, atera genuen gurdikada egur galanta.

Simonek indarra bazuen saltzeko ere. Segan eta aizkoran ere ederki egiten zuen. Eta indar asko zuen mutil bat izateko, haurtxo bat bezain umila zen.

Eta halaxe atera ginen San Sebastian egunez biok Aietetik. Bere familian bizi zen, gurasoak eta bi anaia eta lau arrebarekin, eta pena ederrarekin gelditu ziren, denak negarrez etxean, gu frentera atera ginenean. Haren arrebek egin zizkiguten pasamontañak eta guanteak, mendian hoztu ez gintezan.

Donostiako Kasinora, orain Aiuntamentua dagoen etxe horretara, bildu ginen kinto guztiak, eta gero hemendik estaziora; hemen trenean sartu eta denok kantari eta builan Iruñera, eta gehienak han gelditu ginen, instrukzioa ikasten.

Gero Simon, beste lagun batzuekin, Madrilera bidali zuten; eta han, Somosierran-edo gerran zebiltzala, metraila puska batek saihetsean jo eta zulo handi bat egin omen zion, eta berehala hil omen zen.

Nik frentetik ere eskribitzen nien haren arrebei, eta hauek esan zidaten nola hil zen. Pena ederra hartu nuen hori jakin nuenean, anaiak bezain elkar maiteak baikin biok. Jainkoak berekin izan dezala.

XIII

Iruñean izan nituen soldadu-lagun jator asko, euskaldunak eta erdaldunak ere bai. Euskaldunetan baziren Donostia, Andoain, Tolosa, Beasain, Zumaia, Bidania eta Eskoriatzakoak.

Askotan ibiltzen ginen denok elkarrekin, anaiak bagina bezala. Iruñean ardo onak izaten ziren; eta, basoerdi batzuk edanez, elkarri esaten genion:

–Orain hemen ederki gabiltzak, baina aurki joan beharko diagu guk ere gerrara, beste asko joan diren bezala, eta orduan ahaztuko dituk Iruñeko basoerdiak eta hemen elkarrekin pasatzen ditugun ordu atsegin hauek.

Batek esaten zuen:

–Zer ikusi behar ote dugu? Mutilak, gerra gauza tristea izango duk!

Eta besteak:

–Sasoirik onenean hil behar ote dugu ba?

Eta beste batek:

–Gure familia gogoratzen zaidak. Gure aita eta ama han egongo dituk negarrez, ni nola ote nabilen pentsaturik.

Eta beste batez, berriz:

–Nire andregaiia ere triste egongo duk, gajoa! Soldadu etorri nintzenean, elkarri musu bana emanda agurtu gintuan, eta han gelditu zuan negarrez, “ikusi arte” esanez.

Nik esaten nien:

–Jainkoak nahi duena izan dadila. Bizirik etxera etortzeko modua egin dezagula behintzat, komeni bada.

Frentean ere izan nituen lagun jatorrak, baina gehienez erdaldunekin ibiltzen nintzen. Gure eskudran ere ni bakarrik nintzen euskalduna: nafar erdaldunak, kazereñoak, gailegoak eta horrelakoak nituen.

Kuarteleko lagun gehienak beste konpainietara tokatu ziren, eta noizik behin elkar ikusten genuen, baina gutxitan; eta, ikusten ginenean, elkarri esaten genion:

–Oraindik ere, Jainkoari eskerrak, bizi gaituk, mutilak!

–Bai; hilak ere badituk makina bat. Guk behintzat bizirik etxera joateko modua izango bagenu...

–Ez zekiat ba, motel. Beldur nauk. Hemen gizonak erraz hiltzen dituk, eta gerra honek ez zeukak bukatzeko itxurarik.

–Zer egingo diagu ba? Aingeru guardakoak zaindu gaitzala ordu guztietan!

XIV

Nire lagunetako bat Zumaiako baserri batekoa zen, mutil jatorra gainera.

Bere pisua laurogei bat kilo izango zen, baina gizarajo samarra eta lotsatia zen, eta gure konpainiako festa guztiak honekin egiten ziren. Zerbait umore jarri behar zenean, haren kontura barre egiten zuten.

Gau askotan, berandu samar baldin bazetorren kuarterera, petaka deritzaion deabrukeria bat egiten zioten: bere oheko gaineko maindirea bi doble eginda jartzen zioten; eta, ohean sartzen hasten zenean, oinak ezin luzatu eta orduan denek barre egiten zuten.

Inoiz bere soineko soldadu-arropak ere gorde izan zizkioten gauean, bera lo zegoela; eta goizean, diana edo korneta jotzen zutenean jaikitzeko, bere arropak falta, eta mutila larri sarjentua etortzeko beldurrez, edo galtzontzilo hutsik konpainia guztiko oheak miatzen. Noizbait aurkitzen zituen bere arropa horiek, eta tximista baino azkarrago jantzi eta joaten zen lista pasatzera.

Beste gau batzuetan beste deabrukeria bat egiten zioten: lista edo soka luze bat lotzen zioten bere ohearen hankari, eta pasatzen zuten beste salara, eta, gauean lo gozo-gozo zegoela, tiratzen zioten sokari eta, danba!, lurrera gure zumaiarra; eta orduan denak saihetsetako mina egin arte barrez, eta bera pazientzia guztiarekin berriro ohea antolatzen.

Instrukzioa ikasten ibili zen gurekin batera, baina ez zion tankerarik ematen nola ibili behar zen ere. Eta baziren gure zumaiarraren antzeko beste mutil xeble batzuk ere. Horrelakoe-kin kaboa ernegaturik egoten zen. Hasten zen esanez:

–¡Un, dos! ¡Un, dos! ¡Hep, aro! ¡Media vuelta, ar!

Eta baziren galdetzen zutenak:

–Zer esan dik horrek?

–Ez al duk entzun buelta erdia emateko, guk bezala?

Eta berriz ere:

–¡Un, dos! ¡Un, dos! ¡Hep, aro! ¡De frente, cabeza variación izquierda, ar!

–Arraioa! Edozeinek entenditzen dik hori!

Zumaiarrak oinak oso okerrak zituen, eta asko kostatzen zitzaion ibiltzen. Botak ere berehala muturrak okertuta behetik gora begira, eta hala esaten zion kaboak:

–¡Cambia el paso tú, vasco antiaéreo, que no sabes ni andar siquiera!

Geroztik *antiaéreo* esaten zioten askok, eta gizarajoari penaren penaz negar-malkoak ateratzen zitzaizkion, berekin baitzeukan nahiko desgrazia.

Eta halako batean kaboak:

–¡Aaaaaaalto!

Eta baziren gora begira gelditzen zirenak, aireplanoren bat ote zen pentsaturik. Honelako soldaduak apartatu egiten zituzten, eta *pelotón de los torpes* izenarekin beste kabo batek ederki kostata erakusten zien instrukzioa.

Guk esaten genien gure lagun gizarajo hauei:

–Zertan ez duzue guk bezala egiten? Gauza erraza duk ba hau!

Eta zumaiarrak esaten zigun:

–Bai; nik ez diat behintzat entenditzen zer esaten duen ere; eta gainera hemen zertan gabiltzak harantz eta honantz bueltaka? Guk hemen egiten dugunak ez dik ezertarako zerbitzen. Hobe genikek geure etxeetan bageunde. Nire gurasoak behintzat hantxe ariko dituk lanak ezin eginik, eta ni hemen alfer-alferrik bueltaka.

Teorikan ere jarduten ginen egun batzuetan; eta, alferrezak zer bait galdetzen zionean, berari begira-begira gelditzen zi-

tzaion, eta orduan ere denak barre egin behar, baita alferezak ere, nahiz eta militarrek gizon serioak izan.

Zumaiar honek nirekin zuen bere konfiantza guztia; niri pena ematen baitzidan gizarajoak, eta nik ez bainuen besteek bezala haren bizkar barrerik egiten.

Nik eskola askorik ez nuen, baina berak batere ez, eta berari egiten zizkieten kartak niri ematen zizkidan irakurtzeko, eta gero neroni esaten zidan eskribitzeko.

Gure konpainiako karteroa etortzen zenean eta bere izena hots egiten zuela entzuten zuenean, karta hartu eskuan eta lasterka niregana etortzen zen, ume txiki bat karameluekin etorri ohi den bezala, pozez txoraturik, eta esaten zidan irakurtzeko berak entzuteko moduan.

Etetik bere gurasoek egindako karta baldin bazen, esaten zioten nola ari ziren soro-lanetan eta mendian garo biltzen, eta gizon-indar gutxi zeukatela, eta lanak atzera samar zeudela.

Orduan hala esaten zidan, dena kupiturik bere familiarentzat:

–A! Ni banagok ba hemen ezer egin gabe! Mesede ederra egingo niekek nik nire gurasoei etxean banengo! Gure amak ahal duen guztia lagunduko ziok aitari, baina ni han falta! Hala ere, noizbait bizirik joango banintz, hutsa huke!

Eta andregaiaren karta etortzen zitzaionean, orduan izaten ziren komeria politak! Orduan ere lasterka niregana, esanez:

–Hau neure neskiaren kartia izango dek!

Hala, zabaltzen nuen karta hori, eta baita irakurri ere berak entzuteko moduan. Eta hantxe egoten zen, ahoa xabalduta, harriturik, berari jartzen zizkion gauzak entzuten.

Gero, karta honi ordaina egin behar eta berak ez zekien eskribitzen, eta niri esaten zidan:

–Neure neskiari kartia egingo al diok?

Eta nik erantzuten nion:

–Herorrek egin iezaio!k!

Eta pena ederrarekin erantzuten zidan:

–Heuk badakik, motel, nik bezain ongi zer jarri behar zaion!
Heuk egiten duan bezala ondo zegok!

Hala, egiten nuen ahal nuen modurik egokienean karta horren ordaina, eta berari irakurri ondoren hala esaten zidan:

–Ederki zegok! Eskerrik asko, motel! Hik nola pentsatzen dituk gauza horiek denak? Neure neskia pozez txorutzen jarriko dek, gauza hauek entzuten dituenen!

Hala, gero esango dudan bezala, ni gaixotu egin nintzen eta ospitalera eraman ninduten; eta, ni han nengoela, kuarteleko nire lagun guztiak gerrara irten ziren, batzuk Gasteiz aldera, besteak Bizkai aldera, eta horrela. Eta esan zidaten, gure zumaiar hau beste soldadu batzuekin kamioi batean Madril aldera zihoala, kamioia amildu eta izterra hautsi zuela. Geroztik ez dut haren berririk.

XV

Guardiak ere egiten genituen txandaka Ciudadela deritzaion toki batean. Bertan zegoen kartzela bat, eta hemen ere guardia egin izan nuen behin baino gehiagotan, eta kartzela honetan bazeuden militar agintari gizon ospetsu batzuk preso. Hauetako bat jenerala zen.

Preso zeuden gizon hauek egunero ateratzen zituzten, banaka-banaka txandan, kartzelak bere inguruan zeukan plaza batera. Hemen ibiltzen ziren ordu-laurden batean harantz eta honantz, eta jeneral hura ere bai, bere txanda zenean.

Ateratzen zenean, beti ekartzen zuen poltsikoan ogi pusketta bat, eta txoriak zituen bere gogozko lagunak, eta hauei ogi-apurrak emanez pasatzen zuen denborarik gehiena.

Plaza irekia nola baitzen, honek zeukan jira guztian, zezen-plazaren gisan, itxitura bat harriekin egina, lurretik oin bete ingurukoa. Gure agintari militarrek esaten ziguten, preso hauetako bat ateratzen bazen itxitura honetatik kanpora, azkar esateko hiru bider sartzeko barrura; eta, ez baziren sartzen, tiroa tira eta bertan hiltzeko. Baziren ateratzen zirenak, eta guk, guardian geundenok, esaten genien:

–¡Haga Ud. el favor de entrar al centro!

Eta azkar sartzen ziren.

Jeneral hura ere ateratzen zen; eta, guk esatean, azkar sartzen zen, eta nik orduan pentsatzen nuen nire modu esanez:

–Hementxe zegok etxe askotan gertatu izan ohi dena!

Zenbait etxetan aita semearen agindupean bezala, jeneral agintari hura, gizon ospetsua izan arren, soldaduen mendean baitzegoen. Gauza penagarria benetan!

Eta kartzela honetan gau batez guardian nengoela, gaixotu egin nintzen. Paperak izeneko gaitza izan nuen, eta Alfonso

Carlos zeritzaion ospitalera eraman ninduten. Ospitale honetan zeuden gerran eritutako soldaduak.

Egun batez zerbait festa bazen, eta Donostiako Orfeoia eraman zuten, eta ospitale honetako moja batek esan zidan, ohean nengoen tokira etorrira:

–¡Hala, soldadito! ¡Levántate, que ha venido el Orfeón Donostiarra! ¡Vamos a escucharle!

Nik min asko hartzen nuen eta erantzun nion:

–No puedo, hermana; tengo mucho dolor.

–¡Ánimate, muchacho! ¡Levántate, que van a cantar también el “Gernikako arbola”!

Baina ni, nola ezin nintzen atera ohetik, pena ederrarekin gelditu nintzen gure Donostiako Orfeoi hori entzun gabe.

Ospitalean hogei bat egun igaro ondoren, sendatu eta medikuak alta eman zidanean, berriro kuartelera joan nintzen, eta nire kinto-lagun denak gerrara irtenak ziren.

Orduantxe etorri berriak ziren 37ko kintoak, eta hauei instrukzioa erakusten ibili nintzen kabo bezala. la egunero joaten ginen La Vuelta del Castillo deritzaion tokira, eta han jarduten nintzen gazte hauei zerbait erakusten.

Gero, kinto hauek instrukzioa ikasi eta frenterako moduan jarri zirenean, agindua etorri zen konpainia batek joan behar zuela Gasteizera. Hala, formatuta jarri ginen denok geure fusil, kartuxera, kapota, manta, platera, kutxara, kantinplora eta maletarekin. Motxila gero eman ziguten. Kamilleroak ere bai, beren kamillak eta tresnak hartuta. Haiek ere ematen zuten tristura ederra! Capitán Fernández zen gure konpainiako buru gurekin atera zena.

Lehen esan dudan bezala formatuta geundela, gure lagunetako bati –Goierri aldekoa zen– telegrama bat etorri zitzaion, esanez bere ama oso gaizki zegoela, azkenetan bezala, eta joateko azkar etxera. Eta guri esan zigun:

–Zer egin behar diat nik orain?

Guk esan genion:

–Hor zegok Capitán del Pino. Joan hadi beragana eta esaiok.

Joan zen eta adierazi zion ahal zuen moduan, eta hala erantzun zion kapitainak, berari bizkarretik helduta:

–Lo siento mucho y te doy un abrazo en nombre de toda esta compañía, pero en el frente se os necesita a todos.

Mutil gizarajoa negar-malkoa zeriola bueltatu zen bere tokira.

Halaxe, elurra galanki ari zuela, martxoaren 4an, atera ginen Iruñetik Gasteizera. Trenean denok kantari eta builan, nahiz barendik triste egon.

Gero ahaztu ziren kantuak ederki. Frentera joan ginenean, jendea serio ikusten zen han. Txorakeriak ahazten dira ederki, tiroak hasten direnean.

Niri egokitu zitzaidan batailoari, Batallón de Montaña Sicilia nº 8, Pamplona zeritzaion, eta batailo hori han zebilen gerran Gasteiz aldeko mendietan.

Gasteizen ere kuartel denak soldaduz beteta zeuden; non-bait ere sartu behar eta Ali izeneko eskola handi bat zegoen kuartel modura jarria, eta han zegoen nire konpainia.

Han aurkitu nituen nire lagunak, mendian beste konpainiak erreleboa egin eta egun batzuk pasatzen zeudenak, beren anaiak bezain maite zituzten zenbait lagun mendian hilda utzirik.

Ez naiz ongi oroitzen zein tokitan hartu nuen karta; baina, Iruñean edo Gasteizen, baten batek eskribitu zidan Joxe eta Antonio nire anaiak Frantziara joanak izan behar zutela. Donostia utzi zutenean, Mutrikuraino iritsi ziren, eta hemen hala esan omen zioten elkarri:

–Guk ez dugu gerrarik behar!

Eta bapore batean sartu eta Frantziara joan omen ziren, eta anaia Saturninoren etxean egon ziren denbora puxka batean

morroi bezala, gero berriz handik Espainiara etortzeko, gerra bukatu zenean.

Baina, kartan esaten zidatenez, Kaximiro euskotarrekin Bizkai aldera joana zen.

Harrezkeroztik, beti kezka horrekin ibili nintzen nire gerradenbora guztian: ea nire anaia hori nonbait aurkitzen ote nuen hilda, erituta edo prisionero eginda.

XVI

Gasteizen egun batzuk pasa eta ondorenean, gure batailoi honek izan zituen bajak berriro osatu eta orduantxe irten nintzen batailoi honetan, laugarren konpainian, nire lagunekin lehenengo aldiz frentera, Legutio inguruko mendietara.

Baziren hamabost edo hamasei autobus, soldaduak mendira eramatera etorri zirenak. Denak beteta abiatu zirenean, ematen zuen bihotzak bi parte egin behar zuela, Gasteizko kaleetako tristura ikusita. Leiho denetan zegoen jendea autobus hauei begira. Gehienak emakumeak eta haurrak ziren, eta denak negarrez ikusten nituen, “¡pobres muchachos!” esanez. Eta horrelaxe agurtu gintuzten pañeluarekin emakume bihozbera haiek, negar samin galanki ginez.

Esan bezala, Legutio aldeko mendietara eraman gintuzten; eta, mendialde haietan genbiltzala, tokatu zen Aste Santua ere.

Oroitzen naiz Ostiral Santu egunez nola gure agintariek esan ziguten egun hartan fusilak behera begira ibiltzeko. Hala ibili genituen egun guztian, eta ez genuen tiro bat bakarrik ere inon entzun.

Eta, uste dudanez, Pazko egunean, mendi haietako batean bildu ginen batailoi osoa noski, eta gure agintariek esan ziguten:

–Hoy se va a celebrar aquí misa de campaña y a ver si la oímos todos con devoción.

Mendi-gailur inguruan jarri zuten oso ederki aldare santua, eta han agertu zen apaiza, gure batailoiko kapilaua, eta eman zuen meza santua.

Ez zegoen esan beharrik debozioro entzuteko; jendea isil asko egon zen han, bakoitzak bere otoitzak eginez. Ez zen entzuten ezul txiki bat ere meza-denbora guztian.

Neroni ere gogoz jardun nintzen otoitzean, gerrate hartan Jainkoari suerte on bat eskatuz, eta baita ere mendian hilda gelditzen ziren gure lagun maite haien arimaren alde.

Hura zen edertasuna! Eguraldia ere oso ederra zen. Laino bat ere ez zen inon ikusten, eta goiz-goizetik zetorren oso eguraldi ederra, eguzkiak ederki berotzen zuela.

Eta mendi-gailurrean ikusirik meza santua ari zela, gure apaiz jauna artzain umil baten moduan, eta gu berriz arkumetalde handi baten antzera, mendi-hegal guztia soldaduz beteta, denok isil-isilik otoitzean, momentu hartan ez genuen pentsatzen ere gerran genbiltzanik. Hura zen hango isiltasuna, bakea eta zoriona! Huraxe izan zen bizitzea segundo batzuetan zeruan eta ordu askoan infernuan.

XVII

Gu joan baino lehenago, Legutioko herrian eta bere inguruko mendietan borrokaldi handiak izan ziren. Gero pasatu zuten denbora puska bat isiltasunean, tirorik egin gabe nahiz alde batetik eta nahiz bestetik.

Baina udaberri aldera ekin zioten gurek, berriro sua piztuta. Goizean hasi eta egun guztian iraun zuen erasoak. Tiroteko beldurgarri baten hotsa besterik ez zen entzuten. Hango kanoi, mortero, metrailadore, mosketoi, fusil, tanke, automobil blindatu, esku-bonba eta abiazio!

Gu gelditu ginen Legutioko inguruko mendi-txoko batean. Jarri ziren gure ondoan errenkadan *7 y medioko* zazpi edo zortzi kanoi. Agintariak agindua eman zuenean, goizeko hamarrak aldean, hasi ziren hauek tiroka Albertia inguruko mendietara, bazter guztiak puskatzen.

Gu, infanteriako soldaduok, geldirik egon ginen haiek jardun ziren arte.

Kanoi bakoitzak sei bat artillero izaten zituen: bat tiratzeko; tiro bakoitzean kanoia atzera etortzen zen eta hura aurreratzeke bi soldadu gurrpil banatan; tiroa tiratzean kanoiari trapua pasatzeko, beste soldadu bat; eta granadak batek pilatik hartu eta beste bati ematen, eta honek kanoiari sartu.

Lan hauek denak oso segundo gutxian egiten zituzten, eta horrelaxe jardun ziren denbora puska batean.

Hauek isildu zirenean, agintariak agindu zigun infanteriako soldaduo inguru hartako mendietara zabaldu behar genuela eta, bazterrak ondo miatuz, Albertia gainera igo behar zela.

Guri mendiaren beheko hegal aldetik tokatu zitzaigun pasatzea Legutio aldera. Beste batailo bat izan zen Albertia gailu-

rrera igo zena. Batailoi honetako soldaduek esan zutenez, han aurkitu omen zuten etxe moduko txabola handi bat, eta bere barrenean egosten zeuden garbantzuak, kanoikadak jo eta airean boteak omen zeuden.

Bai omen zegoen bertan neskata gazte bat hilda, eta beste bat berriz kanoikadak izterra moztuta, baina artean bizirik. Hartu anbulantziako kotxe batean eta Gasteizko ospitalera ekarri omen zuten.

Horrelaxe, batere tirorik egin gabe, hartu ziren Albertia eta bere inguruko beste mendi asko.

Legutioko fronte honetan borroka gogorak izan ziren alde batetik eta bestetik gu hara heldu baino lehen, eta gizon asko galdu zen, nola hilak hala zaurituak.

Egunez ez omen zen izaten trintxeratik ateratzerik. Ezta pentsatu ere! Kontrarioak gertu samar izaten baitziren, eta ikusten zuten guztia tira eta bota egiten zuten. Gauean ibili behar izaten zen.

Erreleboa egiteko ere, isil-isilik, batere hitzik egin gabe eta ahal zen hanka-soinurik gutxiena ateratzen zela ibili behar omen zen. Ez zen izaten argia pizteko baimenik; ezta zigarroa erretzeko ere.

Noizbait bukatu zen fronte honetako sua, eta gureek Bizkai aldera jarraitu zuten. Gure konpainia, ordea, Legution gelditu zen.

Inguru hartan bazegoen lan puska bat lur gainean denbora luzean zeuden gizon pilak lur azpira sartzen. Denak gure kontrarioetakoak ziren.

Gehienak trintxera moduko pendiza edo lubaki luze baten txokonean zeuden. Baina handik kanpora ere baziren, eta larean ere bazeuden han eta hemen tarteka nahikoak.

Ematen zuen fusilarekin edo metrailadorearekin jo eta boteak zirela; ez baitzeuden puskatuak, oso-osorik baizik.

Gero agintariek esan ziguten gorputz hauei denei lurra eman behar zitzaieela, eta han hasi ginen ahal genuen modurik onenean hildako hauek estaltzen. Beren azpiko aldean egiten genuen zulo bat, eta aitzurrarekin heldu eta buelta ematen genien, eta gero lur pixka batekin doi-doi estali.

Baziren beren oinak ondo tapatu gabe bistan gelditzen zitzaizkienak ere; hainbeste eta hainbeste izanik ez baitzegoen denak ondo tapatzeko denborarik, guk ere aurrera Bizkai aldera jarraitu behar genuen eta.

Egia esan, lantegi nazkagarria zen benetan hura. Egun asko ziren gizon haiek lurrean hilda zeudela, eta usain gaiztoa botatzen zuten, batez ere beren ondoan zulo puxka bat egin eta aitzurrarekin buelta ematean.

Egunero txandan jarduten ginen lan honetan. Baina baziren gure lagunetan etxe oneko mutilak, diruz ondo aurkitzen zirenak; eta hauek, hildakoei lur emateko beren txanda etortzen zitzaientean, dirua ematen zuten lan honetan ez jarduteagatik.

Guk ez genuen dirurik izaten, eta hantxe jardun ginen makina bat egunetan hildako denei lurra eman arte.

Lan hartan ari ginela, makina bati begiratu nion ea nire anaia ote zen. Gertatzen ginen leku guztietan egiten nuen hori. Gure kontrarioen bat ikusten banuen hilda lurrean zegoela, joaten nintzen bere ondora, nire modu esanez:

–Horretxek gure Kaximiroren antza badik! Bera ote duk?

Eta ahuspez baldin bazegoen, heldu eta buelta ematen nion; eta ikusirik bera ez zela, beste batengana joaten nintzen, eta nire modu esaten nuen:

–Hau ere ez duk ba!

Horrelaxe, makina bat hildakori buelta eman nien. Gero jakin nuenez, gure anaia ere horrelaxe ibili omen zen, pentsaturik gu ere soldadu izango ginela noski beste aldetik.

Nire lagunek galdetzen zidaten:

–Baina zer ari haiz horrela?

Eta nik erantzuten nien:

–Nik badiat anaia bat euskotar horiekin dabilena, eta begiratzen diat ea hilda dauden horietakoren bat ote den. Ez diat behintzat oraindik aurkitu. Jainkoak ez dezala nahi, baina ez huke harritzekoa izango horrelakorik gertatuko balitz ere, gu gabiltzan bezala gerra bizian ibilita. Hauxe izango huke munduan izan daitekeen gauzarik tristeena: sekula ezer izan ez dugun anaiek elkarri tiroka bata bestea hiltzea!

Gero, gure konpainia honek ere, herri honetako lanak egin zirenean, Bizkai aldera jarraitu zuen.

XVIII

Uste dut handik Otxandiora joan ginela. Hemen sartu ginenean, tristura ematen zuen. Bazirudien herri honek ez zuela bere bizilagunik. Bakardadean bezala aurkitzen zen, oso jende gutxiarekin behintzat. Nonbait bertako bizilagun gehienak Bilbo aldera joanak ziren.

Herri polita da, eta handi samarra gainera. Mendi handi batzuen beheko babesean dago.

Bere kale batzuk puskatuta zeuzkan, noizbait aireplanoek edo artilleriak botatako bonbaren batzuekin. Etxe batzuk ere bazenuden erdi erorita; hauek ere bonbekin noski.

Bertan pasa genituen hiru edo lau egun, eta han ibili ginen bazterrak ikusten.

Gogoan daukat oraindik herri honetan sartu eta lehenengo zer egin nuen. Denda koxkor bat zabalik zegoela ikusi nuenean, bertan sartu nintzen. Neskaxa gazte bat zen mostradorez barendik zegoena, eta berari esan nion:

–Jostorratza eta haria bai al dituzu?

Eta hark erantzun zidan:

–No le entiendo.

–¡Ah! ¿No entiende usted el vasco? Pues le pregunto a ver si tiene aguja e hilo.

–¡Ah, sí! En seguida le daré. Tenga.

–¿Cuánto vale?

–Nada; a los soldados no cobramos.

–Bueno, muchas gracias.

Hala, hartu nituen jostorratza eta haria poltsikoan, eta lehenengo nire lagunekin herri guztia ikusi genuen, eta gero elizako dorrera igo. Han badago balkoi moduko toki bat, eta hara igo

eta han egon ginen inguru haietako mendietara begira, “gu harako mendi haietan barrena ibili gaituk” elkarri esanez.

Zaku hondar asko zegoen balkoi honetan, kontrarioak jarririk, berorien atzetik inguruko mendietara tiroka aritzeko.

Handik behera jaitsi ginenean, nire laguneri ezer esan gabe, berriro dorrera igo nintzen bakar-bakarrik; soinean neuzkan soldadu-galtzak puskatuta baineuzkan goitik hasi eta beheraino. Bonbatxo urdin zahar batzuk denen gainetik jantzi eta haiekin tapatzen nituen azpiko kontrabandoak. Eta hantxe jardun nintzen arratsalde guztian, pazientzia ederrean nire galtza horiek josten.

Ibilera txar asko egiten baikenuen mendian, korrika gora eta behera, erori eta altxa; eta arroparik gogorrenak ere puskatu egiten ziren han.

Gero, ilunabarrean, nire lagunek harriturik galdetu zidaten:

–Non ibili haiz, motel? Arratsalde guztian ez haiz azaldu ere!

–Hor jardun nauk, dorre horretara igota, galtzak konponzen, denak puskatuta neuzkaan eta.

–Ja, ja, ja! Txukun asko konponduak izango dituk!

–Ez ziok axolarik! Lehen bezala ez duk haizerik sartzen behintzat orain. Edan dezagun basoerdi bana.

Gero tabernan ere barre puxka bat egin genuen nire galtza horien kontura, eta gero afaltzera.

Horrelaxe, berriz ere etorri zen aurrera segitzeko agindua, eta Urkiolara eraman gintuzten. Hemendik kontrarioak alde egin berriak ziren inguruko mendietara, eta hemen egon ginen egun batzuetan.

Negar egiteko gogoia ematen zuen, hango gauzak ikusita: etxe denek beren atea eta leihoak zabalik zituztela, eta horrenbeste balio zuten mueble, arropa, ontzi eta nik ahal dakit zenbat gauza, zilipurdika lurrera boteak.



Elizak ere bazeukan kanoikada bat alde batetik emana, eta gure konpainiako mandazainek eliza honetan sartzen zituzten mandoaren pentsuak eta beren apareju eta tresnak.

Eliza honetako santu denak bertan zeuden, San Antonio erdi-erdian zela; eta han jarduten ginen ni eta nire lagun asko santu hauei otoitz egiten, gerra triste hartan suerte on bat izan genezan. Batez ere San Antoniori eskatzen genion bere laguntza.

Urkiolan geundela, etortzen ziren hemezortzi aireplano bonbarderoak, guretaoak; hironaka jartzen ziren eta inguru haie-tako mendi-muturrak jartzen zituzten patata egiteko moduan gorrituta. Han izaten ziren soinuak, keak eta hautsak!

Eta hegazti handi haiek, beren "zirina" han botata, joaten ziren berriz Gasteizera, berriz ere kargatu eta beste mendi batzuetan beren "zirina" botatzera.

Beste *caza* aireplano batzuk ere etortzen ziren, eta hauek ia mendia jotzeraino jaitsi eta beren metrailadoreekin ebakitzen zituzten, oker-oker eginda, trintxera-zuloak ederki.

Gu bitartean begira, eta haxe esaten nuen nire artean:

–Hor ez duk kristaurik bizirik geldituko, tamaina horretaraino mendia puskatuta; eta, gure Kaximiro gizarajoa hor baldin bada, ez dik ederki ibili behar!

XIX

Arratsalde batez esan ziguten gure agintariek traste guztiak hartuta abiatu behar genuela. Ez dakit zein menditan geunden orduan. Ez ziguten esan nora joan behar genuen, baina Gorbeia Txiki izan zen gu joan ginen tokia.

Arratsalde gehienez joan eta joan ibili ginen. Haizea, kazkabarra eta euria galanki ari zuen, eta ederki busti eta nekatu ginen. Gauean, hamarrak alde horretan iritsi ginen, ezer ikusten ez genuela; iluna baitzegoen gogotik.

Gorbeia Txikin zegoen Navas izeneko batailoi bateko konpainia bat, eta berari erreleboa egitera igo ginen gu. Mendi honen gailurrera iritsi ginenean, Navas konpainiako soldaduak larri zeuden, eta haien agintariak ere beldurtu ziren, gu nabaritu gintuztenean, ez baitzekiten zein ginen.

Berehala hots egin zigun Navasko kapitainak:

–¡Alto! ¿Quién vive?

Eta gureak:

–¡España!

Eta hark:

–¿Qué consigna?

Gureak esan zion bere kontsigna, eta orduan bildu ziren bi agintariak elkarrengana, linterna batekin beren aurpegiak ikusten zituztela. Eta hala esan zion Navasko kapitainak:

–Pues no sabía si erais vosotros o eran los rojos, pues éste es un sitio muy peligroso y no se puede uno fiar.

Orduan esan zigun gure kapitainak:

–Subid, muchachos, que son de los nuestros.

Halaxe igo ginen gora, eta han ez zegoen txabolarik eta ezer ere. Navasko soldaduak, batzuk trintxeretan guardian eta beste

batzuk txoko batean su pixka bat egin eta haren bueltan zeuden, txandan bizkarrak berotzen.

Guri esan ziguten hurrengo egunean goizean egingo zela erreleboa, eta gau guztian hantxe egon ginen, Navasko soldaduen ondoan, euritan, hotzak, logaleak eta batere lorik egin gabe, es talpe bat ere ez zegoelako, eta goseak, zer janik ez genuelako.

Noizbait iritsi zen hurrengo goiza. Goizeko zazpiak alde horretan egin zen erreleboa. Gu trintxeretara eta beste konpainia hura behera jaitsi zen, berriz guri laguntzera azkar igo behar izan zuen baina.

Gorbeia Txiki inguru hau toki arrote samarra zen; harkaitza, otea eta arbola kaxkar batzuk besterik ez zen ageri inguru hartan guztian.

Mendi honetan bazeuden trintxera-legera egindako lubaki txiki batzuk, eta haietan jartzeko agindu ziguten gure agintariek. Trintxera haietan ura zegoen, baina, nahi ez genuela ere, lo hartzen genuen; lo-premia handia baikenuen. Gainera, ez genekien kontrarioak hain gertu zeudenik.

Goizeko zazpi eta erdiak inguru horretan, gure eskudrako kaboak hor ikusten du sekulako jende pila zetorrela Gorbeia Aundi izeneko menditik behera Gorbeia Txiki aldera, gu geunden tokira, mendi guztia betean, oihu eta deiadarka. Denek, edo gehienek behintzat, asturianoak izan behar zuten, gero berek adierazi zuten bezala.

Isiik etorri izan balira, gu denok prisionero egingo gintuzten noski, baina guri mesede handia egin ziguten builan etortzearekin; berek adierazi baitziguten nola zetozen. Nik entzun izan dudanez –ez dut behin ere edan eta–, gerra-denboran izaten omen da *asalaparapetos* izeneko patarra, eta nonbait hartatik ondo samar probatuta zetozen, sumatzen zituzten maldiziorik handienak boteaz. Tiroka hasi baino lehenago, entzuten genuen nola esaten ziguten:

–¡Viva Asturias! ¡Marchaos de ahí, hijos de...!

Gero batak besteari esaten zioten:

–¡Hala, valientes! ¡Ánimo, muchachos! ¡Vamos a por ellos, que son pocos y los liquidamos enseguida!

Eta denak korrika guregana.

Gure kabo hark azkar joan eta hots egin zien agintariei, esanez ea zer jende zen han goitik behera zetorrena. Agintariak berehala agindu zion, esanez haiek gure kontrarioak zirela eta segituan hasteko tiroka.

Halaxe hasi ginen denok, eta sekulako tiro-soinua sortu genuen. Goizean zazpi eta erdiak aldean hasi eta eguerdiko hamaika eta erdiak arte iraun zuen horrek, bi alderdietatik jendea galanki hilda.

Gu tiroka hasi ginenean, gure agintariak berehala mutil batekin abisua bidali zion Navas konpainiari, segituan igotzeko gora, artean gertu samar baitziren, eta berehala igo ziren. Eskerrak horri.

Borroka hau hasi eta berehala, hil ziren lau edo bost mutil gure lagunak, euskaldunak. Gehiago ere hilko ziren noski, nik ez banien esan pare hartan ez jartzeko.

Plateraren moduko harkaitz zabal bat zen, eta haren atzean jartzen ziren, burua bakarrik ageri zutela; ziplanean jotzen zituena balak begi-ondo inguruan, eta "ai!" bat esan gabe hilda gelditzen ziren. Bat bueltaka lurrera erori eta segituan beste bat jartzen zen haren tokian, eta hura ere berdin.

Nik, ikusirik nire burua larri eta nire lagun maiteak hiltzen, hara zetozenei esaten nien:

–Mutilak, ez zaitzete jarri hor! Ez al duzue ikusten zer gertatzen den? Hori toki txarra duk!

Eta handik aurrera ez zen inor jarri han.

Beste askoren artean ikusi genuen gure trintxera inguruan nola zetorren gizon bat galanta, fusilik gabe, esku-bonbak eta

ezpata handi bat bere eskuetan zituela. Hark bazirudien denok jan behar gintuela, baina beste asko bezala han gelditu zen hura ere oinak hoztuta.

Goizean zortziak aldean laino izugarria sortu zen inguru hartan, eta ez zen ia ezer ikusten. Laino hau oso ongi etorri zen kontrarioentzat; bertaraino etorri arte ez baikenituen guk ikusten.

Orduan hil eta eritu asko egin zizkiguten: gure kaboa han gelditu zen trintxeran hilda; kapitaina eritu zuten; tenientea eta bi alferez ere bai.

Gure kontrarioak ez ziren gelditu gure trintxeran sartu ziren arte. Trintxera hori luzea zen, mendi guztia bueltan hartzen zuena, eta alderdi batetik sartu ziren zazpi edo zortzi kontrario, eta gure soldadu-lagun batzuek utzi egin behar izan zuten trintxera hori, munizioak ahitu zitzaizkielako. Beste batzuk, berriz, gure agintari gehienak nola eritu baitziren, beren tokia uzten hasi ziren.

Baina Navas konpainia orduan iritsi zen, eta haren agintariek pistolarekin denak behartu zituzten bakoitzak bere tokia zain-tzera. Navaskoak etorri izan ez balira, kontrarioak egingo ziren Gorbeia Txikiaren jabe.

Orduan agudo alde egin behar izan zuten gure trintxeran sartu ziren kontrarioek. Itzuli abiatu zirenean, gehienak hil egin ziren.

Borroka hau txoil bukatu baino lehentxeago, han ikusten genuen berrogeita hamar bat urteko gizon bat, gure kontrarioa, erituta zegoela gure trintxeraren aurrean, eta Navasko agintariek esan ziguten:

–¡A ver: ese hombre que está ahí herido traedlo para aquí!

Hartu eta ekarri genuen, eta han utzi genuen lurrean luze-luze. Penagarria zegoen gizarajoa. Nonbait zauri txarra zuen eta ezin hilik zegoen. Bere eskuekin puskatzen zituen soinean zeuzkan arropak. Kazkabarrak eta euriak jotzen zuen aurpegian, bai-

na hala ere lurruna botatzen zuen, heriotz larritasunak ematen zion berotasunarekin. Gero, erasoak bukatu zenean, Gasteizera eraman zuten.

Hamaikak aldean hasi zuen lainoa kentzen, eta bizirik gelditu ziren gure kontrarioak orduan abiatu ziren atzeraka, berriz ere lehenago etorri ziren tokira, Gorbeia Aundira, eta hamaika eta erdiak aldean isildu zen tirotea.

Baina artean ere gu ez geunden lasai, pentsaturik kontrarioen bat egongo zela bazterren batean gordeta. Eta halaxe zen.

Gure soldadu gailego bat eta ni hantxe geunden isil-isilik trintxeran, eta gu geunden tokitik berrogei bat metrora, harkaitz baten atzean gordeta, han zeuden hiru kontrario, bat fusil-metrailadorearekin eta beste biak fusilarekin ederki armatuta.

Ez haiek eta ez gu, ezin ginen geunden tokitik atera, eta hantxe jokatu behar izan genuen gure bizia, haiek edo gu irten nagusi.

Gizon koxkorren fama dute gailegoek, baina hura oso baliantea zen. Eskerrak hari; bestela ez dakit zer egin behar genuen. Ni behintzat, bata besteari tiroka ari ginela, fusila enkasillatu eta tiroa tiratzen ez zuela gelditu nintzen. Handik aurrera nire lagun gailegoak bakarrik tiratzen zuen gure aldetik.

Baina hori baino okerragoa zen munizioak ahitu zirela, eta artean hiru kontrario horiek bizirik eta guri tiroa tiratzen. Bage nekien lehenago, presaka ari ginela, kartutxo batzuk eskuetatik erori eta gure trintxeran zegoen ura eta lokatz tartean bazirela, eta gailegoak esaten zidan:

—¡Hala, Sebastián! Ya sabes que entre el barro hay algunos cartuchos. A ver si encuentras algunos; que, si no, aquí tendremos que morir. Nos tenemos que defender sea como sea, que esos cab... no se marchan de ahí.

Nik, lokatzetan bilatzen nituen kartutxoak nire galtzetan garbi-garbi egin eta ematen nizkion, esanez:

–¡Tira con cuidado, Antonio, que quedan pocos cartuchos ya!
Eta halaxe hil zituen hirurak: lehenbizikoa bistan erori zen; beste bat joan zen hari heltzera, eta orduan berari tira eta bota zuen, eta gero hirugarrena ere noizbait hil zuen.

Gero joan ginen gizon haiek ikustera, eta han zeuden hirurak hilda. Bat agintaria zen, tenientea edo zerbait horrelako. Hark zeukan buruko kaskoa berri-berria, izugarri ederra. Rusoa izan behar zuen. Odolez pixka bat zikinduta zegoen, eta urez garbitu eta handik aurrera kasko hura neronek ibili nuen, eritu ninduten arte.

Orduan bukatu zen egun hartako tirotea. Gure agintariek agindu ziguten begiratzeko ondo inguru hartan denean eta beheko mendi-zokoetan barrena, ea kontrarioen bat gordeta zegoen edo hilda zeuden haien tartean bizirik bai ote zegoen.

Laster asko joan nintzen ni, ea gure Kaximiro han ikusten ote nuen, eta makina bat hildakori heldu eta buelta eman nion, bera zela irudituta. Han hilda aurkitu ez nuenean, berriz ere nire modu hauxe esan nuen:

–Hemen ere ez duk ba! Non ote dabil gizarajoa?

Jende asko eta asko zegoen hilda nonahi lurrian, eta hauen tartean ia hilean zeuden eritu asko ere bai. Eritu hauek hartu eta trintxeretara eramaten genituen, eta gero Gasteizera ospitalera.

Baziren eritu bat baino gehiago, “¡dadme un tiro!, ¡dadme un tiro!”, tiro bat emateko deiadarka esaten zutenak. Gauza penagarria benetan!

Hurrengo egunean, gaueko hamabiak aldean, eraso ziguten berriz ere. Denbora puxka batean jardun ginen tiroka, eta gero isildu egin ginen.

Hurrengo goizean, eguna argitu zuenean, begiratu genuen kontrario asko ote zegoen hilda; baina ez zegoen bakar batzuk besterik, eta gure aldetik ez zen inor ere hil edo eritu.



Navas konpainia eta gure konpainiatik hil eta eritu gabe gelditu ginenak, denak han egon ginen elkarrekin bost edo sei egunean.

Gorbeia Aundira begiratu eta ikusten genituen kontrarioak nola zebiltzan beren trintxera gainetan harantz eta honantz.

Metrailadoreetan zeuden gure soldaduek, agintarien agindua zuten ilunabarrero metrailadoreak probatzeko, tiro batzuk eginda; eta hasten zirenean, ta-ta-ta-ta-ta!, han ikusten genituen kontrarioak korrika. Izaten ziren baldearekin ur bila zihozenak ere, eta laster jira eta sartzen ziren beren txabola-zuloetan.

Gero Navas bertan gelditu zen, eta gu behera jaitsi ginen beste mendiren batera.

XX

Gero Dimako herrira bidali gintuzten. Lehendik gureek hartuta zeukaten herri hau, eta hemen beste konpainia bat eta gurea gelditu ginen egun batzuetan.

Dima herri koxkor txiki bat da, mendi batzuen beheko babes goxoan dagoena. Nahiz bere ingurua menditsua izan, herria bera toki alaian egina dago. Baditu bere inguruan zabaltoki ederrak, artasoro eta belaze-leku onak, eta baserri politak ere bai.

Maiatzaren hasieran iritsi ginen gu herri honetara, eta hain zuzen urteko festak maiatzeko Santa Kruzetan izaten dira herri honetan. Pentsatu genuen festa onak egin behar zirela, eta bai ederki antolatu ere.

Herri honetara etorri ginen bi konpainiak, gure batailoiko lehenengoa eta laugarrena ginen; eta gure agintariek pentsatu zuten, festek garrantzi gehiago izan zezaten, konpainia bateko atletak jarri behar zirela beste konpainiakoen kontra. Gure konpainian gipuzkoarrak asko ginen, eta beste konpainian berriz nafarrak ziren asko.

Zortzi bat egunean iraun zuten festek, eta izan genuen zeri-kusia franko: aizkolari, harri-jasotzaile, pilotari, futbolista, esku-soinu-jole, pianista, dantzari, kantore, bertsolari, korrikalari, as-to-karrera eta baita ere gizonak zakuan sartuta korrika. Apustu gehienetan gipuzkoarrak atera ziren nagusi.

Gauean inoiz egiten den amets gozo bat bezala iruditu zitzaizkidan herri hartan pasa genituen egunak. Lehentxeago mendian genbiltzan kanoikada eta tiro tartean, lurra hildako gizonenez estalirik, bazter guztietan odolezko errekek eginik, eta mutil asko eta asko zaurituak, minaren minez antsika eta negarez, urruti aurkitzen zen beren amari hoska; herriak, baserriak, mendiak eta bazter guztiak sutan erretzen eta kiskaltzen. Hain

herri baketsu eta atsegin batean sartuta, eta gainera bertan antolatu zituzten festa hain baketsu eta alaiak ikusita, bazirudien infernutik atera eta zeruan sartu ginela.

Mundu honetan ikusten dira gauza xelebreak, eta hantxe ere ikusi genituen apustu politak.

Baserri batetik ekarri zuten asto bat, eta harekin egin ziren egundoko festak. Asto-karrera jokatu behar zela eta bi konpainietako soldaduek bata bestearen kontra jokatu zuten. Kilometro bateko bidea neurtu zuten. Jarri zen konpainia bateko soldadu bat asto gainean, eta, agintariek beren erlojuak eskuetan zituztela, txalo jo zuen sarjentu batek, eta korri, astoari "arre!, arre!" esanez.

Honek joan eta etorri egin zuenean, gero beste soldadua. Lehenengo joan-etorria gipuzkoarrak egin zuen, eta erraz irabazi gainera; bigarren buelta egin zuenerako astoa oso nekatua baitzen.

Gero ehun bat metroko bidea neurtu zuten, eta erabaki zen astoaren gainean zihoanak atzera begira joan behar zuela. Hura zen polita! Astoa batera eta bestera, eta asto gainean zihoana larri. Soka bat bazuen muturretik lotuta, atzera tiran soldaduak bere eskutik zeukana, eta harekin zuzentzen zuen okertzen zenean.

Karrera honetan nafarrak jokatu zuen lehendabizi. Eginahalak egin zituen makilarekin astoa joka agudo joan zedin, eta azkar egin zuen joan-etorria.

Gero gipuzkoarrak jokatu zuen. Honek ere astoari jotzen zion gogotik, baina astoa lehen baino mantsoago, nekatuta baitzegoen. Hala, ikusirik apustua galduko zuela, eskuan zeukan makila isatsaren azpitik sartzen hasi zen, eta orduan asto gaixoa tximista baino azkarrago joan zen, eta berriz ere gipuzkoarrak irabazi zuen.

Saihetsetako mina egiteraino egon ginen gu barrez haiei begira.

Beste apustu hau ere polita izan zen. Zaku banatan sartu, gerrian lotu, eta bi konpainietako soldadu bi, hogei bat metroko bidean joan eta etorri zeinek lehenago egin. Ez zuten berehala bukatu beren lana. Saltoka-saltoka joaten ziren eta maiz erortzen baitziren lurrera. Gipuzkoarra lehertzeko zorian jartzen zen barrez, eta nafarrak irabazi zuen.

Harri-jasotzaileak ere baziren nafarrak eta gipuzkoarrak. Gipuzkoarra Azkoitiko Mendizabal izan zen, mutil jator askoa, zezenak hainbat indar zuena, baina oso umila.

Iruñean kuartelean egon ginenean ere, bera eta beste erdaldun bat ziren gure arrantxeroak, eta guk joan behar izaten genuen hiru edo lau soldadu egunero txandan hauei patatak zuritzen laguntzera, eta ez ginen gaizki izaten. Mendizabal honek beti ematen zigun eguerdian, hamaika eta erdiak alde horretan, haragi-xerra bana ogiaren tartean, eta beste baso bana edo bina ardo, eta gustura joaten ginen hauei laguntzera.

Orduan ere han ibiltzen zen, almazenean zeuden zaku patatak, zaku arrozak, garbantzuak eta harrapatzen zituen gauza guztiak bizkarrera jasotzen, bi eskuekin, batekin, eta alde guztietara bere indarrak probatzen. Guk esaten genion:

–Ai, Mendizabal! Hi ederki moldatzen haiz hemen nahiko haragia janez! Berriz ere jasoko dituk hik erraz hemengo zakuak!

Eta honela erantzuten zigun:

–Haragia jan gabe ere jasoko ditiat, bai, nik hemengo zaku hauek! Hau duk sasoia, hau!

Eta berrito, rau!, heldu eta altxatzen zuen zakua.

Eta harria jasotzen erraz nagusitu zen gure Mendizabal. Besteak bi eskuekin bezain erraz jasotzen zuen hark esku batekin, nahiz harri traketsa izan. Hari begira gustura egoten nintzen ni. Jaten baino nahiago izaten zuen hark harriarekin borrokan ibili.

Aizkora-apustua izan zen gogor samarra. Gure konpainiako mutila Bidanikoa zen, Jose Iraola, lehenago apustu bat jokatu

gerra baino lehenago, mutil handia eta indartsua gainera. Baina egun batzuk bazeramazkien gaixo eta makal samar. Berak ez zuen atera nahi plazara, baina agintariek esan zioten mesedez ateratzeko, ez zegoela beste aizkolaririk eta. Hala, atera zen kolore txuri-txuriarekin.

Nik ez dut ikusi inon han bezala dirua jokatzen. Soldaduek ere poliki, baina bi konpainietako agintariak, bata bestearen kontra, Tolosako zezen-plazan baserritarrak baino beroago eginda. Baina denak bakean, anaiak bezala, beste festetara alaisu eta baketsu jarraituz.

Jokatzen hasi baino lehenago, gure batailoiko komandante Ollok esan zuen ez zela libre aizkolariei laguntzea inolako moduz; berek bakarrik jardun behar zutela.

Gainerakoan oso gizon jatorra zen komandante hau. Baserritar baten antza ematen nion nik. Bera gizon moztaka zabal bat zen, bota horiak, traje panazkoa, lepoko pañelua eta bere txapel handiarekin. Soldaduekin hitz egiteko ere edozein kabok baino inportantzia gutxiago ematen zion bere buruari.

Baina jokatzen hasi zirenean, bera zen okerrena. Berehala hasi zen makila batekin ezpalak kentzen nafarrari; Ollo hau bera ere nafarra baitzen. Eta botilarekin botatzen zion patarra ere lepotik behera, mesede egitearren.

Bidanikoak egin zituen ahaleginak, baina erdi gaixo eta bakar-bakarrik aritu zen, eta oso gutxiz nafarrak irabazi zuen.

Bertsolariak ere izan ziren. Poliki samar kantatzen zutenak baziren. Ez naiz gogoratzen han zer bertso kantatu ziren eta bertsolariak zein herritakoak ziren, baina badakit gipuzkoarrak zirela. Neroni ere jarduten nintzen zerbait kantatzen, eta umore ederra pasatzen genuen. Baziren bertsolaritza gustatzen zitzairen nafar euskaldunak ere. Ondo samar kantatuz gero behintzat, gauza atsegina baita saio eder bat entzutea.

Kantoreek zortzi edo hamar laguneko taldea egin zuten, eta orfeoi moduan antolatzen zituzten beren kantuak. Kantore-talde hau bi konpainietako soldaduek osatzen zuten, eta bai ederki kantatu ere, nahiz elizako kantuak eta nahiz beste edozein ere. Gu behintzat gustura asko egon ginen hauei entzuten.

Baziren solistak edo bakarka kantatzen zutenak ere, baina han ez zen gure kamillero Orta baino ederragorik.

Mutil bikaina zen, nafar erdalduna, laurogei bat kilotik gora pisatzen zituena, rubio antzekoa.

Kanturako gogoia eta abildade aparta zuen. Bere eztarriak organoa zirudien. Guk zenbait garaitan izaten genuen pixka bat alaitzeko premia, eta bagenuen haren beharra. Hura kantuan hasten zenean, gure bihotzak pixka bat suspertzen ziren. Izan ere, halakoa zen hura! Beti aurpegi alaiak ikusten genion.

Urrutira ere ezagutzen genuen, kantari ari bazen. Inoiz, agintariei baimena eskatuta, joan izan zen mendi batetik bestera, beste batailoi batean zebiltzan bere nafar lagunetara; eta, handik zetorrenean, nabaritzen genuen ederki. Baita kontrarioek ere nabaritutako zuten, noski, bere kantu alaiak kantatuz nola zetorren.

Oso gogozkoak zituen jota aragonesak; baina, bera nola baitzen nafarra, jota navarrak kantatzen zituen asko. Behin hasiz gero, bukaerarik ez zuen. “Quisiera volverme yedra”, “Pamplona tiene cadenas”, “A las orillas del Arga” eta horiek denak kantatzen zituen. Beste haxe askotan kantatzen zuen:

Segadora, segadora,
¡qué aborrecida te ves!
Todo el día en el rastrojo,
agua no puedes beber.

Dimako festetan ere, bere kantore-talde batekin kantatu zuen, baina haren eztarria besteengandik nabarmena zen.

Hura zen gure penak ahaztu eta gu alaitzen gintuena, eta horrelako gizonak ez lukete behin ere hil behar!

Herri honetako jendearekin oso lagun egin ginen guztiok. Izan ere, hain leialak ziren. Berek jan behar zuten ogia, besteri emango zioten. Halakoak denak. Arropak ere emakumeek garbitzen zizkiguten. Denak familia batekoak bagina bezala bizitu ginen han egon ginen denboran, eta baziren negar egiten zutenak guk handik alde egin genuenean.

Herri honetan etxe asko zegoen hutsik, eta hauetan lo egingen genuen. Pena gauza batek ematen zidan niri: ez genuela ikusten herri honetan gure kideko mutilik. Nonbait gure kontrarioekin joanak ziren, eta bertan zegoen jendea, umeak, zahar samarrak eta emakumeak ziren.

Festa haietan genbiltzala, beste amets trakets eta beldurgarri bat zetorren nire burura: laster joan beharko genuela, alegia, berriro zerutik infernura.

Bukatu zen gure deskantsua, eta nire amets maltzur hura egiazko bihurtu zen.

XXI

Ez dakit Dimatik nora eraman gintuzten; baina, uste dudanez, handik atera eta ibilaldi izugarriak egin genituen, kontrarioak atzera eta gu aurrera.

Gogoratzen naiz egun batez ia arratsalde guztian korrika ibili ginela joan eta joan, eta tiro askorik egin gabe gainera; baina tarteka gogor samar egiten ziguten.

Arboladi handi batera iritsi ginen eta hemen hortzak erakutsi zizkiguten. Berak arbolen atzetik guri tiroka, eta gu ere beste arbola batzuen atzetik. Gu beti, pixkanaka, arbola baten paretik bestera aurrera joaten ginen, baina berak ez ziren atzera joaten.

Orduan gure agintariiek esan ziguten badaezpada ere baionetak jartzeko fusilari, halakorik gertatzen bazen baionetaz ari beharko zela eta. Esan bezala, jarri genituen baionetak fusilaren puntan, eta gu hala ikusirik ihes egin zuten.

Hala gabiltzala, gure soldadu batzuk eritu zituzten. Bati behintzat eskuko behatz bat moztu zioten tiroz, eta nire artean esan nuen:

–Horrek behintzat zauri ona izan dik. Orain ospitalera joan-
du duk, eta gutxienez behintzat oraingoz bizia salbatu dik!

Gero berriz haiek atzera eta gu aurrera. Halako batean, korrika goazela, mendi-txoko batean aurkitu genuen kontrario erdaldun bat, sasi tartean gordeta zegoela. Nonbait munizioak bukatu zitzaizkion, eta bera ere oso nekatuta zegoen; eta, ikusi zuenean ezin zela gehiago ibili, bertan gorde zen. Hain zuzen, gainera, gure tenienteak ikusi zuen nola zegoen gordeta, eta esan zion:

–¿Qué haces ahí, muchacho? ¡Salte de ahí!

Hala, atera zen sasi tartetik, etorri zen tenientearengana, eta honek esan zion:

–¡A ver cómo está ese fusil!

Heldu zion fusilari eta, ikusirik artean ere bere kanoia bero-bero zegoela, esan zion:

–¡Ah, granuja! ¿Cuántos habrás matado?

Eta hura izan zen guk egun hartan egin genuen prisionero bakarra.

Horrelaxe kilometro asko pasatu ondoren, mendi batean gogor samar jarri ziren gure kontrarioak, eta larri ginen denok ere. Tiro asko tiratzen zuten berek, eta gu ahal genuen lekuan ezkutatzen hasi ginen. Gure lagun asko trintxera moduko pendiz baten atzean jarri ziren.

Ni ere han etzanda nengoela, soldadu batek hantxe bota zuen bere burua nire oinetara. Zein ote zen eta nire lagun maite bat zen, Domingo Erkizia, Donostiako Antiguako bailaran dagoen Urrizti baserrikoa. Aspaldian elkar ikusi ez genuenak, hantxe besarkatu ginen, bi anaia maite besarkatzen diren bezala. Nik esan nion:

–Zer moduz, Domingo?

–Hementxe, motel, larri! Gaur arratsalde guztian korri eta korri gabiltzak ia batere gelditu gabe; eta orain hemen, ikusten dugunez, gure kontrario hauek gogor jarri zaizkiguk, eta hemen dituk komeriak!

Gu ginen Batallón de Montaña Sicilia nº 8, eta Domingo, berriz, América 23, eta bi batailoietako soldaduak nahastuta genbiltzan.

Gero berriz ere gure agintariek ordenatu zituzten beren mutilak, eta mendi hartan América 23 gelditu zen, eta guk eskuin aldera jarraitu genuen.

Egun hartan hala genbiltzala, makina bat aldiz gure anaia Xaximiroz oroitu nintzen, nire modu esanez:

–Gure Kaximiro ere hemen ibiliko duk ba nonbait! Hau ere marka izango duk! Beti hain elkar maiteak izan gaituk eta orain hemen elkarri okerren bat egin behar ote diogu?

Ilunarekin batera iritsi ginen baserri zahar baten ingurura. Orduantxe alde eginak ziren gure kontrarioak. Etxe ondoan baze-
goen zakar-meta bat, eta orduantxe ari zen hura ere erretzen.

Gure agintariek esan ziguten han gelditu behar genuela gaua pasatzen; zerbait jan eta baserri hartan lo egin behar genuela. Jateko ez genuen gogo handirik, egarri galanta baizik.

Batzuk jarri ginen kanpoan guardian, eta gainontzekoak baserrian lo. Ez zegoen oherik eta ezertxo ere; baina hala ere lurrean etzanda gustura lo egin genuen, fusilaren gainean burua jarrita. Ez zen tapatu behar handirik ere. Kartutxerek min ematen ziguten, ez baikenuen kentzeko agindurik, baina hala ere lo, batzuk ganbaran, beste batzuk geletan, eta baziren gustura asko ukuiluan etzan zirenak ere; ez baitzegoen ganadurik, eta lotarako premia galanta berriz.

Hurrengo goizean, bostak aldean, gure agintariek hots egin ziguten, esanez berriro aurrera jo behar genuela. Joan ginen berriz ere bide puska batean batere tirorik egin gabe, eta halako batean ikusi genuen beste mendi-hegal batean nola zeuden gure kontrarioak, eta agintariek esan ziguten:

–Hemen gelditu behar dugu.

Eta bertan gelditu zen beste batailoi bat, eta gu han inguru-ko beste mendi batera joan ginen. Bigarren linean jarri gintuzten, lasaixeago egotearren.

Hala geundela, goiz batean bagindoazen gure tokitik arrantxeriako txabolara kafea hartzeko asmoan, eta hor ikusten dugu aireplano bat urrutira, baina guregana zetorrela zuzen-zuzen.

Gu berari begira geundela, gure tenienteak begiratu zion katalajeokin eta ezagutu zuen kontrarioena zela. Berehala agindu zigun, “¡cuerpo a tierra!” esanez, geure buruak botatzeko lurrera.

Erri ginen segituan, eta gu hala ere berari begira. Halako batean hor ikusten ditugu goitik behera bonbak zetozela gure gainera. Zazpi bonba bertan bota zituen, baina gure gainera ez zen erri bat bakarrik ere. Gu baino pixka bat aurreraxeago zegoen arrantxeriako txabola, eta hantxe sartu ziren bat edo bi, eta besteak urrutiago.

Eskerrak arrantxeroak ere korrika alde egin zuela; bestela bertan txikituko zuen. Guretzako eginda zeukan kafea, bere ontzi eta guzti airean joan zen, eta lehenago ere behin baino gehiagotan egin izan genuen barau, eta goiz hartan ere bai. Inguru hartako oteek eta larreek egin zuten gosari txikia gure partez, eta gaitz erdi bonba haiek ez zutela gutako inor jo.

Toki hartan egun batzuk igaro eta gero, beste mendi batera pasatu ginen. Mendi horren beheko txokoan zabaldegi handi bat zegoen, pago-zuhaitz ederrez estalita, eta zuhaitz hauen tartean zeukaten gure artilleroek *15 y medioko* kanoi bat, beste mando mordo handi bat ere bai, eta soldadu asko.

Kontrarioek ez zituzten hauek ikusten, baina nonbait igarri zioten txoko hartan jendea egongo zela, eta morteroarekin tira zuten kanoikada bat. Gure kanoiaren ondoan lehertu zen, eta zortzi edo bederatzi soldadu kristauaren itxurarik gabe puskatu eta zuhaitz gainetara bota zituen.

Guk egin genuen eskapada latza; gu ere txoko hartara baikinidoazen, eta gu iritsi baino lehentxeago gertatu zen hori. Guk entzun genuen kanoikada, eta bagenekien hantxe bertan sartu zela; eta, gu iritsi ginenean, orduantxe ari ziren hildakoen pus-kak kamilletan jartzen, zortzi edo bederatzi kamilla errenkadan. Hark ematen zuen tristura!

Guk aurrera segitu genuen mendi-gailurreraino, eta han zegoen beste batailoi bati erreleboa egin genion. Hemen beste egun batzuk pasa genituen.



Hemen gure kaboarena esango dut. Gure eskuadrako lehenengo kabo Jose Llorente zen, nafar erdalduna, eta hau Gorcebia Txikiko borrokan hil zen. Geroztik Alfredo Alegre Cedillo zen gure kabo egiten zuena, kazereñoa bere izatez. Oso mutil fina zen; eta, gerran genbiltzala, mendi batzuetan izaten genituen txabola koxkor batzuk lotarako, eta gure kabo hau ia gauero negarrez egoten zen.

Goizean, esnatzen ginenean, nik esaten nion:

—¿Qué te pasa, Alfredo, que toda la noche la pasas llorando?

—¡Que me acuerdo mucho de mi familia, mi pare, mi mare y mi novia! ¡Estoy deseando marcharme a casa! ¡No sé cómo estará ya mi cortijo!

Eta gero, ni Iruñeko ospitalean erituta nengoela, zerbaitetara joan nintzen gure kuartelera, eta han ikusi nuen gure kabo Alegre hori, sarjentu eginda zegoela, ofizialen gelan. Han egon ginen hizketan eta nik esan nion:

—¡Hombre! ¿Tú también por aquí, Alfredo?

Eta erantzun zidan:

—Sí; he ascendido a sargento y me va gustando cada vez más la vida militar, y aquí estamos.

Lehenago etxera joateko amorratzen zegoen, eta gero bertan reengantxatu.

XXII

Gure agintariek esan ziguten bazegoela beste herri bat, Igorre izena zuena, gure kontrarioen mende zegoena, eta huraxe hartu behar genuela. Agintariek erabaki zuten gure konpainia zela herri hori hartu behar zuena, eta hala irten ginen gu Igorre aldera.

Pinudi handi batzuetan barrena gindoazen. Orta, gure kantore bikain hura, bidean kantari zihoan gizarajoa, eta kapitainak esan zion:

–Oye, Orta: está bien que vayamos de buen humor, y lo mismo que a tus compañeros me encantan también a mí tus canciones; pero por si acaso más vale que vayamos callandito, sin que nos sienta el enemigo.

Eta horrelaxe isildu zen betiko.

Kapitainarekin gu hamabost edo hogeit bat euskaldun ginen aurre samar gindoazenak. Maiatzaren hogeita laua zen, eta bero ikaragarria gainera.

Bide erdian bezala, aurkitu genuen hirurogeita zortzi edo hamar bat urte zituen gizon zahar bat, euskaldun bizkaitarra, handik hona bidez bide zetorrena.

Kapitainak zenbat eta zer jende zegoen jakin nahi zuen, eta hasi zitzaion zer edo zer galdetzen. Baina aitona zahar hark ez zekien erdaraz mintzatzan, eta gure kapitainak ere ez euskaraz, eta honela esan zigun orduan:

–¡A éste no se le entiende nada! ¡A ver si hay algún vasco que pueda hablar con este señor!

Orduan guk galdetu genion:

–Zer dugu, aitona? Nora zoaz?

Eta erantzun zigun:

–Hona zuengana! Hor ez dago bizitzerik! Hor ez dago bizitzerik!

–Zer ba?

–Zer ba? Beste askori bezala, niri ere ostu dizkidate etxean nituen behiak, txahalak, oiloak eta gauza guztiak! Aspertu naiz jende horrekin bizitzen eta zuengana nator!

Kapitainak esan zigun galdetzeko ea lgorre herri hartan jende asko zegoen, eta gizon zahar hark erantzun zigun:

–Ez dago inor herri horretan! Alde egin dute denek, beren kanoi eta gerrarako tresna guztiak hartuta, beste mendiaren atzera! Bake ederra utzi dute!

Aitona zahar hark ernegatuta bezala erantzuten zuen, baina hala ere gure kapitainak ez zituen sinesten hark esandako gauza guztiak, eta ez zuen arrazoiaren faltarik. Guri esan zigun gerra-denboran tranpa asko izaten zela, eta galdetzeko berriro:

–Hay que preguntarle de nuevo.

Hala, berriz aitona horri galdetu genion:

–Aizu, aitona: ea egia den zuk esaten duzuna, hor ez dagoe-la inor herri horretan.

–Horixe! Ez zarete fidatzen? Ez zarete fidatzen? Neu joango naz aurretik! Ez bazarete fidatzen nik esandakoarekin, eta herri horretara bazoazte, neroni jarriko naz zuen aurretik, eta erakutsi eta lagunduko dizuet!

Kapitainari esan genion, eta hark:

–¡Muy bien! ¡Que se ponga!

Ez zitzaion gaizki iruditu gizon hori gure aurretik jartzea. Esan zigun horrelaxe joango ginela ederki; gizon hark jakingo zuela hango berri, eta beti ere mesede egingo zigula.

Horrelaxe joan ginen bide guztian: gizon zahar hori gu baino hamar bat metro aurrerago zela, eta gu fusila bizkarrean konfiantza osoan.

Baina baserri bat zegoen herrira iritsi baino pixka bat lehen-txeago. Hemen nabaritu genuen ehiza-zakur bat zaunkaz ari zela. Ateak eta leihoak itxita zeuden, eta nik esan nien nire lagunei:

–Mutilak, seinale txarra duk hau! Hemen ez dagoela inor, e? Zakur honen nagusia etxe honetatik joan izan balitz, ehiztariak hain maite izaten duen bere txakurra ez zuen etxe barruan ahaztuta utziko!

Herri guztia isil-isilik zegoen; eta, herrian sartzen hasi ginen momentuan, aitona hori, rau!, ezkutatu egin zitzaigun herriaren sarreran zegoen etxe batean.

Eta hura ezkutatu zenean, zabaldu ziren herri guztiko leihozuloak, eta denak fusilekin eta metrailadoreekin ikusi genituen.

–Oraintxe egin diagu lan ederra! –esan genuen.

Ekin zioten alde guztietatik gure kontra tiroka. Balazoak kazkabarra bezala zetozen. Gu denak bistan ginen, eta bakoitza ahal zuen tokira ezkututzen hasi ginen.

Maiatzaren bukaera zen eta herri honek bazeukan bere inguruan gari-sail handi bat, eta gure soldadu-lagun asko eta asko gari-tarte honetara sartu ziren, kontrarioek ez ikustearren.

Baina hauek ederki ikusten zuten gari-sail hura nola ari zen jendez betetzen, eta halako batean hasi ziren metrailadoreekin tiroka. Gari guztia segarekin bezalaxe moztu zuten, eta hantxe gelditu ziren nire lagun asko hilda. Bertan egon behar izan zuten hogeita bi egunean, ez gure aldekoek eta ez bestekoek hartzerik izan ez zelako.

Batzuk herri inguruan zabaldu ziren, eta beste batzuk berriz etxe baten atzean gorde ginen. Batzuek esaten zuten:

–Hemen gaizki gaudek, eta atera egin behar diagu hemendik!

Baina behin handik ateraz gero, ez zegoen ezeren babesik, dena garbi baitzegoen; eta ateratzen ziren denak, han hil edo eritzen ziren. Eta jakina: haiek hala ikusita, besteak bertan gelditu ginen.

Baina gure sarjentua ere han zegoen, eta hala esan zigun bere pistola handia erakutsiz:

–¡Hala, muchachos! ¡Hay que salir de aquí enseguida a luchar!
Hala, pentsaturik hantxe izango zela nire azken ordua, Jainkoari otoitz egiten hasi nintzen:

–Jesus, Jesus! Lagun iezaguzu ordu larri honetan!

Hori esanez atera nintzen ni handik. Ikusi nuen etxetik hamabost bat metrora nola zegoen aran-arbola zahar bat, eta haretxen ipurdian gorde nuen nire burua. Burua maite noski!

Nik tiro bat tira nuen, ez dakit nora; baina oinak nonbait bistan gelditu ziren, eta berehalaxe eman zidaten, tak!, oin batean. Begira jarri nintzen eta, tak!, bestean.

Tiro batekin, nola baitzen *bala explosiva* izenekoa, ezkerreko oinaren erdia puskatu eta zintzilik utzi zidaten; beste tiroarekin eskuineko zangoan ebaki edo zauri luze bat egon zidaten.

Segituan abiatu nintzen ipurdiaren gainean arrastaka-arrastaka eta fusilaren arrimuan, odol-arrasto handia lurrean egiten nuela.

Ez dakit bitartean zenbat bala sartu zen nire inguruan. Arropa guztiak lurrez bete zizkidaten behintzat. Milagroa dela dirudi, baina nonbait Jainkoak ez nahi eta ez ninduten gehiago jo.

Eta deiadarra egiten nuen esanez:

–Ez al dago inor ni hemendik aterako nauenik? Ez al dago inor ni hemendik aterako nauenik?

Deiadarra euskaraz egiten nuen. Orduan ez nintzen oroitzen erdara zenik ere.

Eta kapitainak oihu handi bat egin zien kamilleroei, esanez:

–¡A ver: ese muchacho está muy mal y llevadlo ahí arriba!

Etorri ziren korrika Orta kantorea eta Agorreta zeritzaion beste bat. Hartu eta jarri ninduten kamillan. Baina altxatzen hasi zirenean, haietako bat, Orta, jo zuen bala batek kopetan eta bertan gelditu zen hilda, “ai!” bat ere esan gabe.

Agorretak, hori ikusi zuenean, azkar alde egin zuen korrika ahal zuen tokira, ni bertan utzita.



Niri beldurrik handiena ematen zidan kontrarioak ari zirela etxeetatik ateratzen, eta pentsatzen nuen hauek harrapatzen baninduten bizia ere kenduko zidatela. Berriro ere deiadar egi- ten nuen:

–Ez al da hor inor ni aterako nauenik?

Honetan etorri zen korrika sarjentu bat, ondarrutarra, mutil handi bat, eta esan zidan:

–Zer egin ditek, Salaberria?

–Ez naizela gauza ibiltzeko eta hemen direla!

–Nik eramango haut!

Hartu ninduen bizkarrean eta abiatu zen. Pinudira iritsi bitar- tean, atzetik tira eta tira aritu zitzaizkigun, baina ez gintuzten jo.

Nik odol-isuri handia neukan nire zaurietatik eta bere arro- pak nire odolarekin zikindu nizkion; baina ez zen haserretzen, eta berari zor diot bizia.

XXIII

Pinudi hartan aurkitu genuen kapilau bat, eta hark egin zidan lehendabiziko sendaketa.

Gero, kamillan hartu eta goiko tontorrera igotzen hasi ninduten. Hala, pinudi hartan behetik gora gindoazela, guri lagunzera zetorren beste konpainia bat topatu genuen.

Kontrarioek, ordea, tira zuten kanoikada bat, eta soldadu asko zegoen tokira erori zen granada, eta soldadu asko hil zituen; mandoak ere bai. Gizonen puskak arbolen gainetan ikusten ziren, eta beste asko eritu eta garrasika. Ematen zuen azken juizioko eguna zela. Bazter guztiak erretzen ari ziren, eta lurra berriz hilez eta erituz estalia.

Gure konpainiakoak gutxi izan ziren bizirik geldituak. Gehienak hil egin ziren, eta bizirik gelditu ginenak ere erituta.

Beste konpainia gehiago ere etorri ziren gure aldekoak, eta egun guztian tiroka jardun ondoren ilunabarrean isildu omen zen tiroteoa, eta hantxe egon ziren makina bat egunean isilisilik, kontrarioak herrian eta gureak pinudian. Gero, agintariek herri hori hartzea pentsatu zutenean, tiro bat ere egin gabe hartu zuten. Ez omen zegoen inor herri horretan. Denak alde eginak omen ziren.

Goiko tontorrera iritsi ginen, eta hemen zegoen *puesto de sanidad* deritzaiona. Hemen zeuden medikuak eta denak.

Mando mordo bat ere bazegoen, eta teniente mediku batek esan zuen gutxieneko hiru edo lau ordu behar zirela beheko kamiora jaisteko, eta mando horietako baten gainean jarri eta jaitsiko nindutela. Honelaxe esan zuen:

—A éste que le bajen en un mulo.

Eta nik erantzun nion mediku hari:

–Perdone, mi teniente: todavía quiero vivir. He perdido mucha sangre y si me ponen en un mulo me quedaré sin nada.

Alegia, barkatzeko mesedez, baina oraindik bizi egin nahi nuela ahal bazen, eta ez nintzela mandoaren gainean jarriko; lehenago odol asko isuri nuela, baina mando haren gainean jartzan banintzen, dinbili-danbala ibiliko zela mandoa, eta gelditzen zitzaizkidan odol pizarrak zaurietatik berehala aterako zirela, eta neroni batere konturatu gabe hilda geldituko nintzela.

Orduan jarri zizkidaten bi kamillero. Hartu ninduten kamillan eta gomarekin oso estu lotu zizkidaten oinak, zauriak baino goraxeagotik, odolik irten ez zedin.

Baina mendi horietan zehar ninderamatela, aguantatu ezin halako mina ematen zidaten goma haiek. Nik pixka bat askatu edo lasaitu egiten nituen, eta orduan berriro hasten zen odola irteten.

Kamilleroek, haserreturik, errietan eman eta lotu egiten zidaten, esanez:

–Goma horiek askatzen badituk, hilda geldituko haiz odol dena balduta!

Min ederra ematen zidaten, baina ez nuen gehiago gomarik ukitu.

Nik ez dakit egun hartan bero handia egiten zuelako edo nire zauriek ematen zidaten heriotz larritasunagatik edo zergatik, baina nik egarri ikaragarria nuen.

Mendi haietan nonahi zegoen ur ederra, eta nik beti nire kamilleroei ura eskatzen nien. Ontzi bat bazuten *kantinflora* izenekoak, gerrian zintzilik ibiltzen zutena, eta hantxe ematen zidaten. Pozik asko edaten nuen!

Mendi-bide haietan gindoazela, gure kontrarioek tiratzen zituzten kanoikadak *15 y medio* izeneko kanoiarekin, eta bazi-ren gure buruaren gainetik urruti gabe pasatzen ziren granadak. Halakoetan kamilleroek, plast!, lurrera botatzen ninduten nire

kamilla eta guzti, eta berak ere gurdibidearen txokoan etzaten ziren, granadak jotzeko beldurrez.

Gero, berriz ere hartu eta segi egiten zuten, beheko kamiora iritsi ginen arte.

Hemen egon ginen anbulantziako kotxe bat etorri arte. Kamio honetan bazegoen soldadu mordo bat, eta hauen artean nire lagun oiartzuar bat, beste konpainia bateko arrantxeroa. Ni hala erituta ikusi ninduenean, harriturik galdetu zidan:

–Zer egin ditek, motel?

–Oinak elbarritu zizkidek eta zutik ezin nauk egon.

Eta gizarajoak, nitaz urrikaldurik, esan zidan:

–Zerbait jateko gogoia bai al daukak? Bazeuzkaat lukainka, urdaiazpiko, arrautzak, haragia, kafea, koñaka eta denetik.

Baina nik beti gauza bat eskatzen nuen: ura!

Nire erantzuna haxe izan zen:

–Emadak mesedez ura!

Eta halaxe ekarri zidan botila batean ur fresko ederra eta gustura asko edan nuen; huraxe bakarra baitzen une hartan nire gorputzak eskatzen zuena.

XXIV

Etorri zen noizbait anbulantziako kotxea, eta nire moduko beste bost edo sei eritu sartu eta eraman gintuen Gasteizera. Hemen bazegoen Primer Hospital de Sangre izenarekin etxe berri handi bat, berez apaizgaiantzat egina, eta hara eraman gintuen.

Mahaian operatzeko jarri nindutenean, galdera hauek egin zizkidan medikuak:

–Nongoa haiz, gazte?

–Ni Donostiakoa.

–Donostiakoa? Ni ere hangoa nauk ba, hemen nagok zer-bizioz baina.

Donostiako don Inazio Urbina izena zuen mediku ospetsua zen.

Gero galdetu zidan:

–Zer egin ditek mendi alde horietan?

Eta nik erantzun nion:

–Ez dakit ba, jauna, ondo esateko; baina oinak ditut elbarrituak.

Eta ezkerreko oina, nola baitzegoen puskatu eta zintzilik, berari eskuarekin helduz galdetzen zidan:

–Eta honi zer egin behar diogu?

–Horri zer egingo dio? Moztu!

Eta berak:

–Motel, motel! Zer esaten didak? Makina bat operazio egin ditiat nire denboran; baina oraindik ez zidak inork esan mozteko konturik, prueba egin behar dela baizik.

Eta nik erantzun nion:

–Prueba egiten zertan hasi behar dugu, dena puskatua dago eta?

Halaxe, ezkerreko oina moztu eta eskuineko zangoa hamahiru punturekin josi zidan.

Operatzeko nola kloroformoa eman zidaten, ohera eraman nindutenean, ni ez nintzen konturatzen non nengoen; ezta operatu bazidaten ere. Niri iruditzen zitzaidan oina moztu egin zidatela. Goata eta trapu asko baineukan eta ez bainion antzematen. Eskua pasatzen nuen eta nire modu esaten nuen “niri oina moztu egin zidatek!”, eta negar egiten nuen.

Don Inazio Urbina mediku jaun hau oso gizon jatorra eta atsegina zen. Noiznahi etortzen zitzaidan bisita egitera, ohean nengoen tokira. Hantxe egoten zen ohearen gainean eserita, kontu kontari, zerbait falta al nuen esanez.

Nik eskatu nion pañelu bat ea mesedez ekarriko zidan, eta bi ekarri zizkidan berri-berriak; eta, “eskerrik asko” esanaz, nik galdetu nion:

–Nik oina moztua al daukat?

Eta erantzun zidan:

–¡Qué va! Nola izango duk ba oina moztua? Behatzak eta denak hor dauzkak!

Hala, isilik gelditzen nintzen; baina berriz ere ez nengoen lasai, eta etortzen zenean galdetu egiten nion, nik jakin nahi nuela oina nola neukan, eta esateko mesedez egia. Orduan esan zidan:

–Begira: batzuek ez ditek nahi izaten esatea; baina hik desio hori baldin baduk, esango diat: oina moztuta daukak. Neronek moztu nian, eta oso ederki jarrita daukak, eta hori azkar sendatuko duk. Egon hadi lasai!

Baina hark hura esan zuenean, ni berriz ere negarrez.

Egun batez ospitale honetara etorri zen gizon agintari jaun bat, eta galdetu zizkidan izen-apelliduak eta nongoa nintzen. Esan nizkion, eta hala joan zen.

Ospitale honetan egun batzuk igarota, ni nengoen salako mojak esan zigun eritu denoi agindua zela ohetik jaikitzeke gau-

za ginen guztiek Iruñera joan behar genuela, frentetik eritu asko zettorrela eta haientzat lekua izan zedin.

Ni operatzeko mahaian jarri nindutenean, guraizearekin soinean neuzkan arropa denak goitik hasi eta behearaino moztu egin zizkidaten, eta ez nuen gehiago nire arroparik ikusi. Galdetu nien behin baino gehiagotan ere, baina ez omen zituzten aurkitzen.

Mojak esan zidanean Iruñera joan behar genuela, nik erantzun nion nire amak mundura ekarrita bezala nengoela, eta zer-bait beharko nuela jantzeko.

Orduan erantzun zidan, “gizarajoa!” esanez, gure sala hartan bazela falangista bat gauean hila, eta hari kenduko ziola buzoa eta harekin jantziko nintzela.

Hantxe egin genuen, erdarazko esaera batek dioen bezala, “desnudar a un santo para vestir a otro”; eta buzo hori jantzita aldatu nintzen, beste eritu askorekin, guretzat jarritako tren berezi batean, Gasteiztik Iruñera, Hospital Militarerra.

Lehen esan dudan agintari jaun hark, ez dakit nola, baina abisu txarra bidali zuen gure etxera, esanez alegia bi oinak gerran moztuak nituela eta oso gaizki nengoela; eta, bizirik ikusi nahi baninduten, azkar joateko.

Abisu hori hartu eta hurrengo egunean, goizeko trenean sartu eta joan ziren Gasteizera nire bi anaia, Rikardo eta Polikarpo. Iritsi omen ziren noizbait herri honetara, eta joan omen ziren ni nengoan ospitale hartara.

Ni nengoan salak Nuestra Señora del Pilar zuen izena. Sartu eta “lehenengo ohea”, horrela nire galdera egin omen zioten sala hartako mojari, eta erantzun omen zien bere eskuko behatza luzaturik:

–Hori da sala honetako lehenengo ohea, eta hortxe dauka zuek behar duzuen soldadu eritua.

Eta nire anaiek erantzun omen zioten:

–Hori ez da gure anaia.

Eta mojak:

–Ez dakit ba nik nor izango den zuen anaia. Sala honetan lehenengo ohean baldin bazen, honek izan behar du; edo, bestela, hainbeste hiltzen da hemen egunaren buruan eta, hila izango da.

Ospitale guztia jira omen zuten behetik hasi eta goraino; eta, aurkitu ez nindutenean, berriz ere hain triste nire bi anaiak etxera. Ni, berriz, bezperan Iruñera etorria nintzen. Gasteizko ospitale hartan nola erotzeko hainbat lan zegoen horrenbeste jende eriturekin, moja hura ez zen konturatu egiten Iruñera bidali bagintuzten ere.

Nik, Iruñera iritsi bezain laster, egin nituen bi letra etxera, nire anaiei esanez non eta nola aurkitzen nintzen. Berehalaxe etorri ziren nire bi anaiak, eta ohearen ondoan negar eginez esaten zidaten:

–Bizi al haiz, motel?

–Bai, mutilak; ikusi ditiat komeria ederrak, baina oraindik ere bizi nauk.

Eta Rikardok esaten zidan:

–Bai, motel; Gasteizen izan gintuan lehengo egun batean, eta ospitaleko mojak esan ziguan seguru asko hila izango hintzela, eta pena ederrarekin joan gintuan berriz etxera.

Eta berriro lepotik heldu eta negar eginez esaten zidan:

–Pozaren pozez txoratzen gaudek, motel, hi bizirik ikustearekin. Gure Jainkoak nahi dezala lehenbailehen sendatu eta etxera joatea.

Eta halaxe joan ziren berak etxera.

XXV

Iruñean pasa nituen lau bat hilabete, nire zauriak sendatu ziren arte. Hemen suerte ona izan nuen. Baziren oheak *madrina de guerra* izeneko emakumeek beren kontura hartzen zituztenak; eta ni nengoen ohearen madrina Nafarroako Diputazioko Presidente jaunaren emaztea zen. Horregatik, han egon nintzen bitartean, niri ez zitzaidan ezertxo ere falta izan, nola jateko, edateko eta janzteko.

Andre honek bazeuzkan ospitale honetan, ni nengoen salan bertan, bi alaba beren borondatez gaixozain zerbitzen zebiltzanak; eta, ni ospitale hartara etorri eta hurrengo goizean, ni nengoen ohea antolatzerara etorri zirenean, bi neskaxa hauek esan zidaten mesedez jaikitzeo pixka bat, ohea egin arte.

Nik, ordea, Gasteiztik ekarri nuen buzoa oherakoan kendu egiten nuen, eta berriro ere nire amak mundura ekarrita bezala aurkitzen nintzen, eta lotsaturik esaten nien ea ezin al zuten antolatu ohe hura neroni bertan nengoela, eta esaten zidaten:

–Zer ba? Min handia al daukazu?

Eta nik orduan esan egin behar nola aurkitzen nintzen, eta esan zidaten oso kupiturik:

–Gaur etxera joaten garenean, esango diogu gure amari zu nola aurkitzen zaren.

Hurrengo goizean, ohea antolatzerara etorri zirenean, esan zidaten beren amak esan ziela galdetzeko niri zer behar nuen. Ni, berriz, lotsatu egiten nintzen ezer eskatzea; eta, aditu zutenean ezer ez neukala soinean janzteko, han ekarri zizkidaten sekulako gauzak: bi galtza pare, bi alkandora, barrengo arropa zuriak, galtzerdiak... Zapatarik ez zidaten ekarri, jantzi ezin nuelako; baina bai bastoi eder bat, tinta, pluma, paperak eta sobreak, kartak eskribitzeko.

Gero, neskatxa hauei esan zien beren amak koltxoi baten gainean baino hobeto egongo nintzela biren gainean, eta jar-zeko bigarren koltxoa niri. Hala jarri zidaten, eta markes bat bezain ongi zaintzen ninduten ospitale honetan.

Andre hura, berriz, jaiero etortzen zitzaidan bisita egitera, eta gehienez bazkalorduan etortzen zen. Beti ekartzen zizkidan dozena-erdi bat pastel kremazkoak, botila bat edari on eta puru eder bat; eta, nik bazkaltzen nuen arte, hantxe egoten zen ohearen ondoan eserita.

Niri gerrako kontuak galdetzen zizkidan; nik esaten nizkion, eta biok hantxe, ama-semeak izan bagina bezala, kontu kontari jarduten ginen.

Ospitale honetan poliki jaten genuen; baina andre honi janari ahul samarra iruditzen zitzaion niretzat, eta bertako buru egiten zuen mediku jaunari hots egin eta esan zion nik odol asko isuri nuela nire zaurietatik, eta argal nengoela, eta emateko niri egun batean haragia eta bestean oilaskoa, indartu nendin.

Horrelaxe pasatu nituen egun eder franko, andre on hura eta bere alabak zirela medio. Diru askorik ez nuen izaten, baina bai jan eta jantzi bapo.

Gure dibertsioa pilota-partidak ikustea izaten zen. Egutero, bazkalorduan, etortzen zen teniente medikua sala guztietara, zinerako eta frontoirako sarrerekin. Niri beti zinea baino gehiago gustatu izan zait pilota, eta frontoirako sarrera hartzen nuen.

Joaten nintzen Euskal Jai izeneko frontoira, eta hantxe ikusten nituen hiru partida, eta arratsalde ederra pasa eta berriz ere ospitalera ilunabarrean.

Garaiz samar afaltzen genuen, eta gero kartetan edo jokoan jarduten ginen, beste batzuetan irratia entzuten, eta gero lotara.

XXVI

Iruñera etorri eta handik denbora puska batera, egun batez pozez txoraturik zebiltzala ikusten genituen ospitaleko medikuak, praktikanteak, mojak eta gainerako denak. Nik galdetu nion salako mojarri:

–¿Qué pasa, hermana? Veo que están todos muy contentos.

–¿No te has enterado aún, soldadito? Pues estamos de enhorabuena. Las tropas nacionales han tomado ya Bilbao.

Lehendik ere bagenekien, irratiak esanda, Bilbo inguruan zebiltzala gure soldaduak. Baina nire barrenak eman zidan buelta ederra, hori entzun nuenean.

Irratiak eta periodikoek esaten zuten prisionero asko egin zutela Bilbon sartu zirenean; eta pentsatzen nuen gure Kaximiro hantxe harrapatuko zutela, eta beharbada hil ere egingo zutela, eta beti gauza horrekin pentsatzen egoten nintzen.

Eta egun batez, gutxiena pentsatzen nuen garaian, nire ohearen gainean eserita zerbait irakurtzen nengoela, han ikusten dut atean gizaseme bat sartzen dela. Jartzen naiz berari begira, eta zein izango eta Kaximiro!

Berak ere berehala ezagutu ninduen, eta etorri eta heldu zidan lepotik. Hasi ginen biok negarrez, eta elkarri zer esan asmatu ezin genuela egon ginen pixka batean, aurpegiak pareta baino zuriago eginda pozaren pozez.

Gero noizbait hasi ginen hizketan, eta galdetu zidan:

–Zer zauri klase dituk?

–Hara, motel, gerrak zer aurrerapen dituen: tiro batekin eskuineko zangoan zauri luze bat egin zidatean, eta beste tiroarekin berriz ezkerreko oina puskatu eta zintzilik utzi, eta orain moztuta zeukaat.

Berriro galdetu zidan:

–Non eritu hinduten?

Eta nik erantzun nion:

–Igorre izena duen herri batean.

–Igorren? Zein egunetan?

–Maiatzaren 24an, eguerdiko ordu bata inguruan.

Eta gizarajoak, negar samina eginez, bizkarretik heldu eta erantzun zidan:

–Orduan, hire oin horiek jo zituzten balak neronek tireak izango dituk!

–Herorrek tireak? Zer ba?

–Bai; neronek tireak! Atake hartan ni ere han ninduan!

Eta, lepotik helduta, bere begietako malko saminekin nire aurpegia bustitzen zuen.

Nik esaten nion:

–Zer egingo diagu ba, motel? Jainkoak hala nahi eta honek honelaxe beharko zian. Ez ezak pentsa gauza honengatik nik hiregana gorrotorik daukadanik. Badakik gu beti elkar maiteak izan garela, eta gaur ez lehen baino gutxiago.

Baina hark berriz ere esaten zuen:

–Bai; baina neronek tireak izango dituk!

Eta nik:

–Ez ezak negarrik egin, motel! Nik ez zeukaat hiretzako eta inorentzako inkurriorik! Bazekiagu gorrotoagatik ez garela ibili elkarren kontra!

Hark, ordea, beti gauza bera esaten zuen:

–Neronek tireak izango dituk!

Eta nik esaten nion:

–Zer egitea nahi duk ba? Hau honela etorri duk! Hau honela etorri duk eta honela hartu behar!

Horrela jardun ginen denbora puska batean. Gero esan nion:

–Poz handia hartzen diat hi nire aurrean ikusita. Hila izango haizela ere pentsatu baitiat behin baino gehiagotan, eta ez huke pentsatuko nire bihotzak zer lasaitasun daukan hi bizirik hemen ikustearekin. Mendialde horietan gerran ibili garenean ere, borrokaldia bukatzen zenean, makina bat gudari hilda lurrean etzanda zeudenei heldu eta buelta eman izan zioat, hi haizela irudituta.

Eta esan zidan:

–Bai; neronek ere hori bera egin izan diat makina bat aldiz, zuetako bat ote zen beldurrarekin.

Gero galdetu nion:

–Eta hi, non barrena ibili haiz gerra-denbora horretan?

–Niri, nafarrek Donostia hartu zutenean, nire lagun batzuek esan zidatean euskotarrekin joan behar genuela Bilbo aldera, eta halaxe joan gintuan. Geroztik hor ibili gaituk Bizkai alde horretan. Borrokaldi gogorrek jo ditiagu; baina beti gu atzera, harik eta Bilbo galdu genuen arte. Eta, beste asko bezalaxe, ni ere hantxe prisionero egin ninditean; eta handik, prisionero-talde handi bat hartu eta denok Zaragozako *campo de concentración* batera eramán gintiztean. Ni hara joanda, berehala pentsatu nian: “Nire lantegiko nagusiari, don Antonio Mendizabali, eskribitu behar zioat karta bat, esanez nola preso aurkitzen naizen Zaragozan, eta ea berak zerbait egingo lukeen niregatik”. Egin nioan karta hori, eta berehalaxe bere kotxearekin joan zuan Zaragozara, eta ekarri nindian etxera, Donostiara. Eta jakin dudanean hi erituta Iruñeko ospitalean hagoela, berehalaxe etorri nauk hi bisitatzera. Eta zer moduz hago orain? Minik bai al daukak?

–Orain ez. Operatu berrian bai, izan nitian oinaze galantak; baina orain ez zeukaat behintzat minik. Oina falta dudala, horixe.

–Bai; hori ni naizela medio moztua izango duk hik.

Eta berriz ere negar egiten zuen, eta nik esaten nion gauza hori burutik kentzearren:

–Zer egingo diagu ba, motel? Bizi gaituk behintzat oraindik, eta makina bat badituk betiko beren oinak hoztuta gelditu direnak mendialde horietan. Gu ere keja gaituk, baina haien etxeetan ere zerbait esango ditek. Makina bat guraso egongo dituk bazterretan negarrez, “horretarako hazi al ditugu gure haurrak, beren sasoirik ederrenean hiltzeko?” esanez. Baina ondo pentsatzen jartzen bagara, konformatu beharra zeukaagu; gerrak honelakoxe nahigabeak eta ezbeharrak ekartzen ditik familietara. Jainkoak ez dezala ni bizi naizen arte gehiago gerrarik sortu, eta gero ere ez nire partetik!

Horrelaxe, hitzaldi luze bat elkarrekin egin ondoren, agurtu zen bere begiak pañeluarekin lehortuz, eta etorri zen Iruñetik etxera, Donostiara.

XXVII

Gero etorri zen agindua ospitale honetako eritu mordo bat Tuterako ospitalera eraman behar zela, eta halaxe autobus batzuetan sartu eta eraman gintuzten.

Herri honen inguruan mahasti handiak dira, eta, joan gineanean, orduan ari zen emakume-talde handi bat gizonezko batzuekin mahatsa bildu eta bildu. Gure autobus denak geldiarazi egin zituzten, eta han ginen eritu guztiei nahiko mahatsa eman ziguten. Eta halaxe, mahatsa janez, jarraitu genuen, Tuterako herrira iritsi arte.

Sartu ginen herri honetako ospitalera, medikuek eta mojek egin ziguten ongietorria, begiratu ziguten denoi zaurietara, eta han ibili ginen hogeit bat egunean.

Askotan gaua izaten zen tristea, gure kontrarioen aireplanoak etortzen baitziren. Herri honek bazeukan bere azpian tunel handi bat, eta, sirena jotzen zutenean, ibiltzeko gauza ginenak hemen sartzin ginen; eta ibiltzeko gauza ez zirenei, ohean zeuden tokian lau edo bost koltxoi botatzen zizkieten gainera, bomba erortzen bazen min gutxiago egitearren. Aireplanoek alde egiten zutenean, berriz ere denok ospitalera. Horrelaxe ibiltzen ginen.

Herri honetako baserritar jendea ez zen beti nahiko loa eginda bizi. Goizean laurak baino lehenago irteten ziren etxetik, gizonezko eta emakumezko, beren mando eta karro zaharrak hartuta.

Herriari ematen zioten hutsaldi ederra, jende asko ateratzen baitzen, bakoitza bere tokira lanera.

Gero, ilunabarrean, prozesioa ematen zuen. Mando-errenkada izugarriak etortzen ziren, bata bestearen atzetik, batzuek

mahatsa, besteek patata, tipula, tomatea edo piperra zekartela. Piper morroarekin zetozenek ematen zuten ederki, denak ilaran gorri-gorri.

Ni gustura egoten nintzen haiei begira. Ez zuten ekartzen jostatzeko gogo handirik; gizarajoak ederki nekatuta etortzen ziren.

Hurrengo agindua etorri zen berriro Iruñera joan behar genuela. Sartu ginen trenean, eta Iruñeko estazioraino. Hemendik, ambulanzia-kotxeetan sartuta, berriz ere Hospital Militarrena. Niri berriz ere lehenago egon nintzen salan eta ohe hartan bertan suertatu zitzaidan sartzea.

Eta ez nintzen haserre. Lehenago ere han egon bainintzen ederki, eta berriz ere ondo zaindu ninduten lehengo medikuek, mojek, bi neskatxek eta beren ama borondate onekoak.

Lehenago bezalaxe berriro ere hasi nintzen bizitzen, nire zauriak sendatu ziren arte.

Sendatu nintzenean, medikuen aurrera eraman ninduten. Hauek nire zauriei begiratu zieten, eta esan zidaten ez nintzela gehiago gerrarako gauza, eta orduan eman zidaten alta. Baina nik oina falta.

Etxera abiatzerakoan, agurtu nituen nire mediku, moja, enfermero eta han gelditzen ziren nire lagun erituak, eta ni egon nintzen ohearen madrina agurtzera bere etxera joan nintzen.

Hantxe agurtu nuen, esker beroak emanez, egin zizkidaten mesede on guztiengatik, eta familia guztiari esku emanda atera nintzen. Eman zizkidaten zigarro puru eder batzuk, eta eskupekoa ere bai; eta esan zidaten, berriz ere inoiz Iruñera joaten banintzen, ez gelditzeko beren etxera sartu gabe.

Nire eginkizun batzuk zirela eta, joan behar izaten nuen tar-teka, eta berriz ere hantxe joaten nintzen familia bihotz oneko hura bisitatzera. Nola ez nintzen ba joango?

XXVIII

Gure anaia Kaximirok ni etxera etorria nintzela jakin zuenean, laster etorri zen bera ere Azken Portura, zer moduz etorri ote nintzen galdetzera.

Eta Juan Mariren familia eta denok, merienda pixka bat eginez, kontua franko esan genuen, gure gerrako ibilerak berrituz.

Gero, Azken Portun sagardoa nola saltzen baikenuen, igandeetan noiznahi etortzen zen bere andregaiarekin, eta nik torea-
tu egiten nuen, esanez:

–Zer? Ez al duzue ezkontzerik pentsatzen, edo beti horrela ibili behar al duzue?

–Bai; laster zerbait egin beharko diagu, beti horrela ibili gabe. Padrinotza egingo al diguk?

–Bai, motel; egingo ez diat ba? Pozik gainera! Elkarrekin egun bat ederra pasa behar diagu, lehengo penak ahazteko.

Eta halaxe ezkondu ziren bere andregai Martina eta biak. Egun ederra pasatu genuen. Ez zuten familiarik izan. Gero, handik urte batzuetara, bere emazte Martina gaixotu eta hil egin zen.

Handik urte pare batera, berriro ezkondu zen, Astigarragako emakume batekin; baina handik beste urte pare batera bera ere gaixotu eta, pleurarekin oso gaizki zegoela, eraman zuten klini-
kara operatzera.

Operatu zuten, baina medikuek, hain gaizki zegoela ikusirik, etxera eramatea hobea izango zela esan zuten. Halaxe, etxera ekarri eta berehala hil zen.

Harkaitza baino gogorragoko gizona egun batetik bestera joan zitzaigun, esate baterako.

Pena ederra hartu nuen nik behintzat, eta bere emazteak eta gure senideek ere bai noski. Han aritu ginen gorputzaren jiran denok negarrez errezatzen. Nik esaten nien beste senideei:

–Horrenbeste denboran han ibili zen gizarajoa frentean bala tartean, eta Jainkoak dakien bezala; noizbait bizirik etorri etxera, eta oraintxe urte batzuk bakean pasa behar mundu honetan, eta usterik gutxienean ziplo! Hara zer garen gu! Zerbait bagarela uste, eta ezer izan ez!

Garagarrilaren 12an, igandearekin tokatu zen bere gorputza kanposantura eramatea, eta egundoko jende pila zen. Hurrengo egunean, San Antonio egunez, egin ziren bere elizkizunak Donostiako San Inazio elizan, eta hantxe ere bazen jendea ugari; ezagun asko baitzuen gure Kaximiro gizarajoak. Jainkoak berekin dezala.

XXIX

Ni etxera etorri eta handik laster, etorri zitzaidan bere kotxearekin berriz ere gure lantegiko nagusia, Erdozia jauna, eta galdetu zidan:

–Lanera etortzeko moduan al haiz, edo nola haiz?

–Lanera? Nahiago nuke ba lanerako moduan banengo. Borondatea badaukat, baina abildaderik ez. Gerran oina moztuta etorria nago etxera.

–Oina moztu al ditek?

–Bai, jauna, bai; hauxe da handik ekarri dugun propina.

–Marka ederra duk! Baina nik gauza bat esango diat: hik inork baino hobeto dakik zer lan egin behar den Gas-ean. Enkargatua gaixo zeukaat, eta kuadrillan ere jende berria gehiena. Enkargatua sendatu arte bere tokian jarriko haiz, eta ea jende horri erakusten dioan lana nola egin behar den.

Halaxe, joan nintzen berriz ere Gas-era lanera. Hilabete batzuk pasa nituen enkargatu; baina gero, enkargatua sendatu eta lanera etorri zenean, ni berriz ere zerbait lanean hasi nintzen.

Kuadrilla honetan baginen palak nork bereak genituenak; eta nik, soldadu joan nintzenean, etxera ekarri, garbi-garbi egin, olio eman eta jaso egin nuen. Enkargatua sendatuta etorri zenean, ni nire pala horrekin lanean hasi nintzen, eta Kalisto enkargatua begira-begira jarri eta hauxe esan zidan:

–Sebastian, lehenago ere pala horrek lanean ederki zekian.

Baina palaketako lana nola baitzen astuna eta gogorra, moztutako oinak ez zidan behar bezala laguntzen, eta pentsatu nuen ez neukala nik lantegi hartan jarraitzerik. Hala, Donostiako Aiuntamentura joan nintzen, eta bertako agintariei galdetu nien:

–Niretzako lantoki polit bat bai al daukate?

–Lantegi polita? Bai, gizona; bat baino gehiago ere badauzkagu. Jende guztia gerrara joan zaigu, eta lanerako inor ez. Etorri zaitez datorren astelehenean, eta enkargatuak erakutsiko dizu lantegia.

Hala joan nintzen, esan bezala, hurrengo astelehenean, goizeko zortzietarako, eta enkargatuak eraman ninduen Amarako Parque de Niños izeneko tokira, eta esan zidan:

–Hauxe da zure lantegia. Hemen ikusten dituzu nola dauden loreak eta beste landare klase asko aldatuak, eta hauei begiratu behar diezu, umeek hondatu ez ditzaten.

Eta bastoi bat eskuan nuela, hantxe ibiltzen nintzen jira eta buelta. Haur asko joaten zen, batzuk beren gurasoekin eta beste asko berriz neskameekin. Behin baino gehiagotan esan nion nik nire buruari:

–Hementxe zeukaat nik aukera ederra andregai bat egiteko. Neskaxa euskaldun asko joaten zen eta gehienekin hitz egiten nuen, baina ez nuen andregairik egin; ez baikinen asmo berdinekoak neskaxa hauek eta ni: berei kale aldeko bizimodua gustatzen zitzaienten, eta niri berriz baserri edo mendi aldekoa.

Ez zen lantegi txarra, baina ni iluntzerako nekatu egiten nintzen; egun guztian oinaren gainean ibili behar baitzen, eta nik zimendu txarrak izan.

Egun batez, nire agintariei esan nien ea beste lantegi bat bai al zeukaten niretzat, neke gutxiago zuena. Erantzun zidaten baietz, eta hala eman zidaten.

Geroztik beti Donostiako Aiumentuen zerbitzari izan naiz, orain aspaldi honetan nire eginkizuna Oriamendiko uraren depositua zaintzea dela.

Lantegi hau eskaini zidatenean, Donostiako kale batean porteria bat ere banuen nire izenean, nahi nuenean ezkondu eta bertan bizitzeko; eta orduan, orain emazte dudan honi esan nion:

–Pilar, laster ezkondu egin behar dugu, eta nik badauzkat bi etxe nire izenean, bat kalean eta bestea mendi aldean. Orain zuk esango duzu non bizi nahi duzun.

Eta, bera ere nola baitzen baserrian jaioa, hauxe erantzun zidan:

–Nik ez dut kalean nahi; nik nahiago dut mendi aldean bizi.

Hala, ezkonduz geroztik mendi aldean bizi gara, seme bat eta bi alabarekin. Gure etxe hau oso leku baketsu eta alaiaren egin dago, Aiete bailarako Oriamendi inguruan. Hemendik ikusten dira ederki Donostia eta bere inguruko bailara gehienak, bai Gipuzkoako mendi gehienak eta Nafarroakoak ere. Isiltasun atseginean bizi gara, fabriketako eta gainerako soinurik entzun gabe. Bakea nahi duena betor mendira. Hemen dago bakea, zoriona eta alaitasuna.

Baina ni, nire bake-toki honetatik ere, askotan oroitzen naiz nire gerra-denboraz. Eta egun batez, hala gogoak emanda, bertso hauek jarri nituen:

Milla beatzireun gañera ogei ta
amaseigarren urtian,
gerra triste bat sortu zitzaigun
Españiyako partian;
esan biarrik ez dago zala
soldaduentzat kaltian,
ni ere kintak arrapatuta
or ibili naiz tartian,
amaika amaren seme sartu da
urte auetan lurpian.

Bizkaian Yurre izena duan
erri batian sartuta,
bizirik juxtu atera nintzan
sari ederra artuta;
maiatzak ogei ta lau zituan
egunian erituta,
kamilleruak jaso niñuten
geiena odol ustuta,
ospitalera ekarri naute
tiroak anka moztuta.

An bi anaiak alkarren kontra
giñala guk ez genekin,
inkurriorik gabe alkarri
tiroka fusillarekin;
urrena berriz ospitalian
bildu giñan alkarrekin,
negar egiñaz berak esana
ordun pena ederrarekin:
“Ire oin oiek jotako balak
neronek tirako nizkin!”.